

Goienkaria

2007ko otsailaren 23a > Egubakoitza > VII. urtea > 277. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Alarguntasun eta herentzia kontuetan diferentziak daude bikoteen artean"

Maidor Morras

Abokatu > 09



G2a

Dantza taldeak zaletasunari utsiz > 43-44

TXOMIN ITURBE

Arrasatearra hil zela 20 urte beteko dira martitzenean > 02-03

ETORKINAK

Haiendako zerbitzu gida argitaratu du Arrasateko Ekin elkarteak > 18

LABURRETAK

Elgetako denda baten larruzko ehun bat beroki ostu dituzte > 37

DEBAGOIENENKO OSPITALEA > JOSE LUIS ANGULO GERENTEA OSPITALE BERRIAREKIN DAGO KEZKATUTA

Lagun Aroren erabakiak kezka eragin du eskualde ospitalean

OSPITALE BERRIA Lagun Aroko onuradunak kontuan hartuta egin dute ospitale berriaren diseinua

BEHAR GEHIAGO 80.000 biztanleko populazioari zerbitzu emateko egongo da prestatuta ospitalea

LAGUN ARO Osasun-asistentzia berria ezartzekotan dira. Martxoan aztertuko dute gaia, batzar orokorrean > 05

PRESOAK > MOBILIZAZIOAK

De Juanaren aldeko ekimenak

Bilkurak deitu dituzte gaurko eta manifestazioa bihar, Bilbon > 06

BERGARA > SEMINARIOA

UNED, Arrizuriaga jauregira

Astelehenean egin zuten ofizial Errege Seminarioaren banaketa. Hala, UNEDek, Aranzadi ikastolak eta Udalak hainbat lan egingo dituzte, nork bere tartea konpontzeko. UNEDen kasuan, zentroa egokitzeko lanek irauten duten bitartean -18 hilabete- Arrizuriaga jauregira joango da. > 24

ARETXABALETA > URKULU

Urkulurako beste ibilbide bat

Otala Zelaitik urteigira egingo dute, oinezkoendako > 31



Merkealdi azoka egingo dute aste bukaeran Arrasaten

Bihar eta etzi egingo dute *Merkemerkaua* izeneko azoka, Uarkape pilotalekuan. Arrasate, Aretxabaleta eta Bergarako 23 komertzio arropa dendatik atera eta Uarkapen egokitutako saltokietan salduko dute. Ume eta nagusiendako arropa, kirol jantziak... Askotarikoak erosi ahal izango dira. Arrasateko Udalak eta Ibai Arte merkatarien elkarteak antolatuta dute. 11:00etatik 20:00etara egongo da zabalik > 04

PRESTAKETAK Dendako arropa Uarkapera eroan eta saltokiak gertatzen jardun dute dendariak egunotan. I.B.

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-42
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

IPARRAGIRRE
SAGARDOTEGIA

Osiñaga auzoa / Hernani 943 55 03 28
Eguaztenetik zapatura gaez zabalik, zapatu eguerdian ere bai
www.iparragirre.com

SUPER AMARA

DENAK GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua

URTEMUGA > TXOMIN ITURBE NOR ZEN ETA HAREN HERIOTZAK ERAGIN ZUENA EKARRI DUGU GOGORA

Martitzenean, 20 urte Txomin Iturbe hil zela

XABIER URTZELAI > ARRASATE

1987ko martxoaren lehenengo egunean egin zen ofizial Txomin Iturbe Abasoloren (Arrasate, 1943) heriotza, Aljerian. Arrasatearra, baina, egun batzuk lehenago hil zen, otsailaren 27an, hain zuzen. Aljeriako gobernuak emandako bertsio ofizialaren arabera, auto istripuan hil zen orduko ETako buruzagietako bat. Kontatu zuten, autoa Amar Taybi izeneko txoferrak gidatzen zuen, eta Iturberekin batera autoan ziren, baita ere, Maria Belen Gonzalez Peñalba *Carmen* eta Inazio Aracama Mendia *Macario*. Madril komandoko etakide bi horiek Aljerian zeuden, Espainiatik ihes eginda, errefuxiatuta. Hala, bertsio ofizialaren arabera, Aljeriako hiriburutik 150 kilometro ira zuten auto istripua.


Iturberen senitartekok, baina, orain dela urte gutxi jakin dute zelan hil zen Txomin Iturbe. Arrasatearra kanpandorre bateko teilatuan zebilen lanean, eraikin hori babes-leku moduan erabiltzeko asmotan. Lehenago ere izan ei zuen zorabiorik, eta hala hil zen, teilatuan lanean zebilela zorabiatu eta handik erorita. Espainiako Gobernuak jarritako trabak izan zirela medio, baina, bederatzi egun behar izan zituzten Iturberen gorpua Arrasatera ekartzeko. Martxoaren 8an, HBk deituta, 50.000 lagun elkartu ziren ETako kidearen aldeko hileta elizkizunean eta egin zitzaion omenaldian parte hartzeko. Gerora, zeresan handia eman zuen omenaldi hark.

LIDER HISTORIKOA

1943ko azaroaren 7an jaio zen Txomin Iturbe Abasolo, Arrasateko Etxezuri baserrian. Sei anai-arrebaren artean nagusiena, Iturbek monjetan eta San Viatorren egin zituen lehenengo ikasketak. 14 urte zituela, Zerrajerako Aprestuzen Eskolara egin zuen, Ofizial Doitzaile ikasketak egite-

BEDERATZI EGUN Espainiako Gobernuak jarri zituen trabengatik, bederatzi egun behar izan zituzten Txomin Iturberen gorpua Arrasatera ekartzeko

50.000 LAGUN HBk deituta, martxoaren 8an jendetza batu zen Arrasaten, Iturberen hileta elizkizunean eta ondoren egindako omenaldian esku hartzeko



TXOMIN ITURBE Arrasatekoak 25 urte zituela egin zuen mugaren beste aldera ihes, urtebetetze egunean.

KEPA ORMAETXEA

ra. Hala ere, baserriko lanak alde batera utzi barik egin zituen ikasketok, eta 18 urterekin Zerrajeran hasi zen lanean. Orduan ezagutu zuen haren emazte izango zena, Maite Ormaetxea -hiru seme izan zituzten-.

Iturbek Zerrajeran jardun zuen lanean, baina enpresa hura utzi, AMAT kooperatiba sortzen laguntzeko gonbita onartu eta urtebeteren buruan mekanizazio, galbanizazio eta txartaketa saileko arduraduna zen. Baserrian eta lantegian lan egitearekin batera, Iturbek futbolekin egiten zuen, hori zen haren zaletasunetako bat. Atezain jokatzeko, eta bost denboraldi egin zituen Aretxabaletan, Mondrak fitxatu zuen arte -etxetik kanpora jokatzeko zuten partiduak kirol poltsan propaganda eramateko aprobetxatzen zituen-. Mugaren beste aldera ihes egin aurretik izan zen hori, 1968an, 25 urte zituela. Hurrengo urtean ezkondu ziren Iturbe eta Ormaetxea, Iparraldean.

LAU ATENTATU

Frantziar zegoela, lautan ahalegindu ziren Txomin Iturbe hiltzen. Bigarren atentatuan, 1975eko azaroan, semeak ohartarazi zion auto azpian kable batzuk zeudela. Orduan, autoak eztanda egin eta aita-semea zauritu ziren. Zauri larrienak, baina, Biarritzeko tiroketan izan zituen (1979). Orduan, ezezagun batzuek tiroka hasi eta besoan eta hankan zauritu zuten: "Ikusten duzunez, ez dut zorte makala izan, beste batzuk ahalegin bakarrean erori dira-eta. Sustoak eta korrika irten beharra ere izan dut, baina horretan geratu dira", esan zion Iturbek *Egin* egunkariari, istripua gertatu baino hilabete batzuk lehenago Aljerian egin zioten elkarrizketan. Elkarrizketa hartan negoziazioaren aldeko jarrera erakutsi zuen Iturbek, betiere KAS alternatibaren zentzuaren barruan. Hori horrela, alderdi abertzale moderatuek,



Sastrería Mújica

Presta zaitez ezkontzarako!

Barrenkale 1 • Tel.: 943 76 29 91 • BERGARA



Orduko komunikabideetan oihartzun zabala izan zuen Txomin Iturberen heriotzak

Komunikabideek zabal landu zuten Txomin Iturberen heriotza. *Le Monde* egunkari frantsesak azpimarratu zuen Espainiako Gobernuak Iturberekin harremanetan jarraitu zuela Aljerian: "Txominen heriotzak, independentziaren aldeko mugimendua mobilizatzearekin batera, ustezko elkarriketei gainera eztabaida berpiztu zuen". Hala, "Txomin, enbarazu egiten duen hildakoa" izan zen egunkari frantsesak aukeratu zuen izenburua. *DV*-rendako, "Txominen heriotzak ez du ETAn eragingo", baina *Diario 16* egunkariaren esanetan, "ETAk erreferentzia bat galduko du".

Ya egunkaria ez zetorren bat Iturbek zeukan irudiarekin: "Belatzen artean Txomin usoa zela irudikatu gura izatea errealitate distorsionatzea da". I. Zubiriak, orduko *El Correo Español* egunkariako korrespontsalak, idatzi zuen Gabonetan Julen Elgorriagak -orduko gobernadore zibila-Fando eta Esnaola abokatuek lagunduta Iturberekin izandako elkarriketaren gainean. Hori publikatu eta hurrengo egunean hiru lagun horiek ezetzatu egin zuten berria. *La Gaceta del Norte*-k azpimarratu zuen alderdi politikoendako Txomin Iturberen negoziatzeko gaitasuna handia zuela.



HILKUTXAREKIN Argazkian daude, besteak beste, Rafa Diez eta Tasio Erkizia. Baita Mahai Nazionaleko beste batzuk ere.

K. O.

ETA barruan, negoziazioaren aldeko gizontzat zeukaten Iturbe.

1986ko apirillean atxilotu zuten arrasatearra, Frantziako Estatuan, eta Bordeleko presondegi-ara eraman zuten. Bi hilabete geroago, Frantziako Gobernuak Gabon-era (Afrika) bidali zuten. Hango egonaldia hiru poliziaren zaintzapean egin zuten, apartamentu baten, eta handik Aljeriara bidali eta bertan euskal errefuxiatu moduan onartu zuten. 1986ko iraila zen; sei hilabete geroago gertatu zen istripua.

ABERRIRATZEKO ARAZOAK

Txomin Iturberen heriotzaren berri ez zen berehalakoan eman. Aljeriako Gobernuarendako ez zen egoera samurra, Espainiako Gobernuak ez zekien-eta hiru lagun horiek Aljerren zeudenik errefuxiatuta. Egunak behar izan ziren Iturberen gorpua Euskal Herrira ekartzeko, Espainiako Gobernuak trabak jarri zituen-eta. "Guerrak -Alfonso Guerra, orduko Espainiako gobernuko presidenteordea- eragotzi egin zuten Iturberen aberriratzea, Aljeriak ETAko zuzendariekin izandako jarrera zuzendu arte". *El Pais* egunkariako izenburua da hori, 1987ko martxoaren 9koa.

OMENALDI JENDETSUA

Martxoaren 8an,artzelozatik ekarri zuten Txomin Iturberen gorpua, Guardia Zibilaren zaintzapean. Goizaldean iritsi zen gorpua Arrasatera (07:00), eta orduan Ertzaintzak hartu zuen zaintza lanak egiteko ardura. Arrasaten, lagun mordoa zegoen hileta-autoren zain. Ikurrinak eskuan, pan-

karta handi batek egin zion ongi-etorria Txomin Iturberri.

Egun hartan egin zituzten Arrasaten hileta elizkizuna, eta omenaldia. Hurrengo egunean komunikabide guztiek zabal landu zuten egun hartako kronika. Batzuen ustez, "Gernikako arbolararen kimu ederrena"-ri egindako agurra; beste batzuen ustez, ETaren alde egiteko ekitaldi politikoa. Kontua da Ministerio Fisikalak ikertu egin zuela omenaldia, Julen Elgorriaga orduko Gipuzkoako gobernadore zibila horrela eskatuta: "ETaren apologia egiteko manifestazioa izan zen". ETaren aldeko oihuekin batera, omenaldian batutakoek gogor egin zuten Espainiako Gobernuaren eta EAJren kontra.

SEME KUTUN

Hori izan zen Arrasateko HBK egindako eskaria, Txomin Iturbe Arrasateko seme kutun izendatzea, alegia. Horretarako, HBK mozioa aurkeztu zuen osoko bilkuran. EAK eta HBK aldeko botoa eman zuten, baina EAJren eta PSOEn kontrako botoek bertan behera utzi zuten proposamen hori. Mozio hori bertan behera utzita, segidan orduko alkate Alvaro Arregik mozio alternatiboa proposatu zuen; bertan, Iturberen abertzaletasuna gorai-patzen zuten, baina borroka armatua gaitzetsi. Mozio hori EAJ, PSOE eta EEn botoekin onartu zen. HBK aurkeztutako mozioa gairiditu ez zela ikusita, osoko bilkura aretora gerturatutakoek

berba gogorrak izan zituzten EAJko eta PSOEn ordezkarientzako. Orduko alkate Alvaro Arregiendako ez ziren une gozoak izan, baina izan zuten hura baino gogorragorik: "Ikurrina legez-tatu zuten garaia une gogorragoa izan zen, orduko mehatxuak ez ziren-eta brometakoak. Baina orduan denok geunden Franco-ren kontra batera. Hala ere, pentsa zelan diren gauzak, Txomin hil baino hamaika urte lehenago Udalekook berba eginda geneukan horrelako gertaera baten aurrean zelan jokatu; egoera hori aurreikusita geneukan, eta orain ere berdin jokatu nukeen". Hala, Txomin Iturberen gainean galdetu diogu: "Gazteta-ko laguna zen Txomin, lagun

ona, baina martxoaren 8an ni ez nengoen han politika egiteko".

SUMARIO BI ITURBEREN KONTRA

Egin-en esanetan, Iturbe hil zenean Auzitegi Nazionalan sumario bi baino ez zituzten haren kontra. Lehena 1978ko atentatu baten Imaz polizia komandantea hil zutenekoa. Antza, Iturberen arduraz izan zen komandoari poliziaren gaineko datuak ematea. Horrekin batera, 1980an Santanderren dinamita lapurtu izana leporatzen zioten. Espainiako Poliziak beste datu batzuk zituen esku artean, besteak beste: 14 lapurretan esku hartu izana eta 20 pertsona hil izana leporatzen zion Iturberri, tartean Carrero Blanco (1973).

Kanposantura senitartekoak eta lagunak bakarrik sartzeko eskaera egin zuten

Biteriko plazan egindako omenaldiaren ostean, Txomin Iturberen hilkutxa sorbalda gainean hartu, eta manifestazioa egin zuten Arrasateko kaleetan zehar (Biteri, San Andres, Arrasate pasealekua, Erdiko kalea, Madalena). Milaka lagunek egindako kale agerraldia izan zen, eta kanposantuko eskaileretara iritsitakoan, hara joandakoei eskatu zieten kanposantura familiakoak bakarrik sartzeko, ez zegoen-eta guztiondako lekuri. Hala, senitartekoak, gertuko lagunak, Mahai Nazionaleko kideak eta komunikabideetako kamera eta argazkilariak egon ziren ehorzketan.

20:00etan bertan iritsi ziren Iturberen horma-hilobira. Hala, haren koinatu Xabier Perez de Arenatzaren -GALek hil zuen- ondoan hilobiratu zuten. Hori egin baino lehenago, Xabier Zubizarreta *Txiron*-ek -hurrengo hauteskundeetan alkate izendatu zuten- agur berba batzuk esan zituen. Iturbek horrenbestetan erabilitako "Aurrera bolie!" esaldiarekin amaitu zuten Zubizarretak berbaldi laburra, eta *Eusko gudariak* abestuz ehortzi zuten Iturbe. Familiakoek eta lagunak artean egindako ekitaldia amaituta, kanposantu kanpoan zain zeuden milaka lagunak azken agurra egin ahal izan zioten arrasatearrari.



Arrasateko kanposantuan, gorpua ehortzi aurretik.

KEPA ORMAETXEA



Aurten denbora luzeagoa igaroko dut zure alboan.

Domingo Irala 5
BERGARA 943 76 39 79

Zuloagatarren 1
EIBAR 943 20 62 28





EUSKARA TEKNIKARIAK Aramaioko Amaia Axpe, Oinatiko Marian Lizarralde, Arrasateko Joxe Felix Diaz de Tuesta eta Eskoriatzako Mari Karmen Arrieta aurkezpenean. M.B.

EUSKARA > ALDERDI POLITIKOEI ETA HERRITARREI MEZUA HELARAZI DIE MANKOMUNITATEAK

Hauteskundeei begira, 'Zatoz euskaraz' plana aurkeztu dute

Udalera euskaraz zuzentzeko eskatzen die pertsona guztiei

Alderdien hautagaien zerrenden ordezkariak euskaradunak izatea eskatzen du

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Maiatzean udal hauteskundek izango dira. Horren harira, azken urteotan hizkuntza normalizazioan egindako lanak ez duela "lau urtetik lau urtera dantzan egon behar" gogoratu, eta *Zatoz euskaraz* egitasmoa aurkeztu zuten eguaztanean Mankomunitateko ordezkariak.

Antzuolako Udalean izan ezik, ibarreko gainontzekoetan

aurkeztuko diren alderdi politikoaren ordezkariak, hautagaien zerrendak egiterakoan hizkuntza gaitasuna kontuan izan dezatela eskatu zieten Mankomunitateko ordezkariak. Alegia, "euskaradunak izan daitezela".

Alderdiekin harremanak izan dituztela eta guztiek eskaera "ondo" hartu dutela ere gehitu zuten. Hala ere, batzuek konpromisoa hartu badute ere, bes-

te batzuek "zailtasun gehiago" izango dutela adierazi zuten.

TRIPTIKOA HERRITARREI

Herritarrengana ere joko dute: triptiko bat banatuko dute. Hala, euskararen alorrean herritar bakoitzak konpromisoa duela gogorarazteko. Gainera, herri bakoitzeko egoeraren berri ere jasoko du. Azkenik, udalera euskaraz zuzentzeko eskaria luzatu zuten.

> PROTESTA

Gaur beste protesta ekitaldi bat, Arrasateko Garibain

Joan den egubakoitzean moduan, gaurko ere hitzordua egin dute herriko obrenetatik protesta egiteko. Garibai da elkargunea, 19:00ak inguruan. Obrek eragindako eragozpenak salatzeaz gain, oraingo honetan salatu gura dute, baita ere, Biteriko pergola behar bezala ipintzeak ekarriko duen gehiegizko gastua. Halakoak aurrekusi egin behar direla diote.

> POLITIKA

Bergarako egoitzari egindako eraso salatu du PSE-EEK

PSE-EEK salatu egin du Bergaran duen egoitzari joan den zapatuan egindako eraso. Prentsa oharrak dio pintura horiz eta gorritz betetako arrautzak bota zituztela alderdiaren egoitzaren kontra, eta, fatxadaz gain, tabernan zegoen bezero bati ere arropa zikindu ziotela. Eraso salatzeaz gain, biolentziaren aurka elkartzeko eskatzen die PSE-EEK beste alderdiei.

> MERKEALDIAK

Zapatuan eta domekan egingo dute Uarkapen merkealdietako azoka

Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, egingo dute Arrasateko Uarkape frontoian merkealdietako azoka. Ibarreko 23 dendak jarriko dute postua frontoian eta ohi baino merkeago salduko dituzte produktuak. Arropak ez ezik, oinetakoak eta etxerako osagarriak ere erosi ahal izango dira. Taberna ere jarriko dute. 11:00etatik 20:00etara egingo da zabalik azoka.

MILAR ELKORO

Eta orain ere... **SUKALDE ALTZARIAKI!**
- Eskatu aurrekontuak konpromiso barik.
- Neurria egindako finantzaketa.



Milar Elkoro Olarte, 1 ARRASATE Tel.: 943 79 18 86

Energia-maila: A

ZANUSSI ZWF 382 GARBIGAILUA

- Zentrifugazioa: 800 rpm.
- 15 programa
- Elektronika
- 30 zm-ko idi-begia

Lehen 319€

239€

Renove plana barne*

Aurrezkia
80€

HD Ready

TV LCD 26"/32" LG

- ◀ Bereizmena: 1.366 x 768 pixel
- ◀ Distira: 600 ansi lumen
- ◀ HDMI
- ◀ Teletestua: 1.500 orrialde.

TV LCD 26"
599€

TV LCD 32"
699€

OSPITALEA > DEBAGOIENENKO OSPITALE BERRIA IZANGO DENA HIZPIDE IZAN DUGU JOSE LUIS ANGULO GERENTEAREKIN

Lagun Aroren azken erabakiak kezka sortu ditu ospitaleko gerentearengan

Ospitale berriaren diseinua Lagun Arokoak ere kontuan hartuta egin dela adierazi du

Ospitale berria 80.000 biztanleko populazioari zerbitzu emateko egongo da prestatuta

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE

Debagoieneko ospitale berria egiteko prozesua aurrera doa; oraingo astean bertan onartu du Arrasateko Udaleko Gobernu batzordeak ospitalea egiteko lurrak Eusko Jaurlaritzari ematea.

Bien bitartean, Jose Luis Angulo Debagoieneko ospitaleko gerentea kezkatuta azaldu da orain dela gutxi Lagun Aroren Errektore Kontseiluak hartu duen erabakiarekin. Orain dela aste bi GOIENKARIAN jaso genuen moduan, osasun-asistentzia sistema berria ezartzea onartu zuen; martxoko batzar orokorrean aztertuko dute gai hori.

Lagun Aroren erabakiak ospitale berriaren eraginik izango duen galdetuta, honakoa esan digu Angulok: "Bistakoa da erabaki horrek egoera okertzen duela edo hainbat argilun sortzen dituela, eta uste dut komenigarria dela, era arduratsuan, herritar guztiaren partekatzea nire analisia. Kontuan hartu behar dugu Lagun Aroko onuradunak osasun sistema publikoan hartzea baloratu dugula aukera eta erronka berri bezala".

OSPITALEAREN DISEINUA

Zehatz-mehatz azaldu nahi izan digu Angulok ospitale berriaren diseinua zela egin duten: "Bate-tik, hainbat adierazle kontuan hartu dugu: biztanle kopurua, patologia ohikoenak, Debagoieneko zenbat gaixok jo behar duten kanpoko ospitale publiko zein pribatueta...". Bestetik, familia-medikuen ahotsa hartu dute kontuan, eurak direlako gaixoen beharrezko ondoren ezagutzen dituztenak. "Hirugarrenik, herritarren ahotsa, besteak beste, Fagorreko Kontseilu Sozialarena", gaineratu digu. Azkenik, Osakidetzaren Osasun Plana, Osasun Zerbitzuen Dekretua eta beste ospitale batzuetako zerbitzuak ere kontuan hartzen dira.

Horren guztiaren arabera diseinatu eta onartu zuten ospitale berria izango denaren proiektua. 80.000 biztanleko populazioari erantzuna emango dion ospi-



KEZKATUTA Jose Luis Angulo Debagoieneko ospitaleko gerentea bere bulegoan. Kezkatuta dago Angulo Lagun Aroko Errektore Kontseiluaren erabakia dela-eta. GOIENKARIA

ESANAK

"Bistakoa da Lagun Aroren erabakiak hainbat argilun sortzen dituela, eta nire analisia guztiaren partekatu nahi dut"

talea, hain zuzen ere, diseinatu zuten; kontuan hartuta, betiere, Lagun Aroko kooperatibako bazkideak Osakidetzan, osasun sistema publikoan, integratuko dire-

"Ospitale berria diseinatzerakoan, besteak beste, Fagorreko Kontseilu Sozialaren ahotsa kontuan hartu dugu"

la. "Hortaz, Lagun Aroren oraingo erabakiak planteamendu horri zelabaiterako ezegonkortasuna ematen dio", diosku Jose Luis Angulok. "Hori guztia kontuan

"Lagun Aroko onuradunak osasun sistema publikoan hartzea baloratu dugu aukera eta erronka berri bezala"

izanda, uste dut ulertzekoa dela nire kezka agertzea, baina espero dut debagoiendarrak nirekin bat etorriko direla honako ilusio eta ardurei dagokionez: osasuna-

ri dagokion azpiegitura indartsua sortzea; herritarrengan, 80.000 biztanleengan, ospitalearekiko leialtasuna sorraraztea eta lanpostuak sortzea".

OSPITALEAREN DISEINUA

Egindako analisiaren ostean, Angulok gaineratu digu euren helburua dela herritarrek ospitalearekin identifikatuta eta harro sentitzea. Horrela, gogorarazi dizkigu lortutako merituak, hala nola: zilarrezko Q ziurtagiria eta hamar zerbitzu baino gehiagotan ISO arauaren ziurtagiria dutela edota erizainen areari dagokionez, Euskadiko bigarren puntuazio onena jaso dutela.

Espezialitate berriak jarri dituzte Debagoieneko ospitalean azken urteotan

Jose Luis Angulok azaldu digu lehen ez zeuden hainbat espezialitate jarri dituztela; hori guztia, lehen esan bezala, familia-medikuek eskatutako eta proposatutakoei eta hainbat herritarri jaramon eginda, tartean, Fagorreko Kontseilu Sozialari.

Horrela, azkeneko urteotan, honako espezialitateak jarri dituzte: endokrinologia eta pneumologia kontsultak, kardiologo berria lanean hasi da eta urologiako gaixoei tratamendua ematen diete, Gasteizko Santiago ospitalearekin elkarlanean. Zera adierazi digu Angulok: "Linea horretan lanean jarraituko dugu, aurrez ikusitakoa betez". Honakoa gaineratu digu: "Osakidetzako zuzendari nagusiarekin konpromiso batera iritsi naiz, 2007ko azkeneko hiru hilabete langile gehiago izateko".

Adierazitako guztiak esan nahi du Debagoieneko ospitaleko ardura-dunak ez daudela ospitale berriaren zain zerbitzuak gehitzeko eta hobetzeko; alderantziz, etengabe urrats gehiago ematen jarraitzen dute. Horixe jakinarazi nahi izan die debagoiendarrei Jose Luis Angulok.



Temprano medikua Pneumologia zerbitzuan kontsulta pasatzen.

D.O.

PRESOAK > BIHAR BILBON EGINO DEN MANIFESTAZIORAKO DEI ERE EGIN DU ETXERAT-
EK

De Juanaren aldeko ekimenak antolatu dituzte gurean ere

Irati Arantzabal arrasatearrak azaldu digu psikologikoki oso gogor baina fisikoki oso ahul dagoela Iñaki De Juana presoak

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE

Gaur bete dira 109 egun Iñaki De Juana preso politikoak bigarren gose grebari ekin ziola. Bada, haren borrokarekin bat eginez, hainbat ekimen antolatu ditu Etxerat-ek egunotarako, baita gurean ere. Martitzenean prentsaurrekoa egin zuten Arrasaten. Batetik, De Juanaren egoeraren berri eman zuten; bestetik, gaur, egubakoitza, ordubeteko lanuztea, 12:00etatik 13:00etara, egiteko deialdia egin zieten herri-

tarrei. Gainera, herri guztietan kale agerraldiak egingo dituzte laurreratu zuten. Azkenik, bihar, zapatua, Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren alde egingo den manifestaziorako deialdia ere egin zuten. Bilbon izango da manifestazio hori, 17:30ean, Aita Donostia plazan hasita.

DE JUANA, PSIKOLOGIKOKI GOGOR

Iñaki De Juanaren senitarteko Irati Arantzabalekin berba egiteko aukera izan dugu. Arantzabalek azaldu digunez, psikologikoki oso gogor dago De Juana, baina fisikoki oso ahul. Honako azalpenak eman dizkigu: "Elikadura jarri eta kendu egiten diote eta gorputzari kosta egiten zaio aldaketa horietara egokitzea; momentu horretan egoera larrian egoten da. Kontuan hartu behar dugu bat-bateko heriotza arriskua duela, medikuek diotenez".

Kartzela zigorra 12 urtetik hiru urtera jaitzi diote; Arantzabalek galdetu diogu zela hartu zuten berria: "Zelanbait, itxaropenetsu; izan ere, ez geneukan batere itxaropenik. Dena dela, hiru urteko zigorra asko da, kontuan hartuta bi iritzi artikulugatik epaitu dutela. 2004ko urria ezkerrean egon beharko luke, eta ospitalean dago, hankak eta eskuak lotuta, egoera larrian, hil edo biziko egoeran". De Juanak erabakita dauka gose greba ez lagatzea etxeratzen duten arte.

Gaiak izan duen oihartzuna ere aipatu digu Arantzabalek: "Iñakiren egoerak agerian laga du ehunka presok jasaten duten espetxe politika, eta hori garrantzitsua da; egunerokoak dira euren bizitzan, jipoiak, torturak, isolamendua...". De Juana laster etxeratuko duten itxaropenarekin jarraitzen dute senideek.



HUHEZIN Zuberogoitia, Arratibel eta Zabalondo prentsaurrekoan. IXONE SERRANO

KOMUNIKALDIAK 07 > MU-K ANTOLATUTA

Euskara eta Tokiko Telebista Digitala mintzagai HUHEZIn

Martxoaren 1ean egingo dute jardunaldia HUHEZIn eta erakunde publikoko eta tokiko telebistetako zuzendariak berba egingo dute

OIHANA ELORTZA > ESKORIATZA

Komunikaldiak 07 izeneko jardunaldiak aurkeztu ditu asteon Mondragon Unibertsitateak Eskoriatzako HUHEZI fakultatean. Tokiko Telebista Digitala eta euskara lotzen dituen jardunaldia egingo dute martxoaren hasieran fakultate horretan, eta hori aurkezteko egin dute prentsaurrekoa. Hiru lagunek berba egin dute: Nekane Arratibelek, HUHEZI fakultateko dekanok; Bea Zabalondok, informazio eta komunikazioko arduradunak; eta Aitor Zuberogoitiak, Ikus-entzunezko Komunikazioa karrerako zuzendariak.

TTD-A, EUSKARAZ

Tokiko Telebista Digitala euskaraz da jardunaldiaren izena eta parte hartuko dute, beste-

ak beste: Goienak, EHUK, Goierri Telebistak, Hamaika taldeak eta Eusko Jaurilaritzak.

Martxoaren 1ean izango da jardunaldia eta egun osoa izango da. Edurne Basoak, Kultura sailburuaren kabinete eta gizarte hedabideen zuzendariak, Tokiko Telebista Digitala arautzeko EAEn dagoen dekretuari buruz berba egingo du. Iñaki Uriak Hamaika telebistaren proiektua azalduko du gero, eta, goizeko azken hitzaldian, Goiena Komunikazio Zerbitzuak enpresako zuzendari nagusiak, Inazio Arregik, berba egingo du Goiena taldeak TTDren garaietan dituen erronkez. Arratsaldean, mahai-ingurua egingo dute. Jardunaldira joan gura duenak astelehena baino lehen eman behar du izena HUHEZIn; 25 euro da matrikula.

'Langileok autodeterminazioa' kanpaina abiarazi du LAB sindikatuak

'Langileok autodeterminazioa' kanpaina aurkeztu du ibarreko LAB sindikatuak Arrasateko egoitzan. Euskal langileen eskubideak Euskal Herrian kudeatu eta negoziatzea da kanpainaren helburua. Nazio mailakoa da eta martxoaren 3ra arte iraungo du, langile-mugimenduen egunera arte. Martxoaren 1erako mobilizazioa deitu du LABek Inem-eko bulego aurrean.



TXOMIN MADINA

Hezurren kalitatea zain ezazu.

Hezur-dentsitometria orain Arrasaten.

CG
CONSULTORIO
GINECOLOGICO


Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88



hamaika esperientzia, proiektu bat

- elkarlana
- lankidetzaz
- herrikoia
- aktiboa
- prestatua
- kalitatezkoa
- integratzailea
- berritzailea
- konpromisoduna
- sustatzailea
- euskalduna

MATRIKULAZIOA: OTSAILAREN 26TİK MARTXOAREN 9RA

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

Gatzaga/Eskoriatza

Luis Ezeiza Eskola

• Tel.: 943 71 49 38
Ate irekiak: Otsailak 26, 17:00-19:00

Aretxabaleta

Kurtzebarri Eskola

• Tel.: 943 79 00 49
bilerak: Otsailak 15,
euskaraz: 18:00 , erdaraz: 19:00

Arrasate

Arrasate Herri Eskola

• Tel.: 943 79 20 69
bilerak: (Bedoñabe) Otsailak 12, 18:00
bilerak: (Musakola) Otsailak 14, 18:00

Aramaio

San Martin Eskola

• Tel.: 945 44 50 04
Ate irekiak: Otsailak 26tik aurrera

Bergara

San Martin Agirre Eskola

• Tel.: 943 76 21 47
Ate irekiak: Otsailak 24, 16:30-19:30

Antzuola

Antzuolako Herri Eskola

• Tel.: 943 76 62 68
Ate irekiak: Otsailak 26tik aurrera

Elgeta

Elgetako Herri Eskola

• Tel.: 943 76 82 26
Ate irekiak: Otsailak 22, 16:00

Oñati

Errekalde Herri Eskola

• Tel.: 943 78 07 64
Ate irekiak: Otsailak 24, 16:30-19:00

BIGARREN HEZKUNTZA

Arrasate

Arrasate Institutua

• Tel.: 943 79 44 47
bilerak: (Aramaio) Martxoak 5, 18:00
bilerak: (Arrasate) Martxoak 6, 18:00

Aretxabaleta

Kurtzebarri B.H.I.

• Tel.: 943 79 57 40
Ate irekiak: Otsailak 21, 18:00

Bergara

Ipintza Institutua

• Tel.: 943 76 31 42
Ate irekiak: Otsailak 28, 18:30

Oñati

Zuazola Larraña Oñatiko BHI

• Tel.: 943 78 12 68
Ate irekiak: Otsailak 22, 18:00

goieskola

debagoienerako euskal
eskola publikoa



gure artekoak

SAAB SPORT HATCH > Orain dela urtebete merkaturatu zuten auto hori, Saab etxearen azkena. Segurtasuna eta erosotasuna dira automobil horren ezaugarri garrantzitsuenak, Xabier Tristanek azaldu digunez.

Xabier Tristan > Giutoko Saab-eko arduraduna

"Sport Hatch da merkatuko automobil seguruenetakoa"

AINZANE IRIZAR > BERGARA

Saab 93 automobil modelooren barruan, familiar erako autoa dugu Saab Sport Hatch. Xabier Tristanek, Giutoko Saab-eko arduradunak, zera esan digu: "Automobil eskusiboa da, ohiko-etatik apartekoa".

Aipatzekoa da Saab etxeak hegazkinak ekoizten hasi zuela ibilbidea.

Sport Hatch autoari dagokionez, azpimarratzekoak dira egonkortasun aerodinamikoak, sortzen duen potentzia handia eta kontrol sentazio handia. Horretan guztian islatzen da Saab etxearen jatorri aeronautikoa.



Xabier Tristan Sport Hatch automobilaren ondoan, Bergarako Giuton.

A.I.

ESTETIKA ETA SEGURTASUNA

Ezaugarri bi horietatik azpimarratu dizkigu Tristanek. Honakoa adierazi digu: "Ez dauka familiar erako autoen ohiko itxura, estetika berritzailea dakar modelo horrek. Bestalde, merkatuko automobil seguruenetakoa da. Kontuan hartu behar dugu Automobil Berrien Europako Ebaluazio Programan gehieneko puntuazioa eman diotela, segurtasunari dagozkion bost izarrak, hain zuzen ere".

Segurtasunarekin jarraituta, atzeko gurgipilen ardatzak lau beso dauzka; horrela, abiadura handian frenatzerakoan, atze-

Sport Hatch 1.9 Tid 150 ZP

Prezioa	28.000 euro
Luzera	4,65 metro
Zabalera	1,76 metro
Maletategia	1.273 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	5,5 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	200 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	10,2 seg.
CO2 isurketak	159 g/km

(1) Gehieneko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehieneko abiadura

ko gurgipalak pixka bat mugitu egiten dira, eta automobilaren ibilbideari eutsi.

Badu segurtasuna bermatzen duen beste detaile bat ere: autoa martxan jartzeko giltzaren sarraila ez dauka ohiko lekuan, gidariaren eskumako aldean baizik. Izan ere, talka bat gertatzen denean, bolante azpiko zatia (normalean autoa martxan jartzeko sistema hortxe egoten da), mekanismoaren kaxa gidariaren gorputzera sartzen da.

Azkenik, erosotasuna aipatu behar dugu, eserleku bereziki erosoa dituenak.

begi-bistan



Antzinako horma agerian (Bergara) 2007/02/21

Argazkia: Aintzane Irizar.
Testua: Aintzane Irizar.

Bergarako Irala kalean hiritar-tze lanetan dihardute; lurra jaso eta hantxe azaldu da garai bateko horma. Ez du aparteko baliorik, Udaleko arduradunen esanetan, baina bitxia, behintzat, bada.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

etxeke leihotik



Aitziber Aranburuzabala > Arrasate Irratiko arduraduna

Erabilera askotariko aterpe eskean

Aurrekoan BECen izan nintzen, lehenengo aldiz. Eskulan azokak eraman ninduen Barakaldora, Debagoieneko beste lagun asko moduan; eta horrek bultzatu nau gaurko gaia aukeratzera.

Kirolari asko da gurean, eta horietako askok erabiltzen dute, besteak beste, kiroldegia, kirola egin eta, bide batez, beste kirolari batzuekin elkartzeko; izan ere, aterpe bat izateak jendearen arteko harremana sustatzen du. Baina guztiok ez ditugu zaletasun berak. Txalotzekoa da udalek antolatzen duten eskulan ikastaro eskaintza; gero eta aberatsagoa da. Baina behin ikastaroak amaituta, ikasitakoak praktikan jartzeko eta sortutako jendarteko harremanak mantentzeko tokiak botatzen ditut nik faltan. Erabilera askotariko aterpe bat proposatuko nuke, bada, nik. Askotariko zaletasunak batzen dituen erakina, ez nuke eskularen alorrera mugatuko. Kolektibo bat izateak, askotan, proiektu interesgarri askoren jaiotza ekartzen du, gainera.

Gero eta individualistagoa den gizarte honetan, merezi du elkartzeko ditugun aitzakiei aterpea egitea!

"Kolektibo bat izateak proiektu interesgarri askoren jaiotza dakar askotan"

> **Elkarte** asko daude ibarrean, era guztieta-koak. Lagunarte askok elkarte izaera eman behar izan diote, besteak beste, aterpe lortzeko. Baina ba ote dago lagunarte bakoitzaren-terpe bana?

> **Erabilera askotarikoa** eta jende askorentzako izateak ez luke kaosaren sinonimo izan behar. Ate bakarra zabaltzeko giltza asko daudenean, sarritan erantzukizunak ahaztu egiten dira.

izen propioak



Juan Jose Arrieta
RURALCAJA

Euskadiko Kutxa-ko zuzendari nagusia izan da Juan Jose Arrieta, orain dela bi astera arte; Ruralcaja edo Caja Rural del Mediterraneo zuzendari nagusi kargua hartu du orain. Elias Atutxak hartuko du Euskadiko Kutxan Arrietak laga duen kargua.



Iñaki Galdos
EA

Hainbat hedabide-aren arabera, Gipuzkoako EAko afiliatu talde batek Iñaki Galdos diputatu nagusitarako hautagaia izatea nahi du. Jose Inazio Galdos Zegamako alkatea eta Bergarako Udaleko langilea, bestalde, Batzar Nagusietako presidente izateko hautagaia izan liteke.



Manex Agirre
BERTSOLARIA

Hiru aramaiorek parte hartuko dute Arabako bertso txapelketan: Manex Agirrek, Iker Agirrek eta Andere Arriolabengoak, hain zuzen ere. Lehenengo biek biharko kanporaketak jardungo dute.

Finalaurreko bigarren saioa Aramaion izango da, martxoaren 25ean.

'Emakume, ezagutu zure eskubideak' izeneko ikastaroa antolatu du Arrasateko Emakume

Txokoak. Otsailaren 27ra bitartean, egoera zibilen arteko ezberdintasunak, herentzia

antolatze moduak, lan kontuak eta ogasuneko gaiak landuko dituzte. Maider Morras

abokatu arrasatearra dabil ikastaroa ematen. Harekin egin dugu berba.

Maider Morras > Abokatu

"Alarguntasun eta herentzia kontuetan diferentziak daude bikoteen artean"

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Arrasateko Emakume Txokoak kontsulta juridikoen doako zerbitzua eskaintzen du joan den urria ezker, asteen behin, eguaztenetan. Zerbitzuaren arrakasta ikusirik, emakumeen eskubideen gaineko ikastaroa antolatu dute. Martitzenean, hilaren 27an, amaituko da. Ezkongabe, ezkondu eta izatezko bikoteen arteko ezberdintasunak, herentzia nola antolatu eta lan eta ogasun kontuak aztertu dituzte Maider Morras abokatuaren laguntzaz.

Emakume Txokoaren kontsulta juridikoen zerbitzuak harreara ezin hobea izan du, ala?

Bai, ikusita eguazteneko doako zerbitzuan kontsulta ugari jasotzen genituela, ikastaro hori antolatzea planteatu zuen Emakume Txokoak. Arrasateko emakumeei kontsulta juridikoen doakoa zerbitzua eskaintzen zaie eguazteneko, arratsaldean. Arrasateko hainbat abokatuk hartzen dugu parte, eta, egia esan, jende askotxo etortzen da. Hori ikusita, hainbat gai sakonago aztertzeiko ikastaroa egitea egokitu zen: denbora aldetik beharbada motz geratzen da, baina emakumeek euren eskubideak zeintzuk diren ezagutzea da helburua.

Azken batean, gizonen zein emakumeen informazio barik mugitzen gara askotan eta horrek lege arazoak sortzen ditu behin baino gehiagotan. Eta orduan abokatuarengana jo behar izaten dugu... Hori prebenitzeko eta ezagutzea komeni izaten den oinarriko informazioa zabaltzeko asmoarekin antolatu du ikastaroa Emakume Txokoak.

Eta zein da ikastarorako zehaztu duzun programa?

Herritarren interesekoak izan daitezkeen gaietara jo dugu, jakinik lau asteen sakonegi aztertzetik ez dagoela. Lau multzo bereiztu ditugu: ezkongabe, izatezko bikote eta ezkonduen arteko sistema; herentzia antolaketak; eszedentzia, bajak, langabezia eta horrelakoak; eta, azkenik, ogasun (hazienda) kontuak. Datorren martitzenean izango da azken saioa. Aurrerago jarraipena izan dezake, baina guztion artean aztertu beharko da hori, antolatzaileak zein partaideak.

Zenbat lagunek hartu dute parte ikastaroan?

Plaza mugatuak ziren, emakumeei zuzendutakoak, eta hamar lagun dabilta. Eta era



USOA AGIRRE

askotako emakumeak dira ikastaroan: gazteak eta emakume helduak dira tartean. Betiere aberasgarria da hori, guztiok izan ditzakegun kezkek argitzea. Astero pare bat orduz elkartzen gara, eguaztenetan. Guztion interesekoak izan daitezkeen gaiak aztertzeiko ondo etorriko da, hainbat gairen gainean ideia zehatzagoa izateko bada ere. Gure ideiak eta betebeharrak zeintzuk diren jakitea ondo dator beti.

Zeintzuk izaten dira arazo ohikoak? Beharbada uste oker asko ere badira, ala?

Bai, baina luze joko luke horiek guztiak azaltzeak. Adibidez, haurdun geratu den emakume batek esaten dizu ezkontzera doala pentsaturik umeak babes handiagoa izango duela; jendeak ez daki ezkontzen denean erregimen ezberdinak daudela...

Esate baterako, izatezko bikoteek eta ezkonduetako bikoteek estatus bera dutela uste dute

INFORMAZIO FALTA

"Gizonen zein emakumeen informazio barik mugitzen gara askotan, eta horrek lege arazoak sortzen ditu"

IKASTAROA ARRASATEN

"Emakumeek euren eskubideak zeintzuk diren jakitea da helburua"

LEGEA

"Genero indarkeriaren kontuan urratsak eman diren neurrian, beste gai batzuetan aurrera egitea beharrezkoa da"

askok, eta berez ez da horrela. Ez da egoten erabateko parekatzerik, alarguntasun eta herentzia kontuekin nagusiki. Izatezko bikoteetan, Eusko Jaurlaritzak zera defenditzen du: bikotekideetako bat hiltzen denean, beste ari urtebeteko alarguntasuna ordaindu behar zaiola. Baina Gizarte Segurantzak Espainiako Gobernuaren eskumena denez, praktikan ez da ordaintzen eta arazo larriak datoz hortik. Ezkonduetako bikoteen kasuan, bizitza osorako da alarguntasun pentsioa, baldin eta berriro ezkontzen ez bazara, behintzat. Hala ere, gai hau etorkizunean zuzentzeko asmoa dago.

Eta herentzia kontuetan zer gertatzen da?

Herentziaren ere nahasteak izaten dira askotan; ezkonduetako bikoteetan, adibidez, bikotekideak herentziaren heren baten usufektu eskubidea dauka testamentua egiterakoan. Izatezko bikoteetan, aldiz, ez da horrela

korik gertatzen eta gomendatzen zaie izatezko bikoteei erregistratu orduko testamentua egitea.

Emakumea eta abokatuaren zaren aldetik, lege aldetik zein hutsune ikusten dituzu gaur egun?

Genero indarkeriaren kontuan urrats positiboak eman diren neurrian, beste gai batzuetan aurrera egitea beharrezkoa ikusten dut. Amatasun baxa lau hilabetekoa izatea eskas ikusten dut eta ematen dituzten laguntzak ez dira nahikoak gaur egun. Politika soziala indartsuagoa izatea beharko genuke eta lan aldetik ere babesa handiagoa izatea.

Bestalde, zelako kontsultak jasotzen dituzue eguazteneko doako zerbitzuan?

Denetik dago, baina kontsulta askok ikastaroan lantzen ari garen gaiekin dute zerikusia. Hala ere, kontsulta gehienak banaketa eta dibortzioen ingurukoak izaten dira. Hori ikusten da jasotako datuetan.



zabalik

Jon Altuna

Norberak berea

Kanpotik idazten dugunok eskertzen ditugu herriko berriak. Hedabide eta teknologia berriek hurbildu egiten gaituzte, distantziak asko laburtu dira, auzoa handitu, mugak urrutiratu, lekualdaketak ugari, mundu osoan. Ni sagardoaren lurraldera joan eta etorkina naiz han, urrun baina gertu, bertan baina era berean urruti.

Xabi Paia bertsolaria, Bizkaiko txapeliduna, Bergaran izan dela badakit. Ezaguna da bere amaxu keridari, euskara eta gaztelea uzartuz, egin zion eskaintza. "...Tu no nos diste el euskera, pero nos diste la vida; nos llevaste a la ikastola, aprendimos enseñada, (...) esta txapela es tuya, ai nire amaxu querida!". Andoni Egañarekin batera izan da oraindik zabalik dagoen Arranon. Duela lau urte *Egunkaria* itxi zuen

Audientzia Nazionalak berak harrapatuta dauka eta itxi ez dezaten Bergara osoak adierazi behar die epailei elkarre bat besterik ez dela.

Etorkinei, aldiz, atek zabaldu behar dizkiegu, dudarik gabe, nora datozen erakutsi: dakartena galdutako, eurak eta ondorengoak, bertakora ohitu daitezten. Gure kasuan, jakinarazi behar diegu Euskal Herrira datozela, bere bizimodu, hizkuntza, ohiturak... dituen herrialdera.

Neska bere-berea ezagutu dut aurreko asteburuan. Txilabaz jantzi ginen: gu mozarrotuta, bera ez. Duela gutxi etorri da gure artea. Etxean egiten dute bere-berea. Horri esker iraun du. Hizkuntza ofiziala marokoa (arabiarra) da. Lehen, kolonia garaian, frantsesa edo gaztelera.

Globalizazioa zapaltzailea bada herri txikien desagertzea ekarriko du. Handiek txikiak jango dituzte. Ez nuke aurreko mendeetan egin den sarraskirik, ez jokabide suntsizailerik nahi. Ia txikiok nork bere bidea egiteko aukera dugun bizimodu eta ondare ezberdinek irauteko, munduko aberastasun horri eusteko.

"Etorkinei atek zabaldu behar dizkiegu, dudarik gabe, nora datozen erakutsi"

"Ez nuke aurreko mendeetako jokabide suntsizailerik nahi"

HAURTZAINDEGIAN UMEAK ONARTZEKO ERABILTZEN DIREN IRIZPIDEAK

Arrasatear batek honako galdera egin du asteon: Bedoñabe haurtzaindegian haurrak onartzeko orduan familia unitatearen arabera puntuazio jakin bat ematen da. Hala, jakin nahi dugu familia unitatea definitzeko erabiltzen metodoa zein den.

Galderari erantzuna emateko, Bedoñabe haurreskolara jo dugu. Hala, Bedoñabe haurtzaindegiko arduradunek azaldukoaren arabera, familiaren egoera eta behararen arabera puntuazio ezberdina ematen dute.

Honakoak dira puntuazioa emateko erabiltzen dituzten irizpideak: aitaren edo amaren elbarritasunaren kasuan, puntu bat; famili abegian dauden haurren kasuan, puntu bat; familia ugarietako haurren kasuan, 0,5 puntu 1. mailako familia ugarietan eta puntu bat 2. mailako eta oheretako familia ugarietan; eskuhartze soziala behar duten haurren kasuan, puntu bi; haurreskolan anai-arrebak dituzten haurren kasuan, 0,5 puntu hau-

herritarrak galdezka

rreskolan anaia edo arreba bat dutenen kasuan eta puntu bat gehiago dituztenen kasuan.

EZKONTZAK ETA URTEMUGAK GOIENKARIA-N ZORIONTZEKO Askotan jasotzen dugun galdera da. Zer eta nola egin behar da ezkontze dagoen bikote bat edo zilarrezko/urrezko ezteiak ospatuko duena GOIENKARIA-N zoriontzeko?

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

GOIENKARIAk Bergaran, Arrasaten eta Aretxabaletan dituen bulegoetara jo daiteke horretarako edo honako helbidera idatzi: iagirreazaldegi@goiena.com.

Helarazi behar den informazioa da: bikotearen izen-abizenak; nongoak diren; ezkontzeko diren edo zilarrezko/urrezko ezteiak noiz ospatuko dituzten, alegia, data. Ospakizuna non eta noiz egingo duten -eta nahi izanez gero norekin ospatuko duten-; eta bidaiarik egingo balute, noiz eta nora.

Esandako datuok batera, argazkia helaraztea ere komeni da.

ERRAMU-ZAPATU EGUNA BERGARAN

Irakurle batek Bergaran Erramuzapatu eguneko feria noiz ospatuko duten jakin nahi du.

Martxoaren 31n, zapatua, ospatuko dute bergararrek Erramuzapatu eguneko feria.

Ohi bezala, ganadu feria izango da goiz horretan. Horrekin batera, jaki azoka ere egingo dute bergararrek.

marraskiz

Alex Ugalde

Aldi Baterako Laneko Enpresa batek kontratatu ninduen, Udalarentzat lantxo bat egiteko:kakaz beteriko poltsak banatu behar nituen.



- Agortu zirenean, jendeak gehiago eskatzen zuen.



Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Sailletako arduradunak Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Erredakzioa Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi Oinarritzko diseinua Goio Arana Maketazioa Alex Azkarate, Kepa Martelo Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziorza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

BERGARAN 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.155 ale • Difusioa: 18.629 ale.

Goiena

OID erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jaurlaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Zure ordez

Angel Lertxundi

www.berria.info/blogak/lertxundi

Ezin baitugu zure ordez gidatu, tentuz ibili", dio, gutxi gorabehera, Espainiako Trafiko zuzendaritzaren iragarki batek. Aholku gisa mozarrotutako agindua entzuten dudun aldiko, petraleria bera ateratzen zait niri: "Ezin duzu gure ordez gidatu, ezta beharrik ere!".

Baina ondo pentsatzen jarrita, eskerrak eman beharrean nago iragarkia asmatu duenari, inoiz ikusi dudun

argien erakusten baitu Estatu babeslearen, Estatu kontrolatzailearen, Estatu gidariaren benetako bokazioa. Ai, gure esku balego hire autoa (eta bertan, hi!) gidatzea...

Estatua balitz gure autoen gidari, ez litzateke istripurik gertatuko, dena egongo litzateke legeak agintzen duen esanera. Estatua balitz gure autoen gidari, berak nahi duen moduan eta berak gura duen bideetatik eramango litzuzke gure autoak, eramango gintuzke gu.

Estatuaren bokazioaz metafora ederragorik, nekez!

Clairvaux-ko presondegian

EnekoBidegain

www.goiena.net/blogak/barraraino

Joan den astean libre atera zen Filipe Bidart, Clairvaux-ko presondegitik. Niharek zenbait aldiz egin izan diot bisita hango kartzelara. Azkena, askatu baino aste bat lehenago izan zen. Berezia izan zen. Banekien ez nintzela berriz hara itzuliko Filipe bisitatzerara. Eta haren ahaideek senti zezaketena ezin banuen imajinatu ere,

plazara

Ezker Abertzaleak (EAb) proposatutako marko demokratikorako proposamenaz mintzo da Aitor Arantzabal. Haren esanetan, Eus-

kal Herriak herri gisa bizi irauteko ezinbestekoa du indarrean dauden esparru ez demokratikoak gainditzea. Marko demokratiko

hori osatzeko proposamenaren oinarriak dira, autodeterminazio eskubidea aitortzea, lurraldetasuna eta zatiketa gainditzea.

Aitor Arantzabal *

Marko demokratikorako proposamena

Aukera historiko baten aurrean gaude. Unearen transzendentzia izugarria da, herri honetan zabalik dagoen prozesu demokratikoa bururaino eramateko aukera dugulako.

Ezker Abertzaleak (EAb) Uztaritzen eta Negoziazio Taldeak aurrerago, Euskal Herriako Marko Demokratikorako proposamena jarri du tablero politikoan.

MARKO DEMOKRATIKORA BIDEA

Euskal Herriak herri gisa bizirauteko ezinbestekoa du indarrean dauden esparru ez demokratikoak gainditzea. Zatiketa, inposaketa eta ukazioan oinarritutako egoera ez demokratiko batetik egoera demokratiko batetara bidea egin behar dugu.

Hortik dator gatazkaren konponbide demokratikoa eta horri erantzuten dio EAb-k egin duen proposamenak.

Zeintzuk dira marko demokratiko hau osatzeko proposamenaren oinarriak? Autodeterminazio eskubidearen aitortza; lurraldetasuna eta zatiketa gainditzea: mapa osatzea.

Hego Euskal Herriari dagokionez, 4 herrialdeek bat egitea ahalbideratuko luke marko demokratikorako proposamenak, beti ere EAE eta Nafarroako esparruetako herritarren gehiengoaren atxikimenduarekin.

Ipar Euskal Herriko errealtateari eta beharrei erantzuten dien proposamena ere (Ustaritz) kaleratu dugu.

Marko demokratiko honen bitartez, proiektu guztiak baldintza berdinetan jarriko litzuzkeen eremua osatuko litzateke, hots, edozein helburu estrategiko, inde-



MIKEL ARROIABE

pendentzia eta sozialismoa barne, egingarri bilakatu.

Hona, EAb-k gatazkaren konponbide demokratikorako jartzen duen marra gorria, demokraziaren marra gorria baino ez dena, eskubideen eremuan eta herritarren atxikimendu librean oinarrituta baitago egiten duen eskaintza.

EGUNGO EGOERATIK ABIATUTA

EAb-ren proposamena egungo egoera ez demokratikotik abiatzen da, egoera demokratiko batera trantsizioa osatzeko asmoz.

Hau honela izanik, autonomia politikoaren izaera hartzen du, bai Ipar bai Hego Euskal Herrian, beti ere erabakitze ahalmenean eta lurralde zatiketa gain-

"Une historiko baten aurrean gaude, zabalik dagoen prozesu demokratikoa bururaino erroteko aukera dugulako"

"Ez dago soilik EAb-ren esku prozesua aurrera ateratzea. Ardura partekatua izan behar du"

dituko lukeen egituratzean oinarrituz.

EAb-k herri honetan aldaketa politikorako aukera erreala izan den garai ezberdinetan defendatu izan du Autonomiaren planteamendua: KAS Alternatibarekin; Aljerreko negoziaketan hariara, Autonomia Estatutu Nazionalaren bitartez... Beraz, gure historia politikoan barnertutako eskema da honakoa.

Konponbiderako aukera zabal-zabalik dagoenean, saiakera berri bat mahai gaineratu dugu, egungo egoeratik abiatuta, baina berau gainditu eta proiektu politiko guztiei ateak zabalduko dizkien eszenatokia marraztuz.

PROPOSAMENAK BAKEA DAKAR

EAb-k proposamen zehatza luza du. Euskal Herriari hitza eta erabakia itzuliko dion marko demokratikoa osatzea. Hau da, hain zuzen, herri honen gehiengoaren aldarrikapena.

Prozesuaren blokeoa gainditu eta konponbide demokratikoa ekarriko lukeen akordio politikoa lortzeko kaleratu da proposamena.

ARDURAZ JOKATZEKO DEIA

EAb-ri prozesuan eragitea eta berau oinarri sendoen gainean eraikitzea dagokio. Horretarako ezinbestekoa da iniziatibaz eta ausardiarekin jokatzeko.

Baina ez dago soilik EAb-ren esku prozesua aurrera ateratzea. Ardura konpartitua izan behar du, prozesua posible izateko eta bere emaitza guztion irabazia izateko.

*Aitor Arantzabal, Batasuneko Mahai-kidea da

zer deritzozu?

www.goiena.net

Nahiko zenuke erosketaren zentro handia?

BAI	%66,6
EZ	%33,3

> NAHIKO NUKE

Gasteizera joaten naiz askotan. Halako guneak asko gustatzen zaizkit denetarik aurki daitekeelako. gainera, afaldu eta gero zinemara ere joan daiteke. Zapatu arratsaldea pasatzeko modua da.

Ainara

> KALEAK BIZIRIK

Zertarako? Dendek bizitasun handia ematen diote herriari eta herrian bizi behar dugu guk, baina herri bizi baten. Herriko denda txikiak ixten badituzte herriak hil egingo diren iragarkia askotan botatzen dute telebistan. Eta hortik kanpo, denda handiak zabaltzeko baimenak ematen ditu gure gobernu honek?

Miren

> HERRI BARRUAN

Ez zaizkit gustatzen, baina Arrasateko jende gehiena Gasteizera doa hango merkataritzagunera. Beraz, Arrasaten egin beharko lukete, baina herri barruan Aitor

DATORREN ASTEKOA: Saiatzen gara etorkinak ondo hartzen gurean?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

- top

zerbait zen jakitea bidai hura bera ez nuela berriz eginen : gaueko 11etan trena hartu Parisera joateko, goizeko 7etan Parisera heldu, beste geltoki batera joan, Gare de l'Est geltokian trena hartu, Chaumont-en gelditu, handik autobusa hartu eta kilometroño bat oinez, kartzelaraino (bisita bururatzeko denerako, gibelerateko autobusa jadanik pasatua izaten da, beraz norbait aurkitu behar autoz ondoko hiriko geltokira eramanen zaituena...).

Oihan handien erdian dagoen leku ezinago galdu eta

hotz hartara ez nintzen berriz itzuliko. Kartzelako atea ireki eta kontrolak ez gehiago jasan behar. Eta bisitako gunean, laguna kaiolen artetik etortzen, bisita bururatu ondoan, agurtzeko modua ere arras desberdina zen.

Bestaldietan, "ea noiz aurkitzen dudan memento bat bisitatzera etortzeko, eta bitartean egon pixkor!" erran behar, ziegara itzultzen dela ikusiz etxerateko bidea berriz egin behar...

Bisita egiteak eragin poza eta laguna oraino ez dakit zenbat urtez kartzela zilo horretan usteltzen egonen

dela pentsatzeak eragiten duen pena nahasten dira etxerateko bidea hartzeko memento horretan.

Azken bisitan ez, preso agurtzeko unean, "heldu den aste arte!" eta irria ezpainetan, aste baten buruan aske ikusiko baikenuen.

Zorigaitzez, beste euskaldun batzuk gelditzen dira Clairvaux-n, Filiperi bisita egitean ikusi ditugunak. Beste ehunka preso ere bai... Baina hainbeste urtez preso eta eskuburdinekin loturik ikusi laguna aske ikustea zinez hunkigarria da.

koplak

Enaitz Alustiza

Kilometroak 07

Azken alditik hamasei urte Pasatu dira hegaran Aurten berritri ospatuko da "Kilometroak" Bergaran.

Logo modura aukeratuta Bonbilen filamentua Azaldu nahi da Bergarra dela Elhuyarren inbentua.

Ibilbidea diseinatzeko Hau bururatu zait neri Uberaraino heldu dadila Ta Angiozarren be(he)ra segi.

Ta arropetan jertse, galtzerdi, Kamiseta, poltsa, tanga... Bistakoa da zabaldu dela Eskaintza eta demanda.

Helburuetan pentsa behar da Beti parranda ezin da. Kilometroan juerga egin baina Zertarako den jakinda.

Antolakuntza etortzen bada Lagun eske, ate joka Animatu ta parte har zazu Denontzat lana dago-ta.

Agur aurtengo Aratusteei...

Maidar Osa

(Bergarako Udaleko Kultura Teknikaria, Kultura Zerbitzuaren izenean)
Bergara

Aratusteei agur esan beharrean gaude. Joan dira jada, herria egunotan kolorez jantzi duten jai alai hauek. Bergarako Udaleko Kultura Zerbitzua, antolatutako egitaraua herri-tar guztien gustukoa izan delakoan dago. Asmoa behintzat hori izan da. Hala ere, aurtun, Pirritx eta Porrotx pailazoan ikuskizunak sortutako iritzi eta kritika zurrumbiloen harira, gertakariak argitu gura ditugu.

Bergarako Udaleko Kultura Batzordeak Pirritx eta Porrotx pailazoan ikuskizun bakarra antolatzea erabaki zuen.

Batzorde hori herriko kultur elkarte eta talde politikoan ordezkariek osatzen dute.

Herritarrak, urtarrilaren 29an, Udalak publikidatean adierazi bezala, Kultur Etxera eta Elkar liburutandara hurbildu ziren, goizean goiz, sarreren salmenta iragarrita zegoen ordurako. Askok salmenta ordua baino 2 ordu lehenago joatea erabaki zuten, hori dela eta, izugarriko ilarak ere ikusi genituen.

11:00ak aldera sarrera guztiak agortuta zeuden. Sarrerak hain goiz agortzearen arrazoiak bat erreserben kontua izan zen, baina jakin badakigu, erreserbarik egin ezean, 11:00etan bukatu beharrean 12:30ean bukatuko zirela. Ziur.

Sarrerak Kultur Etxean eta Elkar liburutandean zeuden salgai. Bergarako Udaleko Kultura Zerbitzuak, Elkar dendako arduradunei ez zien esan erreserbarik ez egiteko; kultur ekitaldi guztietarako egiten dira erreserbak eta inoiz ez da arazorik egoten. Alderantziz, ekitaldiok duten arrakasta eskasa dela eta jendeari erraztasunak eman beharra ikusten da. Hau ez da Pirritx eta Porrotxen kasua, haurrak ezik; guraso, aitita eta amamak ere ikuskizunera joaten baitira.

Gutun honekin batera, Udalak Elkar dendak egiten duen lana eskertu nahi du. Inolako irabazirik gabe, Bergarako kultur ekitaldietarako sarrerak saltzeko prest egon dira beti eta lana ondo baino hobeto egiten dute.

Arazoa ez zen sarreren erreserbarena izan, saio bakarra antolatzearena baizik.

Gurasoak beraien seme alabentzako sarrera gabe gelditu zirenez haserre zeuden. Haserre ezin hobeto ulertzen

Lotsa sentitu genuen Aramaion

Joseba Jauregi Bengoa eta Judith Arriolabengoa Untzueta
(Aramaioko AHT Gelditu Elkarlanaren izenean) > Aramaio

Gorritzeraino sentitu genuen lotsa. 15 urte eman ditugu AHT dela eta informazioa eskatu eta gure iritzia entzunarazi nahian. Azkenean Arantza Tapia, Garraio eta Herri Lan sailburuordea, eta Mirari Arruabarrena, Garraio Azpiegituraren zuzendaria, agertu ziren gurean. Etorri bai baina ez zuten informazioa ez erantzunik ekarri. Ez omen dute Aramaio azken trazaduraren proiekturik, ez dakite nondik pasako den beraien Abiadura Handiko Trena, ez dute erantzunik. Ez dute lotsarik.

Galderak izan ziren nagusi, herritarren kezka bizia delako. Baina erantzun bakoitzaren aurrean ihes egiten saiatu ziren, beraien ardura onartu beharrean Madrilen hau eta Madrilen hori esaka ibili ziren. 15 urte beraien *Y Vasca* saltzen ibili ostean, orain ez dute esateko ezer. Hori bai, ikasgai batzuk atera genituen. Adibide argiena, Lakuako Gobernuaren demokrazia kontzeptua. Herri Galdeketa ezberdinen emaitzak errespetatuko ote dituzten galdetu eta hara non azaltzen diguten demokrazia zer den. Demokrazia konpetentzia kontu bat da. Konpetentzia beraien da eta beraien agintzen dute. Herriak erabaki? Ez, hori ez du beraien demokrazia kontzeptuarekin zerikusirik.

Eta barruan halako espektakulo penagarria jasan genuen bitartean kanpoan bestelakoa. Sarrera-irteeratan guardia zibilaren kontrolak, plazan paisanozko polizia pilo eta estrategikoki kokatuta, bada ezpada, beltzez jantzitako Ertzainen furgonetak. Zeren beldur dira? Erantzun nahi ez dituzten galderen beldur? Errespetatuko ez dituzten iritzien beldur? Demokraziaren beldur?

Aramaioko herriak AHTren gainean erabakiko du, horrela nahi dutelako herritarrak, hori delako, hemen eta edozein lekutan, demokraziaren oinarria. Herri Kontsulta egingo dugu eta Lakuako gobernuarena demokrazia balitz herriaren erabakia errespetatuko lukete.

dugu. Baina haserre adierazteko moduak eta moduak daude. Antolaketa lanetan ibili garenok irainak entzun behar izan ditugu sarrerarik ez izateagatik; bai Elkarreko langileak, bai Kultur Etxeko langileak erabat minduta sentitu gara eta onartezina iruditzen zaigu. Are gehiago, mehatxuak egin dituen gurasoren bat ere izan da. Ondo irakurri duzue, mehatxu fisikoak sarrerarik ez izateagatik.

Guk ikasi dugu. Bergarrek gertatutakoa ulertu eta barkatzea espero dugu. Datorren urtean pailazoak baldin badaude, gurasoak lasai egon daitezke, sarreren salmenta zorrotz gauzatuko baita. Baina gurasoak hausnarketa bat egitera gonbidatzen ditugu, gurasoak dira haurren hezitzaile, gurasoak transmititzen dituzte balio sozialak. Zer transmititzen ari gara? Ze balio? Haurrek ez al dute ezetza zer den jakin behar?

Bukatzeko, gizalege jokatzeko jakin duten gurasoei (asko eta asko, zorionez) eskerrak eman nahi dizkiegu; eskerrak asko gertatutakoa ulertu duzuen aita-ama, aitita-amamei; eskerrak asko Pirritx eta Porrotx eta beraien tekni-

kari; eskerrak asko inauteri jaiak gozatu dituzuen guztiei... Bihotzez, eskerrak asko! Esker mila, pila, pila, patata tortila!

Lezetxikitik Mondragon Corporationera so!

Balen Tramon
Gosalibar

Unibertsoko Zaindariaren arrastoan abiatutako enteogeen ikasbidaia horietako baten, bisitan etorritako Lezetxikitik *gure* arbaso batekin egin nuen tril eta han hasi ginen berbetan denbora ze azkar doan eta eguraldia azkenaldian zoratua dagoela. Elkar ulertzen genuen euskaraz poliki eginez gero. Berak ez zekien noizkoa zen bera gure historia eskalan (gure urte sistemaren erreferentziarik ez zuen), baina lepoan zeraman eskapulario punki handi baten *Jan Edan Eta Bietan J...* esaldia eta horren azpian *Quo Vadis Olentzero?* irakurri nion.

Morroskoa biatjatua zen, Veleiako tabernetaraino

behintzat ulertu nionez. Baita, *Kixmi Utikan!* eta *Zesar Juliano Augusto Julai!* deiadarrak zituen labanaz zizelaturik katxaban zehar. Baliteke IV. mende erdi ingurukoa edo izatea nire laguna... Begiak irtenda zegoen Arrasateko herrirantz so... Ze herensuge beldurgarri ote, han lehen ibaia ikusten zenaren ingurutik, halako zarata eta hainbeste ke ateratzen duena, AiThor ekaitzen jainko haserretua baino izugarriago? Ez dago ez arrainik, ez bestelako animaliarik errekan, arratoiak izan ezik. Eta pinu horiek guztiak? Erotu egin dira erromatar hauek ala? Harritu zen areago nire mobilaren zenbakia eman nahian hasi nintzen. Agurtu ginenean, artzain *zaharrari* bisita bueltatzeko hitza eman eta gero, Kobandiko Lamiez gogoratu nintzen. Jada ez dute Garagartzako gazte lerdetik sorginduko inoiz, harrobiko hautsaz beti ilea zikinik eta dinamita eztanda artean. Eta hori, udal-iturri kloratua, auto-aparkaleku (ezinduentzat ere lekutxoaz), kaleargi eta guzti jarri dutela Kobandiraino bertaraino! (AHT apur bat harantzago eramateko egin beharreko obra-antzerkiaren ondorioz izango da...). Kurioso da, milaka urteko aztarnagatik desbideratu egin dute trenbidea, ordea, nire auzoan gaur egun bizi garenok ez dugu hainbeste balio... gure auzotik pasako da AHT..., gehiengoak erabaki omen du, ez omen da proiektuaz hitz egiteko garaia... Zeinek galdetu digu ba guri ezer? Web orri batek? Arrasateko Udalak zer egiten du?: diruari Beti Bai (bost axola zaie koste ekologiko eta gure osasuna. Bost inporta, diru hori proiektu megalomanoetatik datorren, benetako garraio arazoa larriagotuz eta konponketa atzeratuz). Agenda 21erako teatro, argazki eta protokolo guztiak beteko dituzte zuri-zuri, baina CO2 eta bestelako gas igorpenengatik isunak ordaindu eta herri txiroetan kutsadura kuotak erosiko ditugu hementik gutxira, auto, kamioi eta kez inguraturik. Instituzioek herritarro natura zaintzeko gogaitu arte errepikatzen digute, beraien justu aurkakoa egin bitartean.

Lezetxikin aurkitutako hezurren jabe hartz, orein, pantera edo gizakien ehun milaka urteko garai ezberdinetan paisaia asko aldatuko zen Deba arroko (ala *h*-rekin?) zulo eta mendietan, ezin uka. Baina gaurko gure bailarako lur azalean zementua txapapotea itsasoan bezain azkar hedatzen ari da. Hor, Atilaren zaldiarekin letxe, ez da berriro belarrik haziko.

Izan gaitezen positibo hala ere: Super Mega Maxi Eroskin

laster autopista peajeak oparitutako dizkigun magrebiar eta turista nazio anitz andanaren kultura ezberdinak bertan ezagutuko ahal izango ditugu bidaiatu beharrik gabe eta aldi berean asteko erosketak egin. Eta arnasteko maskarilak modan jartzen direnean gure aurpegiak estaliz, agian musulman fundamentalista txerrenek gerturatze keinutzat hartuko dute Zapa(tero) jatorraren zibilizazioen besarkadaren mesederako.

Ez ahaztu dutxan ura aurrezteaz.

Eskerrik asko, zuen laguntzagatik

Esteban Lazkano

(Bergarako Etxerat-en izenean)
Bergara

Euskal presoen izenean Gabonetan egiten dugun laguntza kanpainan gurekin bat egin duzuen guztioi, eskerrak asko. Asko izan zarete, urtero bezala, zuen elkartasuna bideratu duzenok, dela ekitaldietan parte hartuz, dela ekarpen ekonomikoak eginez. Hortaz, Bergarako herritarrei, dendariei eta beste guztiei, gure eta haien partetik, eskerrak asko.

Berrikuntzez gainezka

Ainhoa Gallastegi

(Arrasateko ezker abertzalearen izenean)
Arrasate

Tik-tak... badator eguna! Udalean eta Foru Aldundian egon diren kortsarioen programari —negozioa, inposaketa eta txikizioaren politika oligarkari— buelta ematera gatz. Alternatiba garatzen ari gara, eta berrikuntzez, indarrez gainezka dugu herritarren iritzi eta ideiez betetzen joandako pertza. Martxoaren 1ean aurkeztuko ditugu, 19:00etatik 21:00etara Arrasateko Arrano elkartearen hurrengo lau urtetarako ildo nagusiak. Gonbitea luzaturik daukazu, bor-bor hastear dira aldaketa ekarriko duten osagaiak... parean ditugun erronkei aurre egiteko prest gaude eta horretara goaz!

Igorrek eta Unaik abesten duten lez, gora gu eta gutarrak; tontoak eta azkarrak, politikak eta zatarrak, gazteak eta zaharrak, abilak eta baldarrak... Txominen biboteak eta Fidelen bizarrak!

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

www.arizmendi.ikastola.net

familia bizi-bizia



“ jolasa, irakaslerik onena ”

MATRIKULA EPEA ZABALIK OTSAILAREN 26tik MARTXOAREN 9ra

902 11 20 25
informa zaitez

Zatoz ikastolara Come to the school *Vem à Escola* 欢迎光临学校 *Ven a la ikastola* تعال إلى المدرسة


Arizmendi
ikastola

kutxaNOMINAK

SMS bidezko Abisu zerbitzu berria

Nomina
sartu orduko
guk abisua
bidaliko.

Doako zerbitzua. Nomina **kutxan** helbideratua izateagatik, besterik gabe.

Sartu www.kutxa.net-en eta eman izena.

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35
Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
Santa Teresako eliza egokitzeko laguntza eskatu dute > 19



> **ARETXABALETA**
Hainbat herritarren babesa *Bai eskolak euskalduntzeari* > 32



> **ESKORIATZA**
Udalaren zeramika bilduma eta Zubiate labearen proiektua ikusgai > 34



> **ANTZUOLA**
Mairuaren alardea berbagai Eusko Ikaskuntzako Büllenekin > 36

ESKORIATZA > ALDIZKARIA SORTU DUTE IBARRAUNDI ARDATZ HARTUTA

Leintz ibarreko historia eta ondarea batuko dute aldizkari baten

Ibarraundin sortutako aldizkariak Leintz ibarreko kontuak jasoko ditu

Hiru herritako historia, ondare eta Ibarraundiko ekintzen gainean idatziko dute

IKER BARANDIARAN > **ESKORIATZA**
Ibarraundi ardatz hartuta, Udalak udalerriko ondarearen eta historiaren gaineko aldizkaria kaleratuko du. Oraindik ez dute aldizkariaren izena ezta aldizkari-kotasuna erabaki, baina asmoa da udaberrian kaleratzea.

Idea aspalditik datorrela azaldu zigun Juan Carlos Bengoa alkateak: "Dagoeneko museoak bide propioa hartu du: hainbat ekintza eta erakusketa egiten dituzte han. Horregatik, bada ordua bestelakoak egiteko".

IBARRAUNDIKO EKINTZAK

Hasiera baten asmoa zen Ibarraundi museoaren ekintzen gaineko buletina egitea; eta horrekin batera, udalerrian dagoen ondarearen berri ematea: "Gure ustez, Ibarraundiren erantzukizuna da halako gaien gaineko dibulgazioa egitea".

Ia oharkabean, udalerrian gaineko nahiko gai dituztela ohartu dira eta horiek guztiak aldizkarian jasotzeko modukoak direla, hain zuzen ere: "Aretxabaletako mutil batek Eskoriatzako kaparetasunaren gaineko lana egin zuen. Hori jasotzeko modukoa dela uste dugu".

ARANTZADIREN KOLABORAZIOA

Bestalde, Gabonen aurretik Arbiñoste inguruan aurkitutako kanpai moldeek eta labeek garrantzi handia dute; izan ere, Euskal Herrian oso gutxitan aurkitu dituzte halako moldeak eta labeak egoera onean. Egun batzuetan jendaurrean izan zituzten moldeak, baina Arantzadiok gurago izan zuten moldeak estali, hobe-



AURKIKUNTZAK Herrian egindako aurkikuntza garrantzitsuen gaineko informazioa batuko dute aldizkarian. Argazkian, kanpai-moldeak aurkitu zituzteneko zulaketak. i.a.

to babesteko. Udalaren ustez, merezi du aurkikuntza horren berri herritarrei ematea. Eta, horregatik, Arantzadiri eskatu diote horren gaineko artikulua zabala egiteko.

LEINTZ IBARRERA ZABALDU

Horrez gainera, Aitzorrotz, haren inguruak, elizateak eta udalerrian dauden tumuluak eta bestelako aztarna arkeologikoak ere aldizkarian jasotzeko

modukoak direla oso argi dute ekimenaren bultzatzaileek.

Hain justu, ekimenaren bultzatzaileak Eskoriatzako Udala eta Ibarraundi museoa diren arren, haien asmoa da ekimena eta aldizkaria bera Leintz ibarrera zabaltzea. Hala, Arrasate oraingoz kanpo uzten dute, baina Eskoriatzaz gainera, aldizkaria eta haren edukiak Aretxabaleta eta Leintz Gatzagara zabalduko dituzte lehenengo zenbakian.

Horretarako, Aretxabaletako eta Leintz Gatzagako udalekin harremanetan dabilta aspalditik, eta bi udalotako ordezkariak laguntza eskaini dute.

SALGAI JARRIKO DUTE

Aspalditik dabil lantalde bat aldizkariaren ezaugarriak, edukiak eta beste erabakitzen. Talde hori Eskoriatzako Udaleko ordezkariak, ibarreko historialariek eta Aretxabaletako eta Esko-

riatzako herritar batzuek osatzen dute. Une honetan, artikulua batzen dabilta, eta kolaborazioak bidaltzeko aukera ere badago.

KALITATEZKO ALDIZKARIA

Udaleko ordezkariaren esanetan, asko zainduko dute aldizkariaren formatua eta itxura: "Guretzat kalitatezko produktua izatea oso garrantzitsua da, horretarako irudia asko zainduko dugu argazki handi eta dotoreekin. Bestalde Leintz bailararen gaineko informazio asko ekarriko du, eta itxura zaindua izango du".

PRODUKTU ELEBIDUNA

Aldizkari berri horren hizkuntzari dagokionez, lantaldeak erabaki du hura elebiduna izatea: "Han batutako idatzi gehienak euskaraz argitaratuko dituzte, baina alban gaztelaniatzako laburpen txoak ere sartuko ditugu". Bestalde, gaztelaniatzako hainbat idatzi ere batuko dituzte.

HIRU HERRITAKO ONDAREA AZTERGAI

Leintz ibarreko ondarea herritarrei gerturatzeko ahalegina

Eskoriatzako Udaleko eta Ibarraundi museoaren ordezkariak gain, Eskoriatzako eta Aretxabaletako historialariek osatutako lantaldea dabil guztia prestatzen.

Udaberrian kaleratuko duten lehenengo zenbakian, Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Leintz Gatzagako informazioa emango dute. Horretarako, hiru udalek proiektuan inplikatzeko erabaki dute. Leintz ibarreko izaera izango du aldizkariak.

Edukien artean, garrantzi nabarmena izango dute museoaren jarduerak eta baita Ibarraundiko ondarearen ezagutzak ere. Horrekin batera, udalerriko ondarea aztertzen lan egin duten edo lanean dabilzan ibarreko lagunei elkarrizketak egingo dizkiete. Bestalde, hiru herrietan izango dituzte eurei dagozkien artikulua, eta herri horietan argitaratutako dibulgaziozko lanen berri zabala ere emango dute aldizkari berrian.

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 24	Etxeberria	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Domeka, 25	Azkoaga	Ferreries 1	943 79 15 15
Astelehena, 26	Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99
Martitzena, 27	Corcuera	Maisu Aranbarri 1	943 79 22 26
Eguaztena, 28	Irizar	Erguin 15	943 79 12 39
Eguena, 1	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Egubakoitza, 2	Español	Araba etorbidea 14	943 79 18 65

BERGARA

Zapatua, 24	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Domeka, 25	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Astelehena, 26	Urrutikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Martitzena, 27	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Eguaztena, 28	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Eguena, 1	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Egubakoitza, 2	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15

OÑATI

Zapatua, 24	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Domeka, 25	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Astelehena, 26	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Astelehena, 27	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguaztena, 28	Anduaga	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Eguena, 1	Anduaga	San Lorenzo 3	943 78 21 16
Egubakoitza, 2	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

ARETXABAETA

Zapatua, 24	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 25	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 26	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Martitzena, 27	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Eguaztena, 28	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Eguena, 1	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Egubakoitza, 2	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udaltzaingoaik	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 53 33
Aretxabaleta.....	943 71 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltzgia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67
Kiroldegiaik	
Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obreiro, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorenzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorenzo (Sorluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarretik irteerak
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolioa (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaio	Arrasate
08:30	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoeta-koendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 24

Egubakoitz gaueko euri boladek zapatu goiza harrapatuko dute. Baina hobekuntza izango dugu eta eguerdi alderako dezente txukunduko da.



Domeka, 25

Okertzera joko du eguraldiak, nabarmen samar, gainera. Goizean euri dezente botako du eta arratsaldean lardaske-ria izango da.

EUSKAL HERRIAN

Beste behin, asteburuan okerrera egingo du eguraldiak. Zapatuan atsedenditxoa izango dugu, arratsalde partean hobetu egingo du-eta. Baina domekan, atzera ere okerrera joko du eta euria izango dugu, goizean goize-rik hasi eta iluntzera arte. Goibel eta fresko.



oharrak eta deialdiak

BERGARA

> EHNA tramitatzeko aukera bihar, zapatua, kultura etxean

Bihar, zapatua, hileko azkeneko zapatuetan egin izan ohi duten moduan, EHNA tramitatzeko aukera egongo da kultura etxean. 11:30etik 13:30era egingo dituzte tramitazioak. Eraman behar dira: hiru argazki, errolda agiria eta 15 euro.

BERGARA

> Ate irekiak San Martin Agirre eskolan

Bihar, zapatua, egingo dute ate irekien jardunaldia, 16:30ean hasi eta 19:30ak arte. Auzoetako -Osintxu, Zabalotegi eta Martoko- eskolak ezagutzeko deitu 943 76 21 47 telefonora. Horrekin batera, San Martin Agirre eskolatik gogora ekarri dute astelehenean, hilak 26, ekingo diote-la matrikulazio kanpainari. Epea martxoaren 9ra arte izango da.

ARAMAIO

> Dirulaguntzak eskuratzeko deia

Udaleko Kultura eta Euskara sailek urteko dirulaguntzak banatuko dizkiete herriko taldeei kirol, jai, kultura... eta bestelakoak antolatze-ko. Martxoaren 20a da mugaeguna.

ARRASATE

> Taila ikastaroa Tailaginen elkartearekin

Hasierako maila emango dute. Eskolak elkartearen egoitzan

BERGARA

izango dira (Erguin kalea 19, behe). Izena emateko eta informazio gehiagorako deitu: 645 7059 13/943 79 40 79 (Felix) edo 943 79 77 57 (Jose Mari).

DEBAGOIENA

> Baserri ingurunean sortutako plastikoa batuko dute martitzenean

Ohiko lekuetan laga behar da plastikoa, arratsalde. Lekuren bat aldatu nahi izanez gero, deitu: 943 76 25 47 zenbakira.

ELGETA

> Ikastaro gehiago KZgunean

Zure kanala sintonizatu delako ikastaroa egingo dute hilaren 28an. 17:00etatik 18:00etara izango da, euskaraz. Informazio gehiago: 943 79 94 44.

ARRASATE

> 1930ean jaiotakoek bazkaria egingo dute

Martxoaren 3an egingo dute bazkaria ur-

te hartan jaiotakoek.

12:15ean meza izango dute San Juan Bataiatzailearen parrokian eta 14:30ean bazkaria, Bittori erretegia. Izena emateko, deitu 943 79 80 08 telefono zenbakira.

ESKORIATZA

> Sinadura elektronikoren gaineko ikastaroa KZgunean

Gaur, hilak 23, sinadura elektronikorearen gaineko ikastaroa egingo dute. 18:00etatik 19:00etara izango da, euskaraz. 19:00etatik 20:00etara, berriz, Internet bidez egunkaria nola irakurri erakutsiko dute. Informazio gehiagorako deitu 943 79 94 44 telefono zenbakira.

ARRASATE

> Hastapen eta sakontze perkusio ikastaroa

Otsailaren 26an hasi eta apirilaren 2ra arte izango dira eskolak, astelehenean: hastapen maila 18:00-19:30 izango da eta sakontze

maila, 19:30-21:00. Iñaki Bruñak emango ditu eskolak. Prezioa 20 euro da; 12 euro ikasle eta langabeentzat. Izena emateko jo Gazte Bulegora, www.gazte-bulegora.com helbidera idatzi edo deitu 943 77 00 65 zenbakira.

DEBAGOIENA

> Kilometroen aldeko otarrean atera dituzte

Kilometroak 07k porra antolatu du produktuez beteriko otarrean zozketatzeko. Debagoieneko taberna, denda eta bestelako komertzioetan jarri dute porra hori bi euroren truke.

ARRASATE

> Urpekaritza ikastaroa egingo du K-Sub zentroak Musakolan

Urpekaritza ikastaroa apirilaren izango da. Ikastaroaren aurretik, baina, hasierako probaldia egingo dute. Martxoaren 10ean izango da, 17:00etan. Izena emateko jo Musakola kiroldegiko harrerara martxoaren 7a baino lehen. Izena ematen duten lehenengo 16 lagunekin itxiko dute izenematea.

ELGETA

> Gaztekoendako mendi irteera antolatu dute

Egoki taldeak 8 eta 12 urte artekoendako mendi irteera antolatu du. Bihar, zapatua, egingo dute irteera hori, Intxortara. Gaez egingo dute ibilaldia.

TEMPERATURAK

MINIMOA
Eguena, 15 **2 °C**

MAXIMOA
Eguena, 15 **21 °C**

ASTEKO
EURIA (l/m²) **95,5 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 14	18 °C	13 °C	6,7 l/m ²
Eguena, 15	21 °C	2 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 16	20 °C	8 °C	1,2 l/m ²
Zapatua, 17	14 °C	10 °C	45,3 l/m ²
Domeka, 18	11 °C	9 °C	30,7 l/m ²
Astelehena, 19	16 °C	6 °C	1,3 l/m ²
Martitzena, 20	15 °C	10 °C	10,3 l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA MARTXOAN

Ilbehera 12	Ilberri 19	Ilgora 25	Ilbete 3

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

Garizuma egiteko ohitura duzu Aste Santua iritsi bitartean?



Maria Luisa Inza
Erretiratua
Arrasate



Miren Morales
Ikaslea
Arrasate



Karmelo Sagasta
Langilea
Arrasate



Jose Antonio Nafarrate
Langilea
Arrasate



Maria Luisa Cabeza
Langilea
Arrasate


Bai, baina egubakoitze-tan baino ez dut egiten. Jaio nintzenetik hori erakutsi didate etxean eta niretako ohitura da garizuma egitea. Baina horixe egiten dut; bestela, ez dut gauza handirik egiten.

Ez, inoiz ez. Aitaitak eta amamak garizuma egiten zuten eta amak ohitura horri eusten dio, sinisten duelako. Ezin bada jan, ez du jaten. Nik ez dut sekula egiten, ez dudalako sinisten.

Bai. Gurasoen etxean bazkaltzen dut eta Hausterre egunean eta egubakoitze-tan egiten dugu. Normalean, arraina jaten dugu. Etxean egongo banintz, edozer jango nukeela iruditzen zait.

Ez. Ez dut gauza horietan sinisten. Etxean egiteko ohitura izan zuten aitaitak eta amamak. Baina ez diogu eutsi ohiturari. Mezara askotan joana naiz, eta kontu horietaz aspertu egin nintzen.

Ez. Ez dut sinisten, eta, beraz, ez ditut horrelako kontuak jarraitzen. Etxean, hala ere, oso bestelakoak izan dira. Garizuma egiteko ohitura egon da, bereziki amak. Nik ez diot ohiturari eutsi.



M.B.

Higiene kontuak, hobe etxean



Arrasateko kiroldegiko saunan azkazalak topatu dituela eta kexu da irakurle bat. Behin hamaikan jartzera zihoala aurkitu zituela salatzen du. Gauza horiek etxerako utzi behar dira. Egoera hori dela eta, eremuaren atarian arautegiak jarri behar izan dituzte arduradunek.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

asteko datua

2.688

Bergarako Agorrosin ekin-tzaguneak aste honetan jakinarazi duenez, 2.688 bazkide lortu ditu dagoeneko. Pozik daude arduradunak, hasierako helburura -3.000 bazkidera iristea- hurreratzen ari direlako.

ustek uste

Iker Barandiaran

Herritarren eskubideak auzian

Astean Arrasaten berba gehien eman duen gaia da joan den egubakoitzean Garibain gertatutakoa.

Ados nago autoek hirietan, herrietan eta gure bizitzatan espazio larregi hartu dutela. Hortaz, zentzuzkoa dirudi oinezkoen aldeko ekimenak bultzatzea. Testuinguru horretan uler dezakegu Arrasateko erdiguneak jasan dituen aldaketak. Hala ere, aldaketa horiek ez didate neuri zuzenean eragin; ez naiz ingurune horretan bizi eta ezin dut zehatz neurtu Garibaiko auzotarrei zer ekarri dizkien.

Udalak eta proiektua idatzi duen Intra enpresak datozen egunetan egingo duten prentsaurrekoak, eta jaso beharko lirakeen auzotarren eta beste herritarren iritziek gaia bere osotasunean ikusten lagunduko lukete.

Bestalde, oso argi daukat herritarrek protesta-ekintzak antolatzeo eskubide osoa dutela, are gehiago baketsuak badira. Baina zoritxarrez ez zen ondo bukatu. Autobus bat pasa ezinik zegoela eta, Ertzaintzak esku hartu zuen eta 59 urteko emakumezko bat atxilotu zuten, bere kontrako karguak aurkeztu zituzte, eta hainbatek kolpeak jasan zituzten.

5 galdera...

Nerea Lazpiur

Teknikaria
Arrasate

1. Etxe hutsei kanona ezartzea aztertzen ari da Eusko Jaurlaritza. Zergatik?

Etxebizitzaren gainean sekulako arazo larria dagoelako. Daude oso garestiak dira, eta, babes ofizialekoak poliki irteten badira ere, ez dute irtenbiderik ematen. Hori beste bide bat izango litzateke. Herri guztietan horrenbeste etxe huts daudela eta, horri irtenbidea emateko sortzen da. Jendea doan ez bazaio irteten etxe bat hutsik edukitzea, agian merkatu-ratzera animatzen da.

2. Horiek kontrolatzea, ordea, ez da oso erraza izango...

Oso nekeza da identifikatzea. Batetik, erroldak ez duelako ematen etxe baten errealitatea. Etxe baten erroldatuta egon zaitezke eta han ez bizi izatea. Bestetik, uraren datuak ere ez dira zehatzak.

3. Zenbat etxe huts egon daitezke momentu honetan Arrasaten?

Oso gaitza da. Orain dela urte batzuk, etxebizitzaren inguruko azterketa egitea eskatu genuen, baina ez zen lortu, oso nekeza delako. 2004an egindako txosten baten arabera, 393 zeuden. Baina kopuru hori ez da oso fidagarria.

4. Bizigune zerbitzuari onura egingo lioke neurriak?

Bizigune sustatzea edo, behintzat, jendea informazio eske etortzea ahalbideratuko luke. Arrasaten, urtero, 15 bat etxebizitza sartzen dira Bizigunen. Beste herri batzuekin alderatuta asko da, baina etxebizitza hutsen kopurua jakinda, gutxi. Gaur egun ordaintzen dituzten zergez gain bestelako bat ezartzen bada, ziurrenik jendea hasiko da pentsatzen etxe huts horri irtenbidea ematea.

5. Euskal Herrian eta, zehazki, Arrasaten ez gaude ohituta alokairuan bizi izatera...

Egia da. Frantzia, adibidez, portzentaje handia bizi da alokairuan. Baina ez dira hemengoak bezalakoak, askoz sozialagoak dira. Beste mentalitate bat dago han, eta, hemen apurka bagoaz ere, oraindik lan handia dugu.



Etorkinek dituzten eskubideak batu eta azaldu dituzte gidan

Zerbitzuen berri ere ematen dute: osasuna, hezkuntza, lana...

200 ale argitaratu dituzte; Ekin-en eskura daitezke, besteak beste

UBANE MADERA > ARRASATE

Etorkinendako gida bat kalera-
tu du Ekin Emakumeak elkarteak. Etorkinek dituzten eskubideak zeintzuk diren eta Arrasaten eta inguruan eskura ditzaketen zerbitzuak zeintzuk diren azaldu dute gida horretan. Esaterako, esplikatzen dute nora jo behar duen lan bila dabilen etorkinak; non eskura ditzakeen osasun zerbitzuak; Udalaren gizarte zerbitzuen informazioa ematen du; ikastetxeen gida ere badakar, aisialdi zerbitzuak eta beste.

Halako 200 argitaratu dituzte. Eskura daitezke Ekin Emakumeak elkartearen bertan, Pablo Uranga kalean.

ETORKINENDAKO GARRANTZITSUA

Halako ekimenak etorkinendako oso lagungarri dira. Hala dio Medellindik (Kolonbia) etorritako Doris Estela Ramirezek: "Gureta hau izugarria da. Hona iristen zarenean badirudi bakar-bakarrak zaudela eta zeharo galduta sentitzen zara. Baina jakitea nora jo dezakegun lan bila edo ikastera, edo jakitea etorkinak izan arren ere baditugula esku-

EKIN EMAKUMEAK > ETORKINEI LAGUNTZEKO PROGRAMA

Etorkinendako zerbitzu gida argitaratu du Ekin elkarteak



GIDAREKIN Doris Estela Ramirezek adi entzun zituen Gloria Gonzalezek gidaren gainean eman zizkion azalpenak.

U.M.

bideak, asko da. Bereziki jakitea baditugula aukerak eta ez gaudela bakarrik da izugarria".

Doris Ramirez joan den martxoan iritsi zen Aretxabaletara eta handik Arrasatera etorri da, azaroan; Ekin-ek ematen dituen

zerbitzuen berri izan zuenetik hemen pozik bizi dela dio: "Arrasaterekin maitemintzen nabil, erakutsi digutelako gureta ere badirela ateak zabalik. Orain arte garbiketa kontuetan lanean niharduen, baina nik ume txikiak

zaintzeko ikasketak ditut. Ekin-ek ematen digun besteko laguntzei esker, esperantza berreskuratu dut nire lanean jardun ahal izango dudala hemen. Ez dut Arrasatetik joan gura". Are gehiago, Ramirezek kontatu du euska-

ra ikasten hasiko dela eta Kolonbian utzi duen 12 urteko alaba ekarri behar duela orain.

UZTAILETIK APIRILERA

Etorkinendako gida hori argitaratu dute etorkinei laguntzeko Ekin elkarteak lantzen dabilen programa baten barruan.

Bigarren urtea da programa edo informazio zerbitzu hori antolatzen dutena: "Iaz Caritas-en bitartez egin genuen, programa aitzindaria izan zen; aurten, berriz, ahoz aho jakin dute etorkinek gure berri eta 35 bat lagunekin gaude harremanetan", azaldu du Ekin-eko Gloria Gonzalezek. Egiten dutena da Arrasaten eta inguruan dauden zerbitzu eta erakundeetara joan etorkinekin. Bisitatu dituzte, esaterako, Langai, EPA, AEK, Kutxa Zeharo, Asfamogi (gurasobakarren elkarte), MCC, Mankomunitatea... Horrez gainera, euskara eta euskal kultura lantzeko bidea ere eraikusten diete. Izan ere, uztailea ezker dabilta programa lantzen. Apirilean bukatuko dute. Kolonbia, Ekuador, Bolivia, Brasil eta Dominikar Errepublikako emakumeak dabilta aurten programan parte hartzen: "Gizonezko bat ere etorri izan da".

Etorkizunari begira informazio zerbitzu horrekin segitu edo ez, dirulaguntzen menpe dagoela argitu du Gonzalezek.

Arrasate
INSTITUTUA

**Gure eskola,
guztiona,
guztiontzat**

**2007-2008 IKASTURTERAKO
DBH MATRIKULAZIOA:**
Otsailaren 26tik martxoaren 9ra

Informazio-batzarra eta ate irekiak:
Aramaion, martxoaren 5ean, 18:00etan eta
Arrasaten, martxoaren 6an, 18:00etan,
Musakolako eraikinean

Idazkaritzako ordutegia: 9:00 -17:00
Telefonoak: 943 79 44 47 - 943 79 20 38
www.goieskola.net/arrasateinstitutua
iarrasate@euskalnet.net



**KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegi osagarriak

Urizarri auzoa B-2 B 83 sektorea • Tel.:
943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

Kapikua
OPARIAK ETA OSAGARRIAK

Bañez doktorea 4
(San Andres auzoan)
Arrasate
Tel.: 943 79 19 94

BANDALISMOA > APURKETAK ETA LAPURRETAK

Apurketak asteburuan eta martitzenean

Bost dendatako atearak apurtu dituzte eta batean lapurreta egiten ahalegindu dira

U.M. > ARRASATE

Martitzen egunsentian, bost saltoikitako kristalak apurtu egin zituzten. Barne Sailaren arabera, Maalako jaki denda bateko ateko kristala apurtu eta lapu-

rreta egiten ahalegindu ziren; ugazabek salaketa ipini dute. Seber Altuben, fruta denda bateko kristala apurtu zuten eta Olaten, hutsik zegoen denda batekoa. Azken horretan, kutxa errejistratzailea kalera atera zuten.

Bestalde, lekukoen arabera, Seberreko bideo denda baten ere egin zituzten apurketak martitzenean. Eta zapatuan, Azoka kalean, beste denda baten eta hiruzpalau autoreen kontra bota zuten garagardo upel bat.



KRISTALA Argazkian, Seberreko bideo dendako erakusleioha. JON BEREZIBAR



GOIENKARIA

Presoen egoera salatzen ekimena

Euskal preso politikoen egoera eta, bereziki, De Juanarena salatzen protesta egin zuten zortzi solidariok martitzenean. Argazkiak erakusten duen moduan, urbanoa gerarazi zuten Otaloran, eta, gora igota, De Juanaren argazkia erakutsi zuten. Gaur eta bihar presoen alde egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko dei ere egin zuten.



MAKETA Besteak beste, oztopo arkitektonikoak ezabatu gura dituzte, argazkiak erakusten duen moduan. SANTA TERESA PARROKIA

OBRAK > SANTA TERESA ELIZA KONPONTZEKO PROIEKTUA

Eliza egokitzeke laguntza behar dute Santa Teresan

251.540,47 euroko aurrekontua zehaztu dute; teilatua, berogailua eta beste berri gura dituzte

berogailu sistema berritzea eta gaur egungoa baino 18 zentimetro gorago dagoen zoru berria.

UBANE MADERA > ARRASATE
Santa Teresako elizak ez ditu betetzen legeak zehazten dituen arauak, segurtasun eta ailegarratasunari dagokionez. Horrez gain, teilatua eta berogailu berriak ipini gura dituzte. Hala jakinarazi du Pedro Urangak, Santa Teresako apaiz arduradunak.

Hain justu ere, honako lanak aurreikusi dituzte, besteak beste: larrialdietarako ate berria; larrialdiko argiak; su-itxalgailuak; elizarako sarreran dauden oztopo arkitektonikoak ezabatzea; alboan duten lorategitoxa kendu eta arrapala bat eraikitzea; eskailerak berritzea; teilatua eta

LAGUNTZA BEHAR DUTE
Hori egiteko 251.540,47 euro behar dituztela zehaztu dute. Eta laguntza eskatu dute, gastuei aurre egiteko. Hala, informatzeko eta bazkideak lortzeko bi batzar egingo dituzte datorren astean: astelehenean eta eguaztenean, 20:00etan, Santa Teresa elizan.



**Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak**
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua



Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketak berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

**Monte
taberna**

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

BITTORI
ERRETEGIA

*Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak*

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

MUSIKA > 'BLUES GAUAK'

Benjamin Tehovale-k hasiko du 3.60 aretoko hileroko blues programazioa

Bihartik, zapatua, maiatz bukaera bitartean, Tehovalez gain Marcus Malone, Carvin Jones Band eta Boo Boo Davis ere eramango dituzte

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Hemendik udara bitartean hileroko blues kontzertu bat egingo dute Arrasateko 3.60 aretoan. Bihar, zapatua, izango da lehena, eta Luxenburgoko Benjamin Tehoval blues bakarlaria izango da programazioa hasteko arduraduna.

3.60 aretoaren blues eskaintza lantzeko ideia aspalditik dator. Azkenean, Bizz ekoizpen enpresarekin hitzarmena egin dute, eta haren bitartez nazioarteko hainbat talde eramango dituzte Arrasateko aretora.

Benjamin Tehoval Luxenburgon jaio zen, baina oso txikitik Frantziara jo zuen eta han gitara jotzen ikasten hasi zen.

Parisen egindako egonaldi baten, Cyril Lefevre musikaria *Cocaine blues* eta *San Francisco Bay Blues* kantuak 12 hariko gitarra batekin jotzen ikusi zuen. Orduz gero, Tehovalek Lefevre noranahi jarraitu zuen, eta 12 hariko gitarra bat eskuratu zuen.

'GIZON BAKARREKO TALDEA'

Gerora talde bat osatu zuen eta urtetan Bob Dylan eta Rolling Stones taldeen kantuak jotzen ibili zen. Horren ostean, Afrikan eta Asian barrena ibili zen hango musikariek ikasten.

Europara itzultzean, orkestra-gizon gisa jardutea erabaki zuen. Dagoeneko hiru disko kale-ratu ditu, kantu propioekin eta



ORKESTRA-GIZONA Tehovalek aldi berean gitarra, harmonika eta perkusioa jotzen ditu eta abestu egiten du.

BIZZ EKOIZPENAK

klasikoen bertsioekin (Robert Johnson, Joe Hill Louis, Muddy Waters, Chuck Berry...). Ikusi eta entzun dutenek esaten dute tal-

de baten soinua lortzen duela, eta ikusgarria dela. Izan ere, gitarra, harmonika eta perkusioa, hirurak batera jo eta abestu ere egiten du.

Martxoan, berriz, Marcus Malone eramango dute 3.60 aretora; apirillean, Carvin Jones Band; eta maiatzean, Boo Boo Davis.



PENELOPE HOUSTON Abeslariak karisma handia du.

3.60 ARETOA

MUSIKA > GAUR, EGUBAKOITZA, EGINGO DUTE KONTZERTUA 3.60 ARETOAN

Avengers, AEBetako punkaren talde mitiko bat, agertokian

Gaur, egubakoitza, AEBetako Avengers, Tolosaldeko Lobo Electrico eta Arrasateko Los Cretinos-en kontzertua

I.B.> ARRASATE

Gaur, egubakoitza, punk eta rock-and-roll kontzertua egingo dute Arrasateko 3.60 aretoan,

23:00etan. AEBetako Avengers, Tolosaldeko Lobo Electrico eta Arrasateko Los Cretinos izango dira agertoki gainean.

The Avengers 1977an sortu zuten San Frantziskon (AEB). Penelope Houston izeneko abeslari karismatiko eta kementsuak gidatutako taldeak punkaren eta hardcorearen arteko mugak apurtu zituen.

Aipatu beharra dago Sex Pistols taldeak eman zuen azkeneko kontzertuan, 1978an, Avengers taldeak ere jo zuela. Hala ere,

Avengersek gehiago zuen komunean Germs, X eta Dead Kennedys-ekin, besteak beste.

PUNK IZAERA BETIKO

Taldea 1979an desegin zuten. Handik aurrera, Penelope Houston abeslariak zineman lan egiteari ekin zion eta folk kutsuko talde bat sortu zuen, betiere, inperialismoari eta Bushei kontra eginez.

Orain dela 3 urte Avengers berriro osatu eta AEB eta Europako kontzertuak egiten hasi ziren.



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51



ITSAS BIDAETAN

%17rainoko deskontua

Mediterraneoan,
hiriburu baltikoak,
Adriatikoa eta
greziar irlak,
karibea.



Martxoa 2007

Tenerife, Lanzarote,
Kanaria Handia

8 egun / 7 gau
195 €-tik
aurrera

Aste Santuak 2007

Tunisia

5 gau - 463 €-tik aurrera

Zirkuituak Autobusez
(Kontsulta ezazu)

Venezia	Lisboa
Florentzia	Bartzelona
Amsterdam	Valentzia
Brusela	Extremadura
Paris	...



Udaberria - Uda 2007

2x1 KARIBEA

Astebetetz - Dena barne - 699 €



ARRASATE BIDAIAK

Kontzeziño kalea 12 - ARRASATE

Tel.: 943 71 25 30 Faxa.: 943 79 74 45

E-posta.: d4051@marsans.es

umezaintza

Udal Haur Eskola

0-3urte

San Andres, 8



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi ikastolak kudeatutako
Udal Zerbitzua

07-08 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEA ZABALIK
OTSAILAREN 26tik MARTXOAREN 9ra

902 11 20 25
informa zaitez

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero,
aurrez telefonoz abisatu.


Arizmendi
ikastola

Jose Ramon Fernandez > Idazlea

"Martxoan zehar, astelehenero egongo naiz Besaideko lokalean herritarren informazioa batzen"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Besaide Mendi Elkartearen 50. urteurrena ospatzeko, mendi elkar-teak 50 urte horiek batuko dituen liburua egitea erabaki du, eta Jose Ramon Fernandez arrasatearrak du ardura hori. Dagoeneko gertu ditu hainbat kapitulu, baina beste atal batzuk idazteko herritarren laguntza eskertuko luke.

Zer jasoko du Besaide Mendi Elkartearen gainean prestatzen zabiltzan liburuak?

Batetik, herriko mendi elkar-teak 50 urtean izandako bizipe-nak jasoko ditu, baina liburua hori baino gehiago izango da. Liburua interesgarriago egiteko, elkar-tea sortu zeneko testuinguru sozial, kultural eta ekonomikoa jaso gura ditut; zelakoa zen orduko Arrasateko gizartea, hain zuzen ere. Horrekin batera,


alpinismoaren eta euskal alpinismoaren gaineko historia apur bat ere izango du.

Aipatu dituzun atal horiek idatzita dituzu dagoeneko. Besaideren historia jasotzea da hurrengo pausoa?

Bai, eta horretarako, eskertzea izango da Besaideko bazkideen laguntza. Martxoan zehar, astelehenero Besaideko lokalean egongo naiz (19:00-20:00), jendeak eramaten dituen erretratuak batu eta informazioa jasotzen. Horrek liburua osatzen lagunduko du.

Horrenbestez, garrantzitsua izango da jendearen parte-hartzea.

Bai; zenbat eta material gehiago izan, orduan eta liburu osoagoa egin ahal izango dugu.



Jose Ramon Fernandez, etxean duen liburutegiaren aurrean.

XABIER URTZELAI

"Elkar-tea sortu zeneko testuinguru sozial, ekonomiko eta kulturala batuko du liburuak"

"Zenbat eta material gehiago izan, orduan eta liburu osoagoa egingo dugu"

Izan ere, seguruenik, azken urteotako materialarekin ez dugu arazorik izango, baina aspaldiko materiala batzea ez da horren erraza izango.

Zelan moldatzen zara liburuak idazterakoan?

Kooperatibismoaren gainean ere hainbat liburu idatzi izan dut, eta, egia esateko, berehala egiten dut buruan eskema moduko bat, atalka banatuta. Gero, atalak idaztea da kontua.

futbitoa zaldibar

EMAITZAK (KOPA)

Saukelu Abian - Iturriotz taberna	9-0
Betrayer - AT Celaya	2-3
THC - Iluntz	2-6
Dribling-Lasagabaster	2-2*

*Penaltietan, Driblinek egin zuen aurrera.

PARTIDUAK

Otsailak 24, zapatua	Epaileak
10:50 Manhattan Pip-Billy & The	Aboka.
12:00 Abokajarro-THC	Billy & The cow.
13:00 Iriztu Tab-AT Celaya	THC
15:50 Iluntz - Mc Awen Dauen	Equs
17:00 Equs-Iturriotz tab.	Iluntz
Otsailak 25, domeka.	Epaileak
10:50 Cipris-HLB 108	Dribling
12:00 Dribling-Lasagabaster	HLB 108
13:00 Cicatrus-Saukelu Abian	Lasagabast.

Oharra: Dublin Irish Pub eta Betrayerren arteko norgehiagoka atzeratu egin da, Dublin taldeak horrela eskatu duelako.

SAILKAPENA

	P	J
1. Saukelu Abian	28	10
2. Dribling	24	10
3. AT Celaya	23	10
4. Betrayer	22	10
5. HLB 108	21	10
6. Iluntz	20	10
7. Cipris	16	10
8. Iriztu Taberna	15	10
9. Mc Awen Dauen	14	10
10. Abokajarro	14	10
11. Lasagabaster	13	10
12. Dublin Irish Pub	12	10
13. Manhattan Pippol	11	10
14. Iturriotz Taberna	7	10
15. Billy & The Cowboys	7	10
16. Equs	6	10
17. THC	4	10
18. Cicatrus	3	10



Matrikulazio epea zabalik
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan
OTSAILAREN 26tik MARTXOAREN 9ra



Arrasate
Herri Eskola



**Guk bezala
Euskal Eskola
Publikoaren alde
egin apustu!**



BEDOÑABE • Tel: 943 79 20 69



MUSAKOLA • Tel: 943 79 04 49



ERGUIN • Tel: 943 79 77 74

Kanpotarrak Arrasaten

Nancye Taborda > Erizain laguntzailea
Arrasaten bizi da

"Euskarazko berbak apuntatu eta hiztegian begiratzen ditut"

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Sei hilabete darama Nancye Taborda kolonbiarrak Arrasaten. Medellinen jaiotako andre horrek 52 urte ditu, eta iloba baten bitartez iritsi zen ibarrera, "ilusio handiz".

Helburu zehatz batekin etorri zen: lan egitea. Haren herrian 25 urte tik gorako emakumeek lan egiteko "ez dutela balio" eta ondorioz "baztertuak" izaten direla gogoratzten du. Ama eta semeak utzi ditu han. Hori dela-eta, erizain laguntzaile jardun eta familia Arrasatera ekarri gura du Tabordak.

Hasieran, bertakoak "aspergarriak" zirela komentatu bazitoten

ere, iritsi bezain laster errealitatea "erabat ezberdina" zela ikusi zuen. Jendea "jatorra eta zuzena" dela harritu du gehien. Eta Arrasaten "oso gustura" dagoela azpimarratzen du.

Denbora laburra daraman arren, euskarazko hainbat berba ikasi dituela azaltzen du. Nora-

"Erietxean, ospitalean edo nagusiak zaintzen lan egin gura dut; hori da niri gehien gustatzen zaidana"



Nancye Taborda Arrasaten bizi da.

bait joaten denean eta euskarazko berba solteak ikusten dituenetan, koaderno batean apuntatu eta gero hiztegian begiratzen ditu, gaztelaniaz zer esan gura duten jakiteko.

EUSKARA IKASTAROA

Bestalde, Ekin Emakumeak elkar-tearen bitartez ikastaro labur baten parte hartu du Tabordak. Are gehiago, euskara gustura ikasiko duela onartzen du; ilusioeta-ko bat dela dio.

Hain zuzen ere, Kolonbian erizain laguntzaile titulua atera eta horretan jarduten zuen han. Gure ibarrera iritsi zenean, ordea, lan-bidea atzean utzi eta "etxeko lanak eta garbiketarak egiteari ekin behar izan nion, bizi ahal izateko".

Orain, titulua homologatzea gura du, ondoren, "erietxean edo ospitalean lan egiteko edo nagusiak zaintzeko. Hori gustatzen zait gehien", dio kolonbiarrak. Amets horren zati bat errealitate bihurtu da. Egunero edadetu bat zaintzen du bost ordur.

bere ustez



Aitor Zabalo

Inauterien kontuei buruz

Inauteri astea pasa dugu. Aurreko astearte inauteri astearte izan da, eta inguruko herri guztietan, gehiago edo gutxiago, inauteriak ospatu ditugu. Horren ostean, hausterre egunarekin garizuma aldia hasten da. Lehengo ohiturekin behintzat, aldi gogor eta zorrotza. Esaten da, inauteriak 40 egunez luzatzen den aro horretarako prestakuntza bat zela.

Nolabait orain garizumako aldi gogor hori leundu edo egin dugu. Baina badago inauteri-garizuma horretako bes-

hau be badaukogu

Iturbide egoitzako aitaitek eta amamek ederto gozatu zuten Aratuste-martitzenaz

Aratuste-martitzenean gazteen artean aparteko giroa egon bazen, Iturbide egoitzako azken solairukoa ere oso antzekoa izan zen. Izan ere, ohiturari jarraituz, egun alaia izan zuten hantxe. Bazkalostean, aita eta amama asko moztortu eta dantza egiten ibili ziren arratsalde osoan. Zuzeneko musikaz gozatzeko aukera izan zuten, baita erizain, senide eta egoitzako lagunekin gorputza apur bat astintzeko, nahi izan zutenek. Gustura ibili zirela argi ikusten da argazkian. Are gehiago, horrenbesteko mugimenduarekin, ziur aski gehienek arazo barik egingo zutela lo gau hartan.



MIRIAN BITERI

"Aste barruko lanen gogortasunak aste bukaerako ongi pasatzearekin lasaitzen dugu"

te zentzurik. Aste barruko lanen gogortasunak aste bukaerako ongi pasatzearekin lasaitzen ditugu. Kasu honetan, asteroko errutina bihurtzen dugun istorio bat izaten da. Ostiral arratsaldetik hasi eta domeka gaua arte irauten du asteroko inauteriak eta asteroko garizumak 5 egun izaten ditu. Agian moztortu ondo pasatzeko baino asteroko lanean janzen dugu.

Lehengo ohiturek bazuten, eta badute, erantzun psikologiko bat. Lana egin beharra daukagu, baina ondo pasatzea ere beharrezkoa da. Horrela ere, ideala beti ondo pasatzea izanik, pertsona gutxiren esku dago hori. Beraz, bakoitzak bere inauteri partikularrak ahal bezain beste disfrutatut behar ditu. Ondo pasa.

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak osagaiak**

San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabilioia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebendun hizkiak

ERREGE SEMINARIOA > ERAIKINAREN BANAKETA SINATU DUTE ARANZADI IKASTOLAK, UNED-EK ETA UDALAK

Arrizuriaga jauregian egongo da UNED, ikastetxea berriztatu arte

Aranzadi Ikastolak eta udalak ere obrak egingo dituzte nork bere zatian

Errege Seminarioaren teilatua eta fatxada ere berritu egingo dituzte

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Astelehenean egin zuten ofizial Errege Seminarioaren banaketa. Lehendik adostuta zuten banaketa hori, baina aste honetan sinatutako hitzarmenak egin du ofizial. Orain, alde bakoitzak obrak egingo ditu bere zatian.

UNED, PLAZATIK ARRIZURIAGARA

UNEDek, adibidez, zati osoa berriztatuko du: "Proiektu integral osoa egingo dugu: liburutegi berria egingo dugu, beste solairu bat goian, oztopo arkitektonikoak kenduko ditugu, informatika gela berria izango dugu eta gela txiki gehiago egingo ditugu, besteak beste", azaldu du Juanjo Alvarez zuzendariak.

Eta lan horiek egin bitartean, Arrizuriaga jauregira eramango dute UNED. "Egia esan, oraindik ez dakigu noiz hasiko ditugun lanak. Guri komeni zaigu urrian, ikasturte hasieran, edo datorren otsailean, azterketen ostean, hasia, baina hiru erabiltzaileon lanak koordinatu egin behar ditugu eta obren hasiera data zehazteko dugu oraindik. Ina Aspiatzuk egingo du proiektua eta hark esan digu 18 hilabete inguru beharko dituztela dena berriztatzeko. Bitartean, Arrizuriagan egongo gara. Hiruzpalau aldiz egon gara han, eta egokia da tokia. Aranzadiko gela batzuk ere erabiliko ditugu, hala ere", zehaztu du Juanjo Alvarezk.



ARRIZURIAGA Liburutegi berria Arrizuriagan egin nahi du Udalak, baina lehenago UNED egongo da.

GOIENKARIA

IKASTOLAKO SARRERA, MUNIBEN

Aranzadi ikastolak ere eginda dauka egin nahi dituen obren proiektua. Zati garrantzitsuene-

takoa izango da Munibe plazatik egingo duten sarrera: "San Martin plazako sarrera ordezkatuko du horrek; Munibekoa izango da

gero ikastolako sarrera nagusia", azaldu du Patricia Urrutiak, Aranzadi ikastolako zuzendariak. Horrez gain, eraberritze-

Eraikinaren banaketa sinatu dute hiru aldeek

UNED ikastetxeak, Aranzadi ikastolak eta Bergarako Udalak erabiliko dute aurrerantzean Errege Seminarioa. Astelehenean egin zuten ofizial banaketa hori. Joxe Juan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiak, Victoriano Gallastegi alkateak, Juanjo Alvarez UNED ikastetxeko zuzendariak eta Anjel Mari Eguren Aranzadi ikastolako presidentek sinatu zuten akordioa. Orain, barne antolaketa zehaztea falta zaie.



Eguren, Gallastegi, G. de Txabarri eta Alvarez hitzarmena sinatzen.

UBANE MADERA

LABURREAN

> UNED

UNED berriztatzeko 18 hilabete inguru beharko dituztela kalkulatu dute, eta bitartean Arrizuriagan egongo da; Aranzadiko gela batzuk ere erabiliko dituzte, hala ere. Tutoretzako gelak, administrazioa eta zuzendaritza alde baten egongo dira eta ikasgelak beste aldean.

> ARANZADI IKASTOLA

Munibetik pasabidea egingo dute ikastolara, eta horixe izango da Aranzadiko sarrera nagusia; San Martin plazakoa ordezkatuko du.

> AUDITORIOA

Seminarioko elizan egingo dute auditorioa, eta kristalezkoa izango da. Lehenengo pausoa izango da elizako erretaula dagoen tokitik kendu eta eraberritzera eramatea.

ko falta den fatxada zatia ere konponduko dute eta igogailua jarriko dute han. "Orain arte azpiegitura lanak egin ditugu batez ere: leihoak aldatu, berogailua jarri eta lan elektriko batzuk egin, besteak beste. Eta kirol patio ondoko aldagelak berritu egin ditugu", jarraitu du Urrutiak.

KRISTALEZKO AUDITORIOA

Udalak, bestalde, askotariko erabilpena izango duen auditorioa egingo du Errege Seminarioko elizan. Kristalezkoa izango da. Lehen pausoa izango da elizako erretaula zaharberritzea. Kanpoko enpresa batek egingo du lan hori, eta horretarako tokia duen bezain laster eramango du.

Nork bere zatian egingo dituen obrez gain, eraikinaren teilatua eta fatxada ere berritu egingo dituzte. Egin beharreko lan guztiak koordinatu egin behar dituzte; lan batzuk batera egingo dituzte eta beste batzuk bata bestearen segidan. Oraindik ez dute hasiera datarik jarri.

Diodo bidezko laser depilazioa: eraginkorra eta azkarra

GORPUTZ GUZTIRAKO DEPILAZIOA:

- Hiru hilabete behin
- Tratamendua bukatzeko 4 edo 6 saio
- Osasunean profesional direnek egina

Estetika zentroa
Igaro

Presta zaituzte
udarako, orain!

Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295



Irrintzi
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

UREDERRA
ITURBINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918



UDAL HAUTESKUNDEAK > EAJ-REN AURKEZPEN OFIZIALA

EAJk, alkatetzarako duen hautagaiaren aurkezpena egin du

Egungo proiektuekin jarraituko duela eta erronka gogoz hartu duela dio German Muruamendiarek

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Eguaztenean batzokian aurkeztu zuten ofizialki EAJko alkatetzarako hautagai German Muruamendiarek. Joseba Egibar Gipuzkoa Buru Batzarreko presidentearen eta Jon Jauregi diputatu nagusirako EAJren hautagaiaren babesa izan zuen. Mikel Lete Bergarako EAJko kidea ere ondolan izan zuen. Aurkezpena joandako herritarrei German Muruamendiarek esan zien saiatuko zela politika herritarrei hurbiltzen. "Hauteskundeetako programa osatzen ari gara oraindik baina saiatuko naiz politika eta herri-

tarren arteko lotura estuagoa izaten; horretan, ordea, herritarrek ere badute zeregina", azaldu zuen Muruamendiarek. Bergarako Udalak orain arte hasi dituen proiektuekin jarraitzeko asmoa duela ere aurreratu zuen Muruamendiarek eta gogoz hartuko duela erronka berria. Datozen hiru hilabeteetan lan asko dute egiteko ere onartu zuen.

Ser irrati kateak Jon Jauregi buruz egindako salaketei erantzunez, Egibarrek esan zuen EAJk ez duela hautagaia aldatuko, "gizon garbia, argia eta zintzoa da Jon Jauregi".

AURKEZPENA Mikel Lete, Joseba Egibar, German Muruamendiarek eta Jon Jauregi batzokian egin zuten aurkezpenan. o.e.

KORRIKA 15 > MARTXOAREN 25EAN IRITSIKO DA

Kantu afaria eta txokolatjana Korrika 15erako

Hasieran iragarri zuten baino geroago iritsiko da Korrika Bergarara: 07:15ean San Antoniora

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Martxoaren 25ean, domeka, helduko da Korrika 15 Bergarara, baina aurreko egubakoitzerako, martxoak 23, antolatu dituzte lehen ekitaldiak. Egun horretan, Korrika Txikia egingo dute herriko ikasleek. Ikastetxe guztiek elkarrekin antolatuko dute festa hori eta asmoa da herriko kaleak korrika zeharkatzea: azoka, Ibargarai, Arrizuriaga, San Pedro, Artekale, Barrenkale eta pla-

za. Ondoren, txokolatena egingo dute erretiratuek plazan bertan, eta segidan, musika eta jolasak eramango ditu Jardunek ume guztiendako. Gauerako, berriz, kantu afaria antolatu du Jardunek bertsolari eta txiste kontalariekin. Domekan, 07:15ean iritsiko da Korrika, hasieran iragarri baino geroago. Ordurako kalejira antolatu dute eta osterako, salda edo txokolatena egin nahi dute.

Bestalde, hamar kilometro, behintzat, saldu dituzte dagoeneko. Erosleak dira, besteak beste: hiru ikastetxeak, Udala, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Labegaraieta auzoa, Jardun, Xamatx eta LAB. 380 euro balio du kilometro bakoitzak eta erosi nahi duenak hona deitu behar du: 943 77 03 69.

> ERRETIRATUAK

Zuzendaritza berrirako hautagaiak aurkezteko epea zabaldu dute San Joxepe elkarteak

Erretiratuen elkarteak zuzendaritza berriztatuko du martxoaren 15ean egingo duen urteko batzarrean. Zuzendaritzako hiru kide kargua utziko dute eta beste hiru aukeratuko dituzte haien lekua betetzeko. Hala, epea zabaldu dute zuzendaritzako kide izan nahi dutenek izena eman dezaten. Otsailaren 21ean, eguaztenean, zabaldu zuten hautagaiak aurkezteko epea eta martxoaren 5ean itxiko dute. Egun horretan argitaratuko dute hautagaien zerrenda. Bestalde, martxoaren 8an sagardotegira egingo dute irteera; Aginagako sagardotegi baten izango da bazkaria.

> INAUGURAZIOA

Martxoko lehen asteburuan zabalduko dute frontoiko taberna

Martxoko lehen asteburuan zabalduko dute Udal Pilotalekuko taberna, azken aldaketarik izan ezean. Taberna hornitzen eta kudeaketa zehazten dabilta orain. Taberna eta frontoia, biak zabalduko dituzte datorren hileko lehen asteburuan.

ARISTEGI
iturgintza

Tel.: 943 76 25 57
Mug.: 646 02 16 94

Ibargarai hiribidea 32-04.B
BERGARA

AZPEITXI

Jatetxea


Aranerrea 13 behea. Bergara
943 76 55 00

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13



JAUJA
KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32



ABY KEM Bergararrek Danbaka lehiaketa irabazi zuten urtarrilean.

GOIENKARIA

MUSIKA > KILOMETROEN ALDEKO JAIALDIA

Matx, Radio Wings, Aby Kem eta Yotox, Jamen

Gaur, egubakoitza, izango da kontzertua, 22:30ean; sarrerak hiru eurotan daude salgai

EDU MENDIBIL > BERGARA

Gaur, egubakoitza, Kilometroak jaiaren aldeko rock kontzertua izango da Jam aretoan, 22:30ean hasita. Lau taldek hartuko dute parte, tartean Debagoieneko musika lehiaketa irabazi berri duten Aby Kem bergararrek.

Haiekin batera Radio Wings arrasatearrak, Matx elgetarra eta Yotox bergararra arituko dira taula gainean. Taldearen izena daraman diskoa kaleratu zuten iaz Radio Wings arrasatearrek eta disko horretako kantuak joko dituzte gaurko emanaldian; doi-

nu lasaiagoekin etorriko zaigu Gorka Arizmendiarrera. Matxura taldean ibili ondoren, bakar-lari dabil orain Matx; eta proiektu pertsonala da baita Jesus Mari Arriararena, Yotox ezizenarekin musika elektronikoa egiten duena; Aby Kemek, esan bezala, Danbaka lehiaketa irabazi du, eta trash metal kantuak egiten ditu.

Kontzerturako sarrerak hiru eurotan jarriko dituzte salgai.

Piano ikasleak, Andoainera asteburuan

Argazkian ageri diren piano jole gaztetxoek aste bukaeran Andoainen ospatuko den jaialdian hartuko dute parte. Iaz Bergarako 12 ordezkari izan ziren Andoainen eta aurten 23 neska-mutiko joango dira: Amaia Urdangarin eta Eli Mendaratz irakasleekin ari dira. Lau hilabete eman dituzte Andoingo jaialdia gertatzen eta bihar eta etzi, ikasitakoa erakutsi ahal izango dute.



MUSIKA ESKOLA

> JAIK

Txorimalo lehiaketa deitu du Jardun euskara elkarteak

Jardun euskara elkarteak txorimalo lehiaketa deitu du Erramu-zapaturako, martxoaren 31rako. Aurtengoa lehiaketaren 13. ekitaldia izango da eta izenematea zabalik dago Jardun euskara elkarteak Errotalden duen bulegoan. Gehienez zortzi lagunekoak izango dira osatutako taldeak. Txorimaloaz gainera, euskararen gaineko esaldi bat aurkeztu behar dute partaideek. Partaideen adinaren arabera, hainbat talde bereiztuko dituzte. Edozein argibidetarako Jardun euskara elkartera, 943 76 36 61 zenbakira jo dezakezue.

> HISTORIA

'Zinema eta historiaren arteko harremanak': Juan Madariagaren hitzaldia egunean

Zinema eta historiaren arteko harremanak hitzaldi sortaren barruan, Juan Madariaga Historia irakasleak *Errusiar 1917ko iraultza eta Sobiet Batasunaren eraikuntza* izenburuko hitzaldia egingo du datorren egunean, otsailaren 28an, Miguel Altunako aretoan, 18:30ean.

> ERAKUSKETA

'Juxe'-ren argazki erakusketa Aroztegin, domekara arte

Joxe Angel Areta *Juxe*-ren *Amazoniako oihanetik pazifikora* argazki erakusketa ikusgai dago Aroztegi aretoan, domekara arte. Ekuadorren ateratako argazkiak ekarri ditu. Zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era izango da Aroztegi zabalik; domekan, 12:00etatik 14:00etara.



Erakusketako argazki bat.

'JUXE

> MUSIKA

Saxon beteranoak, martxoaren 24an Jamen

Saxon taldearen kontzertua izango da Bergarako Jam aretoan martxoaren 24an. Masterplan taldearekin batera arituko dira eta sarrerak salgai daude dagoeneko, 25 eurotan.

Bestalde, honako hauek dituzte hurrengo hitzorduak Jamen: Lordi martxoaren 2an; Thunder martxoaren 3an; Los Delinquentes martxoaren 23an eta Rose Tattoo apirilaren 1ean. Argibide gehiago www.salajam.com helbidean.

> MARGOAK

Idoia Azkarateren margo erakusketa Donostian

Idoia Azkaratek margo erakusketa jarri du Donostiako Alde Zaharreko La Colchoneria tabernan, San Bizente kaleko 9. zenbakian. Formatu askotariko koadro koloretsuak jarri ditu ikusgai margolari bergararrek, martxora arte.

Mariaren Lagundia Ikastola



**Gure bidea, gure bermea.
Gure bermea, zuen aukera.
Zuen aukera, gure xedea.**



*Atzo hala...
egun hola...
Bihar, ondo erroturik gare eta...
jakingo dogun nola*



2 urteko umeen gurasoentzat bilera otsailaren 27an, arratsaldeko 18,00etan



Espaloia 1. Tfnoa.: 943 76 25 40-41. e-mail: ikastola@mلاغundia.net
0-16 urte / 18tik aurrera
Matrikulazioa: Otsailaren 26tik martxoaren 9ra



> PILOTA

Eskola kiroleko hurrengo topaketa, oraingo zapatuan

Eskola Kiroleko programako topaketek oraingo asteburuan jarraituko dute. Gipuzkoako Herri Kiroletako Federazioarekin batera, Antzuolako, Elgetako eta Bergarako eskola kiroleko ikasleek herrikiroleko topaketa egingo dute.

Udal pilotalekuan egin dute hitzordua, zapatuan, goizeko 10:00etatik 13:00etara bitartean. Benjamin eta albin mailako ikasleen arteko partiduak jokatu dituzte, hain zuzen ere.

> ESKIA

Pol-Pol mendizale taldeak datozen eski irteerak iragarri ditu

Oraingo denboraldian eguraldia ez da oso ondo portatzen ari eskia edota snow praktikatu ahal izateko. Azkenaldian, hala ere, egoerak apur bat hobera egin duela aintzat hartuta, irteerak antolatu ditu Pol-Pol mendizale taldeak.

Martxoaren 9an, arratsaldean, Baqueirarantz abiatuko dira asteburu pasa. Ohikoa den moduan, Aste Santuan, apirilaren 6tik 14ra, Alpeetara joko dute zaleek.

ESKUBALOIA > GIPUZKOAKO TXAPELKETAKO LEHEN POSTUARI EUSTEN DIO NAGUSIEN TALDEAK

Mutilen senior mailako taldeak bigarrenaren aurka jokatu du, etzi

Infantil mailako neskek ere Bergaran dute hitzordua, zapatu goizean, Elgoibarko taldearen kontra, Labegaraletan

MIRIAN BITERI > BERGARA

Eskubaloiak tarte ederra izango du asteburu honetan Bergaran. Alde batetik, zapatuan, infantil mailako neskek Elgoibar izango dute aurkari. Partidua goizean jokatu dute, 11:00etan, Labegaraletan.

Denboraldi makala egiten ari dira neskek. Oraindik taldea egiten ari dira, eta emaitzak hurrengo hilabeteotan lortzen hasiko direla espero dute.

SENIOR MAILAKO TALDEA, LEHENA Beste aldetik, senior mailako mutilak domekan lehiatuko dira Ormaiztegiarekin. Partidu gogorra izango da, talde biak denboraldi bikaina ari direlako egiten. Hain zuzen, 12:00etan hasiko da norgehiagoka.

Begararrak lehenak daude sailkatuta Gipuzkoako Txapelke-



SENIORRAK Argazkian, senior mailakoak Urolaren aurkako partiduan. GOIENKARIA

tan. Partidu guztiak, hamabostak, irabazi dituzte. Ormaiztegi, berriz, bigarren dago. Hiru jardunaldi geratzen dira txapelketa amaitzeko eta bergararrak iguera faserako sailkatuta daudela esan daiteke. Igoera fasea martxoaren 17an hasiko da.

Eskubaloiko lau talde daude guztira Bergaran. Bi horiez gai-

nera, infantil eta gazte mailako mutilak daude.

Lehena denboraldi polita egiten ari da. Lehenengo fasean laugarren geratu ziren eta bigarrenen, jokatu hiru partiduetatik bi irabazi dituzte. Gazteena, berriz, bigarren sailkatuta dago Gipuzkoako Txapelketan, eta horri eusten saiatuko da.

labegaraleta**PARTIDUAK**

Otsailak 25, domeka	Epai-leak
09:30 Errota Gain - Teatekh	Niu Tim
10:30 Niu Tim - Belengua	Errota Gain
16:30 Irubide - Altosporinos	Deba
17:30 Deba - K. Piperrak	Altosporinos
18:30 Tiki Taka - Irish Pub	Piperrak

SAILKAPENA

	P	J
1. Errota Gain	36	12
2. Niu Tim	33	12
3. Teatekh	24	12
4. Altosporinos	24	12
5. Tiki Taka	18	12
6. Irish Pub	12	12
7. Belengua	9	12
8. Irubide	9	12
9. Komando Piperrak	6	12
10. Tornilleria Deba	3	12

Bilera izango da martitzen arratsaldean kultura etxean

Datorren martitzenean, otsailak 27, talde guztien ordezkariak batzarra egingo dute Bergarako kultura etxean.

Batzarra 19:30ean hasiko da, eta kopako zozketa eta jokalar berrien inskripzioari buruzko gaiak landuko dira han.

Eztabaidatuko dutenaren garrantzia dela-eta, ordezkari guztiak joan daitezten eskatzen dute.



ARANZADI IKASTOLA
Herri Onurako Irakaskuntza Kooperatiba
S. Martin Plaza 4, 20570 BERGARA
Tel. 943 76 90 71 • Fax. 943 76 91 77
bergara@ikastola.net • www.aranzadiikastola.org

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKALDUNA

- HEZKUNTZA EUSKALDUNA
- EUSKAL CURRICULUMA
- HIZKUNTZA ETA PERTSONEN ANIZTASUNA
- TEKNOLOGIA BERRIETAN MURGILDUTA
- IKASMATERIAL PROPIOA
- IRAKASLEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZA
- ARRETA PERTSONALA ETA ZUZENA
- GIZA BALOREAK ETA GAITASUNAK
- EUSKARA ERABILI ETA MENDERATU

2007-08 IKASTURTERAKO MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK OTSAILAREN 26tik MARTXOAREN 9ra

“zatoz martxoaren 1etik 9ra eskola ordutan eta lanean ikusiko gaituzu”

Bilera informatiboa otsailaren 27an arratsaldeko 18:30ean Plazako eraikinean

**BALIABIDE ETA ZERBITZUAK****HAURTXOA HAURTZANDEGIA**

- 0 - 3 urte bitartean
- gure hezkuntza proiektu bera

ARANZADI

- UMEZAINZA ZERBITZUA
 - 2 urtetik 8 urtera
 - goizeko 7etatik arratsaldeko 7etara
 - Gabonetan, Aste Santuan eta uztailean irekita

2 URTEKO GELAK**HARRERA GELA****GARRAIOA ETA JANTOKIA****BALIABIDE PEDAGOGIKOAK**

- eskola psikologoa
- orientatzaile pedagogikoa
- logopeda
- hezkuntza premia berezietarako espezialistak



H A U R H E Z K U N T Z A T I K B A T X I L E R G O R A

Dekorazioa

Egubakoitza / 2007ko otsailaren 23a / **Arduraduna:** Monika Belastegi / **Maketazioa:** Oxel Arrieta



■ SUKALDEAK

Metro gutxiri etekina atera

MONIKA BELASTEGI

Metro gutxiko sukaldeetako buruhauste nagusia espazio falta da. Non gorde lapikoak, baxera, janaria...? Errenkadan jarritako altzariak, erabilera bikoitzeko piezak, tonu argiko estaldurak... proposamen onak dira sukalde txikiei etekina ateratzeko.

Etxebizitza guztietan garrantzitsua da espazioa antolatzea, baina are garrantzitsuagoa da metro gutxiko etxebizitza baldin bada. Sukaldeari dagokionez, metro gutxi horiei etekina ateratzea da gakoa, eta badira horretarako hainbat modu.

Errenkadan jarritako altzariak dira irtenbideetako bat. Era-

bilera bat baino gehiago dituzten piezak dira beste bat, eta baita pieza konpaktuak ere.

ARINA ERE IZAN DAITEKE

Sukalde txikiei irekitasun sententzia ematea ere badago. Altzari motaz gain, kolorearekin ere jokatu behar da horretarako: tonu argiak dira giltza.



Beira-arasek espazioa arintzen lagutzen dute.

GOIENKARIA

**ALTZARIAK ERRENKADAN**

Altzariak errenkadan jartzea da sukaldeari etekin handiena ateratzeko modu egokienetako bat. Sukalde estu eta luzeen kasuan oso egokia da (irudian ikus daiteke): altzarietako tiradera edo xaxoi luzeak eta espazio handikoak dira, eta, gauza asko gordetzeko aukera emateaz gain, guztia eskuragarri izatea ahalbidetzen du. Kontuan izan behar den gauza bakarra da janaria prestatzeko lekuaren eta harraskaren artean gutxienez 60 zentimetro laga behar direla.

TONU ARGIAK

Irekitasuna lortzeko modurik aproposena da kolore oso argiko altzariak jartzea sukaldean. Izan ere, tonalitate horiek arintasun sententzia ematen diote multzoari. Horrekin batera, giroaren argitasuna handitu egiten dute. Bestalde, sukaldeak oso beteta dagoen itxura ez emateko aukera bat da modulu altuak jarri beharrean, beira-arasak edo apalak jartzea. Sukaldeko gailuak modu erosoan eskuragarri izateko modua ere bada hori.

ERABILERA ASKOTARIKO PIEZAK

Espazioa faltan dagoenean, erabilera askotariko piezak aukera ezin hobea dira leku txikiari etekina ateratzeko. Irudian, esaterako, irristailu edo gidarien gaineko estalkiak balio du, batetik, lanerako espazioa irabazteko -janaria garbitzen, prestatzen, harrikoa egiten... gauden bitartean-, eta, bestetik, gosaltzeko edo bazkari azkarra egiteko. Estalkia itxi eta gero, sukalde erabat txukun eta jasota geratzen da.

ETA... GEHIAGO

LBAantic
www.lba-antic.com

Zure ideiak altzari bihurtzen ditugu.
TEKA egurrean, neurrira eta enkarguz.

URRETXU-n, Azkoitia-rako errepidean
Astelehenetik larunbatera: 10:00 - 13:00 / 17:00 - 20:00
Telefona.: 943 72 53 26 lba.antic@terra.es

■ BAINUGELAK

Koloreekin kontrasteak

UBANE MADERA

Bi estilo edo tendentzia nabarmentzen dira, gaur egun, bainugelarako altzariak eta dekorazioa aukeratzeko orduan: modernoa eta 60ko hamarkadan inspiratutakoa. Kasu bietan koloreak erabiltzen dituzte dekorazio orokorrari ukitu bereziak emateko. Horrez gainera, nabariko da, baita ere, espazioak hobeto aprobetxatzeko tendentzia badatorrela, baita etxeko bainugetara ere.

Estilo modernoa eta 60ko hamarkadan inspiratutakoa. Horiek dira bainugelarako dekorazioan gehien erabiltzen direnak.

Laranja, pistatxo eta gorri kolorea asko erabiltzen dira kontrasteak egiteko

Estilo modernoari dagokionez, joera gero eta garbiagoa dago zuri koloreko altzariak erabiltzeko bainugelaren fondo iluna denean. Baita ere kolore bakarrek dekorazioa erabili eta kolore biziagoak tartekatzen, laranja, gorria eta berde-pistatxoa, batez ere. Gauza bera gertatzen da zeramikarekin, hau da, azulejoekin.

60KO HAMARKADA ATZERA ERE
60ko hamarkadan inspiratutako estiloari dagokionez, berriz, kolo-

re nahiko ilunak ikusten dira altzarietan; ebanoa, esaterako. Horrez gainera, altzarietan zein azulejoetan hasi dira erabiltzen

Estilo modernoan kolore argiak; 60ko hamarkadakoan ilunagoak

makrame estiloko marrazkiekin egindako dekorazioak.

Baina, oro har, estilo batean zein bestean koloreekin kontrasteak egiteko joera handia dago.

Orokorrean begiratuta, baita ere, espazioa ahalik eta hobeto aprobetxatzeko kaxoidun altzari aukera handia dago.

Bainugelako bestelako elementu batzuk aipatzearen, gaur egun karratu formako txorrotak asko erabiltzen diren arren, itxura borbobilekoa ere sarri erabiltzen da.



Estilo modernoa, koloreen kontrastearekin.

GOIENKARIA



Makrame moduko dekorazioa, 60ko estiloan.

GOIENKARIA



Azulejo txikiak ere moda-modan daude oraindik ere.

GOIENKARIA



Finantzaketa kuota pertsonalizatuak



Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Haitz-Iturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

San Miguel
DEKORAZIOA ETA ISOLAMENDUA

Norberaren babeserako ekipamenduak eta lanerako arropak
Zeramika erakusketa eta salmenta

Zapatu goizetan irekita

Distribuidor Oficial
ISOVER USC MAPEI blanko HANDYHEAT
Styrodur eurocoustic arena ROCLAINE

Amillaga 5-6 pabilioia - BERGARA Tel.: 943 76 47 90 - Faxa: 943 76 01 15 Zentralita: 649 98 16 70

■ LOGELAK

Logela, etxeko erregina

EDU MENDIBIL

Etxeko gela kuttunena izango da logela ziurrenik. Izan ere, atsedean hartzeko lekua da, gela pertsonalena. Horrenbeste ordu bertan igarotzen ditugunez, berebiziko garrantzia dauka. Eta, eroso izateaz gain, praktikotasuna, espazio nahikoa izatea eta argia bilatzen dugu logela aukeratzean.

Espazioa hain garesti dagoen honetan, dauzkagun metroak ondo aprobetxatu beharra dago.

Atzean geratu dira garai bateko logela handiak. Oheak jarraitzen du izaten logelako erregina, eta horrek baldintzatzen du askotan gainerako dekorazioa. Esan beharrik ez dago atsedean egokia izateko oheak zerikusi handia duela. Aukera zabala da, neurri zein estilo aldetik. Dena dela, ohiko bihurtzen ari da oheburuko kentzea. Hori egitekotan bi aukera daukagu: ohea paretaren kontra

jarri (espazioa irabazterik izango dugu horrela) edo ohearen alboan murrutxo bat egin (bertan, liburuak, argazkiak eta beste hainbat gauza uzteko ondo etortzen dena). Arropaz gain,

objektu pertsonalak gordetzeko erabiltzen da logela askotan. Armairuak eta bestelako altzariak primeran etorriko zaizkigu.

GELA ARGITSUA

Logela dekoratzeko orduan ez da berdina nerabeen gela ala nagusiek erabiltzen dutena izatea. Edozein modutan, praktikotasuna eta erosotasuna bilatu behar dira. Gela argitsua izateak ere berebiziko garrantzia du. Alde horretatik, gelaren orientazioa funtsezkoa da. Teoria ugari dago horren inguruan.

Dauzkagun metroak ondo aprobetxatu beharra dago

Logelak baldintzatzen du askotan gainerako dekorazioa

Praktikotasuna eta erosotasuna bilatu behar dira logela aukeratzeko orduan



Gela argitsua izatea funtsezkoa da.

GOIENKARIA



Oheak baldintzatzen du dekorazioa askotan.

GOIENKARIA



Ez da komeni izaten logela altzariekin betetzea.

GOIENKARIA



GRUPO **RKUZ**

ARETXABALETA 1950 • 2007 ARRASATE



RKUZ

ELECTRODOMESTICOS

Andramari auzunea

Tel./Faxa: 943 79 10 97

ARETXABALETA



RKUZ

COCINA INTEGRAL

Mitarte 3

Tel./Faxa: 943 77 04 55

ARETXABALETA



ETXE MODEL

ALTZARIAK

Araba etorbidea 5

Tel./Faxa: 943 79 41 82

ARRASATE



RKUZ

MUEBLAS

Araba etorbidea 20

Tel./Faxa: 943 79 23 51

ARETXABALETA

Etxeko aldaketekin amesgaiztoak?
Har ezazu lo goxo!
Esperientziadunak gara.
Arkauz etxearekin ederto amestuko duzu.

Arkauz zure etxea da.

■ EGONGELAK

Bakoitzaren neurrira eginda

XABIER URTZELAI

Gaur egun, altzari etxeek geroago eta gehiago erakusten dute pertsona bakoitzaren asmoa asetzeko gauza direla. Prezioa, egurraren kalitatea, estiloa, neurrira egin ahal izatea... Izan ere, hortxe dago gakoa, bezero bakoitzak eskatzen duen hori gauzatu ahal izatea, alegia.

Azken altzari feriek erakutsi berri dute egongeletan teka eta intxaurrondo akaberako altzariak indarrarekin datozela, eta nagusituko diren joeretan kolore zuriak eta beltzak aginduko dutela. Horretara doa merkatua, baina bezero guztiek ez dituzte joera horiek jarraitzen, eta haien eskaerei ere erantzun egin behar zaie.

Altzari etxeetan lanean dihardutenen esanetan, bezero batzuk aholku eske etortzen dira eta beste batzuek argi izaten dute zer gura duten. Hala, aholkua behar dutenendako, gureko altzari etxe gehienek dekoratzaileekin egiten dute lan: egongela horretara-



Teka akaberako egongela baten adibidea, kolore zuriarekin konbinatuta.

GOIENKARIA

sirik. Gazte zein nagusi, batzuek ez dutela aholkurik behar.

GEROAGO ETA ETXE TXIKIAGOAK

Hori da altzari etxeek izaten duten beste arazoetako bat, etxebizitzak geroago eta txikiagoak direla, eta egongelak forma aldetik oso ezberdinak izaten direla. Hala, biltegi handietan altzari estandarrek dituzten moduan, enpresa txikiagoen erronka da neurrira egindako altzariak egitea, metro koadro bakoitza hobeto aprobetxatzeko. Hala, kasu gehienetan altzari etxeek aroztegiekin estu-estu egiten dute lan, lehen zegoen altzari bat handitzeko, luzapena egiteko eta bazter bereziren baten neurrira egindako altzaria jartzeko, besteak beste.

Egongela ez da, baina, altzarietan amaitzen. Hor daude deskantsurako geroago eta aukera zabalagoak eskaintzen dituzten sofak –masajea ematen duen besaulkia, esaterako–, edota beselako osagarriak ere: alfonbrak, argiak... Kontuan hartu osagarriek ere bat egin behar dutela egongelarako aukeratu den estiloarekin.

Teka eta inatxaurrondo akaberako altzariak indarrez datoz

ko ze altzari diren aproposenak, hormek ze kolore behar duten, bazterrek zelan aprobetxatu, txoko bakoitza zelan argiztatu... Kontrara, lehen aurreratu dugu badaudela ideiak argi dituztenak ere, eta, horrelakoetan, aitortu digute adinak ez daukala zeriku-

Altzari etxeetan ahalegintzen dira altzariak neurrira egiten, behar guztiak asetzeko



Merkatuko lehen markak • Gremioen koordinazioa • Mota askotako estiloak

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar
project, s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA

Telleria 23, D5 pabilioia • Labegaraieta Industrialdea BERGARA
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44 • www.iparproject.com

■ ARGIAK

Nortasuna aintzat hartzea

IKER BARANDIARAN

Etxebizitzen argiztapena oso garrantzitsua da. Are gehiago, adituen esanetan ezinbestekoa da etxearen erabiltzailearen nortasunaren arabera argiztapena jartzea. Horren barruan, sartuko dira baita gela desberdinen koloreak eta intentsitatea ere.

Asteon, dekorazioaren gaineko aditu batekin elkartu gara Bergaran. Haren ustez, euskaldunak gero eta modernoagoak gara eta etxeak apaintzerakoan gauza berri gehiago erabiltzen ditugu, baina baditugu beste gabezia larri batzuk: "Gauza berriak jartzen ditugun arren, ez daukagu argi

non jarri behar ditugun, eta hori oso garrantzitsua da".

Are gehiago, hark azaldu digu argiztapena dekorazioaren ezinbesteko zutabea dela, eta etxean bizi behar diren nortasuna kontuan hartzea derrigorrezkoa dela hura apaintzean.

INTENSITATEA ONDO BIDERATU

Aditu horrek azaldu digu sukaldea eta komuna direla intentsitate handiagoarekin argiztatu behar diren etxeko guneak. "Han egiten dugu-eta lan gehien".

"Dekorazioak garrantzia du, baina batez ere funtzionaltasunari erreparatu behar diogu", azpimarratu du. Horren harira, paretetako koloreak jartzeko adituen aholkuak jarraitu behar dira.



Etxeko guneak girotzeko aukera ona dira ezarkiak. GOIENKARIA



Sukaldeak argi intentsitate handia behar du. GOIENKARIA



Estilo modernoak goraka doaz. GOIENKARIA



Funtzionaltasuna ere kontuan hartu behar da. GOIENKARIA

Gal ezazu ordubete eta egun guztia pasako duzu bere bila.

Richard Wathely



www.bastidasukaldeak.com

Minutu bat bera ere galdu gabe, gaur egungo sukalde berritzaileenak zure etxeko beharretara egokituta aurkitu nahi badituzu. **Zatoz Bastida Sukaldeak-era.**

Hitzordua eskatzeko aukera eskeintzen dizugu, denbora aurrez dezazun. **8:45etik - 20:30era arteko ordutegi jarraia** benetan axola zaizkizun gauzetarako denbora izan dezazun.

Hitzorduetarako tfnoak.:

azpeitia 943 150 510
zarautz 943 894 999
bergara 943 767 058


bastidasukaldeak

■ PARETAK NOLA JANTZI?

Kolore eta paper biziak

OIHANA ELORTZA

Gero eta gehiagok jartzen dute papera etxebizitzetako paretetan. Baina pintura da nagusi oraindik. Biak nahastea da hirugarren aukera.

Etxebizitzako paretak janzteko bi galdera sortzen dira bata bestearen segidan: papera jarri ala pintatu da lehenengoa eta zein

kolore aukeratu da bigarrena. Lehenengo galderari papera eta pintura biak nahastuta ere erantzun daiteke. Etxebizitzako edozein txokotan egin daiteke hori, erraz garbitzen diren paperak ere badaude-eta.

KOLORE ETA PAPER BIZIAK

Papera gero eta gehiago saltzen da. 60ko hamarkadako moda bueltatu egin da eta loredun paperak, estanpatuak, daude orain modan.

Gela handia bada, ez da komeni paretak guztietan paper hori jantzea, estresagarria gerta daiteke-eta. Berdin gertatzen da kolore indartsuekin ere. Orain arte kolo-

re neutroak nagusitu dira, baina orain kolore biziak erabiltzen dira eta hemendik gutxira beltza eta zuria ikusiko dugu toki askotan. Kolore horiek komeni da erabiltzea gutxien begiratuko ditugun paretetan; adibidez, telebista aurreko paretan edo oheburua dagoen horman, edo koadroekin edo armariekin tapatuta dauden paretetan. Gelako beste hormak kolore apalagoan margotuko ditugu,

baina kolore bizi horrekin bat datorren kolore baten, hori bai.

NORTASUNAREN KOLOREAK


Edozein kolore doa ondo edozein altzarirekin. Horregatik, nortasunaren araberrako koloreak aukeratu behar dira norbera bere etxean gustura egoteko. Adibidez: melokotoi koloreak erosotasuna islatzen du eta kolore biziak aproposak dira bakarrik gustura bizi den pertsona liberal batendako.

Altzariek baino, nortasunak aukeratzeko dituzten koloreak



60KO HAMARKADAKO LOREDUN PAPERAK

Bueltan datoz 60ko hamarkadan modan zeuden loredun paperak. Horrelako paperaz tapatzen zituzten garai hartan etxeetako logelak, egongelak eta pasilloak. Orain berriz daude modan horrelako paperak: kolore biziko estanpatu handiak etxeko gela garrantzitsuenetan.



XIMURRAK ETA ALDI BEREAN LISOAK

Papera modan dago, eta, loredunaz gain, lisoak ere jartzen dituzte. Material askotarikoak dira paper horiek, hala nola seta, kanabera, rafia, banbu eta landareetatik ateratakoak. Behin paretan jarrita, ximurrak daudela dirudite batzuk, edo harrizkoak direla beste batzuk.

grupo amuebladora
mondragonesa

DESKONTUAK %30 ARTE

Banataile ofiziala:

Zigarrola 1, 6. pabilioia

Tel.: 943 77 14 92

www.grupo-aeme.com - grupoam@grupo-aeme.com

■ PARETAK NOLA JANTZI?

Kolore eta paper biziak

OIHANA ELORTZA

Gero eta gehiagok jartzen dute papera etxebizitzetako paretetan. Baina pintura da nagusi oraindik. Biak nahastea da hirugarren aukera.

Etxebizitzako paretak janzteko bi galdera sortzen dira bata bestearen segidan: papera jarri ala pintatu da lehenengoa eta zein

kolore aukeratu da bigarrena. Lehenengo galderari papera eta pintura biak nahastuta ere erantzun daiteke. Etxebizitzako edozein txokotan egin daiteke hori, erraz garbitzen diren paperak ere badaude-eta.

KOLORE ETA PAPER BIZIAK

Papera gero eta gehiago saltzen da. 60ko hamarkadako moda bueltatu egin da eta loredun paperak, estanpatuak, daude orain modan.

Gela handia bada, ez da komeni paretak guztietan paper hori jartzeari, estresagarria gerta daiteke-eta. Berdin gertatzen da kolore indartsuekin ere. Orain arte kolo-

re neutroak nagusitu dira, baina orain kolore biziak erabiltzen dira eta hemendik gutxira beltza eta zuria ikusiko dugu toki askotan. Kolore horiek komeni da erabiltzea gutxien begiratuko ditugun paretetan; adibidez, telebista aurreko paretan edo oheburua dagoen horman, edo koadroekin edo armariekin tapatuta dauden paretetan. Gelako beste hormak kolore apalagoan margotuko ditugu,

baina kolore bizi horrekin bat datorren kolore baten, hori bai.

NORTASUNAREN KOLOREAK


Edozein kolore doa ondo edozein altzarirekin. Horregatik, nortasunaren araberrako koloreak aukeratu behar dira norbera bere etxean gustura egoteko. Adibidez: melokotoi koloreak erosotasuna islatzen du eta kolore biziak aproposak dira bakarrik gustura bizi den pertsona liberal batendako.

Altzariek baino, nortasunak aukeratzeko dituzten koloreak



60KO HAMARKADAKO LOREDUN PAPERAK

Bueltan datoz 60ko hamarkadan modan zeuden loredun paperak. Horrelako paperak tapatzen zituzten garai hartan etxeetako logelak, egongelak eta pasilloak. Orain berriz daude modan horrelako paperak: kolore biziko estanpatu handiak etxeko gela garrantzitsuenetan.



XIMURRAK ETA ALDI BEREAN LISOAK

Papera modan dago, eta, loredunaz gain, lisoak ere jartzen dituzte. Material askotarikoak dira paper horiek, hala nola seta, kanabera, rafia, banbu eta landareetatik ateratakoak. Behin paretan jarrita, ximurra daudela dirudite batzuk, edo harrizkoak direla beste batzuk.

grupo amuebladora mondragonesa

DESKONTUAK %30 ARTE

Banataile ofiziala:

- FLEX
- TEMPUR
- SWISSFLEX
- BULTEX
- ipardo
- SWISS confort
- Sealy

koltxoi leku

Zigarrola 1, 6. pabilioia
Tel.: 943 77 14 92

www.grupo-aeme.com - grupoam@grupo-aeme.com



iKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
BAINUAK: ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42



UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



- Arotz lanak orokorrean
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak



ALTZARI DENDA
 Ikerleku zeharbidea • BERGARA
 Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
 San Juan 1A • BERGARA
 Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

SAN MARTIN ESKOLAN ATEAK ZABALIK

Otsailaren 24an 16:30etik 19:30era



San Martin Agirre
herri eskola



EGITARAUUA

ARRATSALDEAN ZEHAR

- Tailerrak
- Erakusketak
- Informatika gela
- Irrati saioa
- Zozketak, Opariak

17:30etan:

- Aretoan: BIHAR txotxongilo taldearekin
"Kli, kla, birzikla"
- 17:15etatik 19:15etara
Eskolako patioan: Disko Festa

Beste egun batean auzoetako
gelak ezagutzea nahi
badituzue deitu
telefonoz eskolara

SAN MARTIN ESKOLA

Boni Laskurain 25 Tel: 943 76 21 47
www.goieskola.net/sanmartinagirreeskola



MATRIKULAZIO EPEA

OTSAILAREN 26tik MARTXOAREN 9ra



IPINTZA INSTITUTUA

Boni Laskurain 19 Tel: 943 76 31 42
www.goieskola.net/ipintzabhi

IPINTZA INSTITUTUAN BILERA INFORMATIBOA

DBHko ikasleei (12-16 urte) eta gurasoei zuzenduta

Otsailaren 28an 18:30ean

Bilera amaitu ondoren ikastetxea bisitatzera
gonbidatuta zaudete



SAN MARTIN
BERGARAKO

IPINTZA

M. ALTUNA
IKASTETXE


HHE-EPA



PUBLIKOAK

• Pedagogia eraikitzailea • Ortua • Naturan murgilduta • Txokoak • Teknologia berriak • Ingelesa, psikomotrizitate eta musika irakasle espezialis-

aizta eta jangela zerbitzua (baita eskolako jalegunean ere) • Proiektu pedagogiko propioa



baudu irakatsi zion bostean; horrela, aldiz, notak eta eskalak (musika, ikasteko programa zue eta).
Eta 17:00ak inguruan, haurrekin jarraitu dute (alboan, hosto-erak, liburutegian, merienda eta folorean).
Gurasoak prestatuak agortu goren bitartean. Heduak kontu-kontu edo lauean elkarrekin ordua initsi aite.
Orduan bai broiak! Nori ez du elkeran joan nahi. (Egia uau gurassoi ere kostatu zaigu alde egitea).
Hiru go batean kontatuko ditut familiak, lanak eta... eskolara ateko ordua da eta gure autorkia kagu.
Lurru laudi-laudi bat demontat. alaitu bisita bat zor diguzuela.
Angiozar 2007/02/23
egia dute.

Aipa, Maite!
Azkenean aurkitu dit zuri paketeak idazteko unekoa. Unua zer moduz eskolan galditu zenidau aurkezu... bada, ueta jasokun nahi dute ikasturtea, kalabaziak tipulak eta abarren antean. Gurassok ere lehenengo "funtak" jaso ditugu: jangela eta zaintra zerbitzua markatu da.
Haurrak ortuan biralaxe ibili gara qu ex: izerditau blai baiua harro-harro egindako lanarekin. Quik autolatu duguz, quik zehatu dugu egitegia: eskolako jai-egunetan ere zabalik. Auzo lagunek elkarrekin du jana, eta bi lagunek zaintru eta lagunerekin d'ardute.
Irakasleak? Unuek asko maite dituzte, ez dago zalantzarik. Beraielkin konfidantza-maila polita lotu dute eta lasai asko joan naitela berriengana.

...kin, kokotau, herrean, orduean, aurrean edo aurrean zehar "ilerketak" egiten. Autorkia, zurbakiak eta letrak ne bai, musika... Aurreko batean "ou my mummy?" dotorez ematu zidan Tomia que marimatrakak! Zur eta laga minduen.
Aciu ezberdineko unuek batera elken direla badakizu. Bada, haur-uria da, buntan, elkarrengandik zibat ikastu dituen. Aho buntan ilusi nituen bi, pantaila baten aurrean, bata programaren aurretik nola zara.



eta jangela zerbitzua (baita eskolako **Angiozarko Eskola • 943 761 619 • Gure neurrira egindako eskola** jaiegunean ere) • Proiektu propioa



2007-2008 ikasturtea

izena ematea: **otsailaren 26tik martxoak 9ra**

Ordutegia: 09:00etik 11:00etara eta 16:00etatik 18:00etara



TALDE EGOKITUAU

- 0 eta 3 urtera arteko haurrak talde egokituetan

ORDUTEGI ZABALA

- 07:30etik 18:00etara
- Ordutegia moldatzeko aukera

JANGELA ZERBITZUAU

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokituako dieta

EGUTEGI ZABALA

- Egutegi eskolarrak gain, Gabonetan, Pazko astean eta Uztaila zabalik.

LOGELA



**Txiki txikitatik
jolasten heziz**

BELORRIETA 8an GAUDE. 943 77 03 77

tak • Behar bereziak dituzten umeentzat arreta espezializatua • Harreman hurbilak • Zaintz

KOPURUA

2

KILOMETRO

Aretxabaletan dagoen Basabe baserri ingurutik Urkulu urtegiraino bi kilometro daude errepidetik joanez gero. Baina errepidea estua da, eta asko Agarre baserri albotik joaten dira Otala Zelaira.

rua, hain zuzen. "Eta handik Urkuluraino iristeko hainbat aukera daude", adierazi digute Hirigintza Sailean.

SEGURTASUNA OINEZKOENDAKO
Helburu bi lortu gura ditu Udalak: batetik, Urkulura hurreratzeko direnak haraino autoarekin joan ez daitezkeen aparkalekuen erabilerrari bultzada ematea, eta bestetik, oinezkoen segurtasuna bermatzea. Izan ere, herritar asko hurreratzeko dira urtegiraino oinez errepidetik, eta tarte arriskutsu asko daude: bihur-gune itxiak, arekak, estugunak... Bada, hori guztia konponduko du egingo duten paseoak.

Hala, Aretxabaletatik Urkulura joateko herritarrek erabiltzen duten bigarren ibilbidea indartuko du Udalak. Bainuetxe-ko poligonoan dagoen bidegorritik gora da bat, eta honakoa bestea: Aretxabaleta, Basabe baserria, Agarre baserria, Otala Zelai, Otalora jauregia, Aozaratza auzoa eta Urkulu. Bidegorria baino zaharragoa da azken hori, baina egingo duten paseoarekin lasaitasun osoz ibili ahal izango dira oinezkoak Otala Zelaitik Urkulura bitartean.

400 MILA EUROKO AURREKONTUA
Iazko aurrekontuetan 120 mila euroko partida sartu zuten ibilbidea egiteko, baina aurten 400 milaraino igo dute, lanekin hasteko asmoa daukatelako. Hori horrela, udal aurrekontuan dagoen inbertsio garrantzitsuenetakoa da lursailak erostea, kirol etxe berriko proiektuarekin batera; betiere, saneamendu lanak eta kulturarako eraikinaren horniketa alboratu izan. Aurreikuspena egin arren, baina, lanak noiz hasiko dituzten ez dute zehaztu Hirigintza Sailean; lehenengo, ibilbidea pasatuko den zelai eta bide bazterretako lurra erosi behar dizkie Udalak lurren jabeei.



IBILBIDEA Otalora jauregitik Urkuluraino, errepidearen eskumako aldetik egingo dute oinezkoendako bidea, eta 2,50 metro zabal izango da.

M.A.

OINEZKOENDAKO IBILBIDEA > UDAL AURREKONTUAN SARTUTAKO PROIEKTUA

Ibilbidea oinezkoendako Otala Zelaitik Urkuluraino

Bi zati izango ditu: Otala Zelaitik Otalora jauregira eta handik Urkulu urtegirira

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA
Hilabete hasieran onartu zuten udal aurrekontuan dago jasota Otalora jauregitik Urkulu urtegiraino ibilbidea egitea. Edoze-lan ere, ez dute zehaztu noiz hasiko dituzten lanak.

baserriaren beste aldean. 2,50 metro zabal izango du oinezkoendako bidea, Hirigintza Sailean adierazi digutenez: "Errepide albotik joango da, arekatik hiru

metrorra gutxi gorabehera, eta zelaiarekin bat eginda".

Aipatutako paseoak Otala Zelai eta Aozaratza auzoko erdigu-nea elkartuko ditu, eliza ingu-

Aparkalekuen erabilera indartu eta oinezkoen segurtasuna bermatu gura dute

BI TARTE DITUEN IBILBIDEA
Proiektuak bi zati izango ditu. Lehenengo zatia Otala Zelai izena daukan zelaitik Otala jauregiraino joango da, eta ibilbidea errepidearen ezkerreko aldean egingo dute -Aretxabaleta-Urkulu noranzkon-. Bigarren zatia Otalora jauregitik Urkuluraino-koa da, eta errepidearen eskumako aldean egingo dute, Sargarai

KONTUAN HARTZEKO

Urkulura hurreratzeko, laster hiru ibilbide

Aretxabaletatik Urkulu urtegirira joateko bi ibilbide ditugu: Bainuetxe-ko bidegorritik gora bat eta Basabe baserri albotik Otala Zelaira beste bat, handik urtegirira jotzeko. Bada, azken hori indartuko du Udalak aurreikusitako proiektuarekin; izan ere, Otala Zelaitik Urkuluraino gaur egun ez dago oinezkoen egokitutako biderik eta errepidean era arriskutsuan ibili behar dute. Baina beste bat ere egingo du laster: Arkarazora bidean dagoen Iturriondo paretetik Arkarazora, eta handik Areantza auzora Urkulun bukatzeko. Iturriondo txukuntzerakoan izango da hori.



EGUZZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

1979urtetik zure zerbitzura

EUSKARA > 'BAI ESKOLAK EUSKALDUNTZEARI!'

Hainbat herritarrek babesa eman diote 'Bai eskolak euskalduntzeari!'

Eskolak Euskaldundu herri ekimenak ekitaldia egingo du martxoaren 10ean, Donostian, eta herritar guztiei egin die joateko deia

MIRARI ALTUBE > ARETXABAETA

Eskolak Euskaldundu herri ekimenak joan zen astean egin ziren aretxabaletarrei deialdia: Aratuste-martitzenean argazkia ateratzea *Bai eskolak euskalduntzeari!* babesa emateko. Euria goian behean zela elkartu ziren hainbat herritar -ume zein heldu- Herriko Plazan, eta pankarta eskuan hartuta egin zuten aldarrikapena.

HERRIAN BI ERAGILE

Euskal Herriko 17 eragile daude *Bai eskolak euskalduntzeari!* kanpainari babesa ematen, eta Aretxabaletan eragile horietako bi ditugu: Euskal Herriak Bere Eskola eta Euskal Herriaren Euskaraz. Aiora Filarmendi da kanpainaren arduradunetako bat herrian: "Herritarrok erakutsi behar diogu administrazioari ikasle guztiek dutela eskolaren bitartez euskalduntze-

ARGAZKIA Ume, guraso eta herritarrak martitzenean, Herriko Plazan, *Bai eskolak euskalduntzeari!* pankartarekin.

M.A.

ko eskubidea, eta orain arteko politikek ez dutela bermatu". Eta kanpainak dio euskararen ezagutza oso-osorik bermatuko duen aldaketarako garaia dela.

MARTXOAREN 10EAN DONOSTIARA Gurean bezala beste herri askotan ere eskolak euskalduntzearen alde dabilta lanean. Eta martxoaren 10ean, Donostiako Antiguako fron-

toian ekitaldia egingo dute: "Herritar guztiei egiten diegu dei joan daitezen, jende asko elkartu behar dugulako administrazioari eskerra egiteko", dio Filarmendik.



M.A.

500 umetik gora Herriko Plazan mozorrotuta

Sorginak, joaldunak, iratxoak, lamiak, artzainak eta beste pertsonaia asko agertu ziren Aratuste-martitzen goizean Herriko Plazan. Pausoka, Kurtzebarri eta Arizmendi ikastetxeetako 2 eta 12 urte arteko neska-mutikoak ziren, 500 baino gehiago. Txikienek eta 5 urtekoek egin zuten dantzan, azken horiek txino-dantza, eta gero txarangarekin kalejiran joan ziren. Arratsaldean jarraitu egin zuen jai giroak, eta umore onez egin zioten aurre euriari ume eta gaztetxoek.

> EUSKARA

Loramendi EEk bazkideen eta berriak jaso gura dituztenen helbide elektronikoak gura ditu

Loramendi EEk bazkideen eta elkarteko berriak jasotzeko interesa azaldutakoan helbideak galdu ditu arazo tekniko batzuegatik. Lehengo sarea sortu gura dute berriro, eta horretarako, informazioa jaso gura dutenei eskatzen diete Loramendi EEren helbidera mezua bidal dezatela eta helbide elektronikoa agertu.

> GAZTETXOAK

Ikastaroak, mahai jokoak, eskulanak eta beste kontu batzuk izango dituzte ludotekan

Domeka arratsaldeetan 8 eta 12 urte artekoak batzen dira ludotekan, eta aste bukaera honetan eskujoko (malabar) ikastaroa dute. Martxoaren 25ean bukatuko da Udalak eskainitako zerbitzua, baina bitartean izango dute zeregina: hilaren 4an mahai joko txapelketa; 11n, eskulanak; 18an, film emanaldia eta 25ean, bukaera festa.

> KIROLA

Martxoa eta maiatza artean kirol etxeko kantxa zeinek erabili zozketatuko dute martitzenean

Datorren martitzenean, otsailak 27, kirol etxeko kantxa-frontoia-zen zozketa egingo dute. Datozen hiru hilabeteetan, martxotik maiatzera bitartean, kantxa-frontoia zeinek erabili eta zein ordutan zehaztuko dute zozketaren bitartez. Kirol etxean bertan izango da zozketa hori, 18:00etan.

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea ARETXABAETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 606 665 448

Jou Diaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABAETA

KIROLA

Easo izango du aurrez aurre Arlutz xake taldeak

Fomento Cultural taldeari 3-1 irabazi eta bosgarren postuan dago

M.A. > ARETXABALETA

Denboraldi gogorra izango zela uste zuten Arlutz xake taldeko kideek, baina uste baino samurrago dabilta puntuak eskuratzen. Joan zen astean Errenteriako Fomento Cultural izan zuten aurrez aurre, eta partida garrantzitsua izan zen, sailkapenean berdinduta zudelako. "Bagenekien jokatzera etorriko ziren jokalarien arabera izango zela partida. Onak etorri ziren, baina zortea izan genuen eta 3-1 irabazi genien", azaldu du Aitor Alcaide kideak.

BOSGARREN POSTUAN

Hori horrela, sailkapeneko bosgarren postuan daude aretxabaletarrak. Denboraldia bukatzeko hiru partida geratzen zaizkie, eta bihar, zapatua, Donostiara joango dira Easo taldearekin lehiatzera: "Ez da talde txarra, baina jokalaria onenek ez dute jokatzen, eta gaizki dabil. Sailkapeneko azken postuan dago; hortaz, ez genuke arazorik izan behar puntuak eskuratzeko", dio Alcaidek.

Datorren astean, ostera, Sestao talde indartsua hurre-ratuko da Aretxabaletara: "Jokalaria benetan onak ditu, tartean Kanadako bat; horrenbestez, galtzea egokitu-tuko zaigu...", esan digu Alcaidek. Baina aurretik batutako puntuei esker lasai ibiltzeko moduan daude orain.

> PILOTA

Partidu bi jokatuko dituzte gaur, etxean, 19:00etan hasita

Udaberri pilota txapelketa aurrera doa, eta laster bukatuko dute liga eran jokatzen dabilta lehen fasea. Gaur, egubakoitza, partidu bi jokatuko dituzte Iturrigorri frontoian, 19:00etan hasita. Perez de Labeaga eta Uribarren kadeteek Lazkaoko bikote bat izango dute aurrez aurre; eta Lasagabaster eta Altzola nagusiek, errenteriarrak.

Gainerakoek ere gaur jokatuko dute, baina kanpoan. Akizu eta Gardoki lehen mailako kadeteek Oiartzunen izango dute partidua, 21:00etan, eta Uriarte eta Oion nagusiek Azpeitian, 19:00etan.

ELKARTASUNA > SAHARARI LAGUNTZA

400 kilo janari eta mila euro Saharara

Herrian egindako deialdiei esker 400 kilo jaki jaso zituzten eta abenduaren 23an egindako festan mila euro; guztiak Tinduferan bidean dira

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Joan zen zapatuan, hilak 17, atara zen Donostiatik Saharara Euskal Herriko karabana. Aljerian dauden Tindufeko kanpamenduetara joan dira azken hilabeteotan Euskal Herrian jasotako jakiak eta dirua. Aretxabaletan ere jaso zituzten.

ESKERRAK ARETXABALETARREI

Ikastetxeetan, hainbat dendatan eta abenduaren 23an egindako festan jaso zituzten jakiak eta dirua. Iesbaa elkarteak kideek jasotakoaren berri eman gura izan dute: 400 kilo jaki -tartean, dilistak (lentejak) eta azukrea- eta



SAHARA Herritar bat, Sahararen aldeko festan, argibide eske.

IÑIGO TRUEBA

abenduan egindako festan 1.000 euro. Iesbaako kide Olaia Sagredok eskerrak eman gura dizkie aretxabaletarrei: "Eskerrik asko, festaren antolakuntzan lagundu

zeniguten guztioi eta parte hartu zenutenoi. Era berean, eskerrik asko, Udalari, Urbaltz elkarteari eta laguntzera hurreratu zinenoi: Ramon, Joseba, Leire...".

Torradak eta peiak gertatzen Barriketan-eko partaideak

Eguen-gizen, Eguen-zuri, Urdelardero... ospatzeko, Barriketan egitasmoko kideek eta euskaltegi-ko ikasle-irakasleek peiak eta torrada egin zituzten Eguzki Alde elkartean. Esther sukaldari trebearen aginduak betez prestatu zuten oreka eta ogia, gero peiak eta torrada egiteko. Ondoren, zela ez, dastatzeko aukera izan zuten. Zenbat geratu ziren ikusita, ederrak atera zirela esan behar!



BARRIKETAN

bere ustez



Aitor Agiriano

Bost zapata eta bostak zulatuta

Eguraldia aldrebes samar badabil ere beste gauza askok lehen-go lepotik segitzen dutela ez dago dudarik. Komunikabideetan azaldu zitzaigun irudi gordin batek areagotu dit tristura. Oraingoan, estatu espainiarraren utzikeriaren eredu, De Juana dugu ikusgai. Ez da lehenengoa zoritxarrez. Asko dira. Gehiegi. Baina izango al da azkena behingoz.

Legeak bete behar ei dira. Bai, baina itxura batean batzuek bakarrik bete behar

"Deigarria da nola ezkutatzen den informazioa boterearen gerizpean"

dituzte. Arrazoirik ez zaio falta, argia eta garbia izan arren aztikeriak eta maltzurkeriak ilunduko ez duen idatzitako legerik ez dagoela esan zuenari. Deigarria da nola ezkutatzen, nahasten eta korapilatzen den informazioa boterearen gerizpean. Akats bertsua da hala ere, haiek esandakoa itsu-itsuan sinestea eta defendatzea. Justizia amarauna bezalakoa dela datorkit gogora. Halaxe dio eta txinatar esaera zahar batek. Euliak harrapatzen ditu, baina txoriak hautsi eta pasatu egiten dira.

Inauteriak urtean behin ospatzen ditugu, baina batzuek urte osoa pasatzen dute mozorroa aldean hartuta. Bost zapata, bostak zulatuta.

((112))
SOS DEIAK

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

ONDAREA > 'BUZTINA ETA SUA ESKORIATZAN' PROIEKTUAREN ERAKUSKETA

Udalaren zeramika bilduma eta Zubiate labearen proiektua ikusgai jarri dituzte

Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute zeramikaren bilduma eta proiektuaren gaineko erakusketa Ibarraundin, 18:00etan; martxoaren 11ra arte egongo da, goizez eta arratsaldez

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Gaurtik martxoaren 11 bitartean zeramikaren gaineko erakusketa interesgarria izango da Ibarraundi museoko beheko solairuan. Leintz aretoan jarri dute, hain justu ere.

Erakusketa horrek *Buztina eta sua Eskoriatzan* izena dauka, eta helburua da Ibarraundik eskuratutako euskal zeramikaren bilduma herritarrei erakustea. Horrez gain, Ibarraundiko arduradunek ezagutzera eman gura dute Zubiate labearen inguruan egin gura duten museo proiektua.

MUSEO INTERAKTIBOA

2005ean eskuratu zuen Zubiate labea Udalak. XIX. mendekoa da, eta Jaurlearitzak ondare arkeologiko izendatu zuen. Ibarraundiren eta, bide batez, Udalaren asmoa da labe hori kontserbatzea eta haren inguruan museo interaktiboa sortzea.

Gaur egun labe hori etxebizitza batzuen azpian kokatuta dago. Horregatik, Udalak etxebizitza horren etxabe gehienak eskuratu ditu. Hala, asmoa da alboko lokaletan zeramika bilduma batzea eta zeramika tailerak jartzea, besteak beste.

LAGUNTZAK BEHAR DITU

Hori guztia egiteko Udalak laguntzak behar ditu. Orain arte Jaurlearitzako Ondare Sailak laguntzaren bat eman die.



EUSKAL ZERAMIKA Museoaren proiektua azaltzeaz gain, euskal zeramikako hainbat pieza jarriko dituzte ikusgai erakusketan.

IKER BARANDIARAN

Horrez gainera, Udalak beste erakunde batzuei ere babesa eskatu die.

PROIEKTUA IDAZTEN DABILITZA

Une honetan, Arantzadi, Nonarkitektura eta Luberrri enpresak elkarlanean zeramikaren gaineko museo horren proiektua idazten dabilta. Horren barruan dago, besteak beste, labea kontserbatzea eta berreskuratzea. Izan ere, une honetan labea ez dago oso ondo.

240 PIEZATAKO BILDUMA

Udalak labea eskuratu ostean, Ibarraundiko arduradunek hasi ziren pentsatzen zeramikaren gaineko gune berezia sortzea. Hortaz, euskal zeramikaren bilduma eskuratzeko aukera izan zutenean, prezioa negoziatzeari

ekin zioten. Hala, 2005aren erdialdean, Bittoriano Larrañaga bildumazale bergararrari zeramika bilduma erosi zioten.

Bilduma hori 240 piezak osatzen dute, eta katalogazio lana egin duen Isabel Aramendia historialariaren esanetan, "Euskal Herriko usadioak irudikatzen

oso aproposa da, euskaldunok eguneroko bizitzan zeramika piezei eman dizkiegun erabileren bitartez zelako bizimodua egin dugun aditzera ematen delako".

Edozelan ere, Ibarraundin 60 pieza jarri dituzte, bilduma guztiatik adierazgarrienak, hain zuzen ere.

Bestalde, zeramika piezez gainera, hainbat panelen bitartez, Zubiate labearen gaineko azalpenak eta labearen inguruan egin gura duten proiektua ere deskribatuko dute.

"Garrantzitsua da herritarrek informazio hori jasotzea", azaldu ziguten arduradunek.

HIRU GUNETAN BANATUTAKO MUSEOA

Zubiate labea, interpretaziogunea eta lantegi didaktikoa

Zubiate labearen inguruan jarriko duten museo interaktiboa hiru gune berezitan banatzeko asmoa dute Ibarraundiko arduradunek eta proiektua egiten dabilzan hiru enpresek.

Interpretaziogunea labearen inguruan jarriko dute. Lehengaitik bukatutako ekoizpena dagoen bidea azalduko dute. Lurra, ura, haizea eta sua izango dira bide horren gidariak.

Erakusteko gunea, berriz, labearen ondoko espazioan kokatuko dute, eta buztzingintza euskal mundu tradizionalan betetzen zuen egitekoaz jardungo dute.

Hirugarren gunea lantegi didaktikoa izango da. Hala, museoak sormena ere bultzatuko du, eta bisitariak, ume zein helduek, buztinarekin lanak egin ahal izango dituzte.

Zeramika erakusketa: Buztina eta sua Eskoriatzan

- **Inaugurazioa:** Otsailaren 23an, arratsaldeko 18:00etan.
- **Tokia:** IBARRAUNDI jauregian.
- **Egunak:** Otsailaren 23tik martxoaren 11ra.
- **Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera 9:00-14:00 eta 17:00-19:00
Larunbata: 17:00-20:00
Igandea: 12:00-14:00 eta 17:00-20:00



Intxaurtxueta kalea z/g,
Eskoriatza.
Telf. 943715453

OSOKO BILKURA > ETXEBIZITZA TASATUAK ETA AZPIEGITURA ERRALDOIAK

Etxebizitza tasatuen kalifikazioa, AHT eta AP-1 izan ziren aztergai

Udalaren helburua zen Arbiñosteko etxebizitzetzi behin betiko tasatu kalifikazioa ematea

Onbide.org elkarteak eta Elizateak taldeak AHT eta autobidea jarri zituzten berbagai

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Atzo, eguena, osoko bilkura egin zuten. Hain zuzen ere, udalbatzararak gai bakarria aurkeztu zuen, baina horrez gain beste bi mozio aurkeztu zituzten.

Gai nagusia izan zen Santa Marina edo Arbiñoste inguruko etxebizitza tasatuei behin betiko kalifikazioa ematea. 31 dira han Udalak egin gura dituen etxebizitza tasatuak, eta asmoa zen

etxebizitza promozio hori lurzoruaren lege berrira egokitzea. Hala ere, ez dugu jakiterik izan erabakia zertan gelditu zen.

Onarpenak aurrera egingo balu, 31 etxebizitza horiek beti izango lukete tasatuen kalifikazioa; eta 10 urte igaro ondoren, ezingo liriteke merkatu askean saldu. Are gehiago, inork etxebizitza saldu gurako balu, salneurriari KPIren pareko igoera baka-

rrik ezarri ahal izango liokete. Horrez gain, erosleek etxebizitza eskuratzeko derrigorrezkoak diren baldintza guztiak bete beharko lituzkete.

ONARTUEN ZERRENDA MARTXOAN
Etxebide dabil promozio horretarako izenak jasotzen eta tramiteak egiten. Horren harira, martxoaren bigarren erdialdean emango dituzte aditzera onartuen eta ez onartuen zerrendak. Zozketa, berriz, apiril bukaeran egingo dute.

AHT-REN GAINEKO MOZIOA
Bestalde, Onbide.org elkarteak Abiadura Handiko Trenaren gaineko mozioa aurkeztu zuen. Azpiegiturak eragindako kalte-

ak txikitzeko lan egiten du elkarrekin, eta arduratuta daude AHT-ren proiektuarekin. Elkarrekin esanetan, ADIFek (Trenbideen Azpiegituren Administrazioa) jakinarazi du Gasteiz eta Bilbo lotuko dituen Gipuzkoako zati bat esleituta dutela.

Onbide.org elkarteak uste du administrazioak ez diela "Udalari ezta herritarrei beharrezko informaziorik ematen". Eta, hori dela eta, Udalari eskatu zion "proiektuaren gaineko informazio guztia exijitzeko".

Bestalde, Elizateak taldeak mozio bat aurkeztu zuen autobidearen gainean. AP-1 proiektua onartu zenetik aurkeztutako alegazio guztien erantzunaren zain daudela adierazi zuten.

DANTZA

Munduko dantzak ikasteko aukera

Zapatuan egingo dute, kiroldegian

I.B. > ESKORIATZA

Bihar, zapatua, munduko dantzen gaineko tailer-ikastaroa egingo dute kiroldegian. Hilero zapatu baten elkartzen dira, munduko hainbat lekutako dantzak ikasi eta praktikatzeko.

ARRATSALDEKO PLANA

Amuska emakumezkoen elkarteak antolatu du ikastaroa eta oso harrera ona izan du orain arte. Elkarteko kideen esanetan, "arratsalde dibertigarria igaro gura duenaren plan aproposa da zapatukoa".

Horrez gain, Amuskakoei nabarmendu dute gizonzkoek eta emakumezkoek, bieki zuzenduta dagoela. Are gehiago, gizonen esku hartzeko gonbidapen berezia egin diete.

Pilotalekuko gimnasioan elkartuko dira, eta saioa hiru ataletan banatuko dute: 16:30etik 17:30era gorputza arindu eta askatzeko ariketak egingo dituzte; 17:30etik 18:30era girotzen joateko dantza samurrak egingo dituzte; eta 18:30etik 20:00etara dantza landuagoak egingo dituzte. Esku hartzeko 5 euro ordaindu beharko dituzte.

JAIK > LUIS EZEIZAN KULTURA ASTEA

Juli Leza andereñoa zena omenduko dute Luis Ezeizako kultura astearen barruan

Astelehenetik egubakoitzera bitartean Luis Ezeiza eskolako kultura astea ospatuko dute; batez ere umeendako ekintzak egingo dituzte eskolako orduetan

I.B. > ESKORIATZA

Luis Ezeiza eskolak guztia prest dauka aurtengo kultura astea ospatzeko. Hilaren 26tik (astelehena) martxoaren 2ra (egubakoitz) egingo dute. Aurtengo kultura aste eguenean, urtarrian hil zen Juli Leza andereñoa omendu egingo dute. Leza



UMEAK PROTAGONISTA Umeendako dago eginda kultura astea.

I.B.

joan den ikasturtean erretiratu zen, eta hura izan zen eskolako bibliotekaren bultzatzaile nagusienetakoa. Hain zuzen, urtero

antolatzen dute kultura astea otsail aldera: "Helburua da umeendako aste desberdin bat egitea. Izan ere, ekintza gehienak

eskola orduetan egiten ditugu", azaldu ziguten eskolako ardura-dunek.

'BULLYING'-A BEREIZTU

Aurreko urteetan gurasoendako hainbat berbaldi egin dituzte, baina antolatzaileak konturatu dira horiek ez dutela harrera handirik izaten. Horregatik, aurtengoa berbaldi bakarra egingo dute: "Gurasoak noizbehinka etortzen dira esaten euren seme-alabek bullying-a sufritzen dutela". Hori argitzeko asmoz, *Berdinen arteko gatazka guztiak bullying-a dira?* leloa duen berbaldia egingo dute eguaztenean.

Kultura aste bestelako ekintzak ikasleendako izango dira, batez ere: birziklapen, genero eta eskulan tailerrak; ipuin eta txiste kontaketa; zuhaitz landaketa; antzezlanak, eta beste.

**SAION DE BELLEZA
OASUNA ETA EDERGINTZA
DORLETA**

Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

LENIZ
ESKORIATZA



- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Margaret Büllen > Eusko Ikaskuntzako kidea

"Guztiek nahi dute alardearekin jarraitzea, baina aldaketak behar dituela uste dute"

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Mairuaren Alardearen Elkartean eta Udalaren ekimenez, alardearen azterketa soziokulturala egiten dihardu Eusko Ikaskuntzak. Azkeneko hilabeteotan hainbat herritar elkarrizketatu ditu, alardearen gainean, Margaret Büllenek.

Zein herritar elkarrizketatu dituzue?

Antzuolako elkarteetako kideei egin dizkiegu elkarrizketak. Antzuolako bizimodu soziala islatzen duten elkarten irizkiak jasotzea izan da gure asmoa. Hogei bat elkartetako kideekin egon gara. Batetik, Mairuaren Alardean zuzenean parte hartzen duten elkarteetakoekin: Oinarin dantza taldea, Eperra elkarte, txistulari taldea eta abesbatza. Bestalde, beste hainbat elkartekide elkarrizketatu ditugu, alardearekin zuzenean lotuta ez egon arren, badaukatelako zerikusirik herriko bizimodu sozialarekin: Arrola Mendizale elkarte, Olalde pilota elkarte, AKE, gimnasia erritmiko taldea, eskolako irakasleak, Pausokako arduradunak, Idolaz euskara elkarte eta Anelkar Elkartasun Taldea. Azkenik, alderdi politikoetako arduradunekin ere berba egin dugu: EA, EAJ, Batasuna, PSE eta Zutik alderdieta-ko ordezkariekin, hain zuzen ere. Asmoa zen ahalik eta zabalena izatea azterketa.

Azterketa soziokulturala egiten diharduzue. Zein da helburua?

Aztertzea herritarrek zela ikusten duten alardea momentu honetan, zerbait aldatu behar den edo ez, aldatzekotan zer aldatu beharko litzatekeen eta zela. Izan ere, Mairuaren Alardearen Elkartean kezka nagusienak dira honakoak: alde batetik, alardean parte hartzeko jende berria behar dela; eta bestetik, alardea zela egokitu gaur egungo gizartearen egoerara.



Margaret Büllen Eusko Ikaskuntzako kidea eta EHUko irakaslea.

GOIENKARIA

"Mairuaren irudiak duinagoa izan behar duela uste dute elkarrizketatu askok"

"Herriaren bizimodu soziala islatzen duten elkarte eta alderdi guztiekin egon gara"

Elkarrizketen gai bakarra alardea izan da?

Jakina, elkarrizketen gai nagusia izan da alardea, baina hori baino haratago joan gara. Alardeak Antzuolaren nortasuna islatzen duen edo ez, zelakoa den Antzuolaren nortasuna, bizimodu soziala... Herriko alor askoren gainean jardun dugu elkarrizketatuekin.

Eta, zela ikusten dute, bada, alardea, elkarrizketatu dituzuen herritarrek?

Oraindik oso goiz da horri erantzuteko; izan ere, elkarrizketa guztiak ondo aztertu behar ditugu orain, analisi sakona egin behar dugu. Dena dela, orokorrean, ondo ikusten dute azterketa soziokultural hau egitea eta hausnarketa sakona egiteko momentu egokia dela uste dute. Bestalde, gehienek ikusten dute aldaketak egin behar direla alardean. Guztiak bat datoz esatean ez dute alardea galtzerik nahi, ez dute alardea ohitura hori desagertzerik nahi. Gainera, alardeak etorkizuna izango badu, aldaketak egin beharra dagoela uste dute.

Zein aldaketa proposatzen dituzte?

Proposatutako aldaketak, gehienbat, mairuaren irudiaren gainekoak dira. Gehienek uste dute haren rola aldatu beharra dagoela. Nolabait esatearren, mairuaren irudiak duinagoa izan behar duela uste dute. Gaurko elkarbizitzara egokitu behar duela alardeak. Hori bai, historiaren edo tradizioaren oinarria galdu gabe.

Zein izango da egingo duzuen hurrengo urratsa?

Esan bezala, orain, behin elkarrizketa guztiak bukatuta, horiek guztiak ondo eta sakon aztertze-ko garaia da. Azterketa horretatik hainbat ondorio eta proposamen aurkeztuko ditugu.

Eta hori guztia maiatzeko mintegiaren gaia izango duzue, ezta?

Halaxe da, bai. Maiatzerako alardearen gaineko hainbat ekimen antolatzen dihardugu, Mairuaren Elkartearrekin eta Antzuolako Udalarekin batera. Alardearen gaineko aste horren barruan, besteak beste, alardearen gaineko mintegia izango dugu. Hantxe, elkarrizketetan landu ditugun gaiak eta herritarren iritzi eta ikuspuntu guztiak aztertuko ditugu.

Ze beste ekimen izango dugu maiatzean?

Berbaldiak, mahai-inguruak... Alardeak egiten dituzten Euskal Herriko hainbat herritako ordezkariak ere etorriko dira eta haien jaien berri emango digute.

LAPURRETAK > ASTEBURUAN BI AHALEGIN IZAN DIRA

Oerlikon enpresan eta Eroskin osten saiatu dira

A.I. > ANTZUOLA

Bi lapurreta ahalegin izan ziren aurreko asteburuan herriko bi enpresatan.

Zapatu gauean, 23:00ak alde- ra, Oerlikon Balzers Elay enpresan sartu ziren. Terrazatik sartu ziren lapurrak; leihoko burdin hesia guztiz kendu eta komunera sartu ziren. Handik, alarmaren sistema duen armairura iritsi eta guztiz apurtu zuten. Enpresako arduradunek adierazi digutenez, telefono

linea gabe geratu zirela ohartu ziren, baina alarmak ez zuen abisurik eman.

Enpresara sartu zirenek, baina, ez zuten ezertxo ere lapurtu.

DOMEKAN, EROSKIN

Domeka gauean, berriz, Eroski Cityn sartzen saiatu ziren, baina ez zuten lortu. Telefono linea moztu zuten eta etxebizitza multzoko bizilagunak telefono barik geratu ziren.

SUTEA > HAIZEAK PINU BAT BOTA ZUEN KABLEEN GAINERA

Uzarraga auzoko pinudi bat erre zen egubakoitzean

A.I. > ANTZUOLA

Egubakoitz arratsaldean, 17:00ak aldera, sutea gertatu zen Uzarraga auzoan, Bidaurre baserriaren inguruetan. Haize bortitza zebilen eta pinu zati bat argindar kableen gainera erori zen. Horrelaxe sortu zen sua. Gainera, argindar mozketak izan zituzten Antzuolako eta Bergarako hainbat herritarrek.

Ertzaintza agertu zen lehen-dabizi. Ondoren, basozaina eta azkenik, suhiltzaileak. Auzotarrek eta hainbat herritarrek ere jardun zuten sua itzaltzeko lanetan.

Hektarea eta erdiko saila erre zen, 35 eta 22 urteko pinudiak, baina ez zen kalte larri-rik gertatu. 22:30 alderako lortu zuten sua itzaltzea.



UZARRAGAN Irudian ikusten den pinudian sortu zen sutea.

A.I.

> PILOTA

Herri mailako pilota txapelketarako izena emateko aukera dago martxoaren 10era arte

Olalde Pilota Elkartek herri mailako eskuz binakako pilota txapelketa antolatzen dihardu. Hamabost urtetik gorako herritarrek parte har dezakete eta pilota goxoarekin jokatu dute. Martxoaren 10era arte dago izena emateko aukera, zuzendaritzako kide hauengana jota: Felix Agirre, Bittor Arbulu, Josu Zabalo edo Balendin Zabalo. Bikote bakoitzak 12 euro ordaindu beharko ditu.

> ARROLA

Urteko batzar orokorra eta diapositiba emanaldia egingo ditu Arrolak martxoaren 2an

Datorren asteko egubakoitzean, martxoak 2, urteko batzar orokorra egingo du Arrola Mendizale Elkartek. Olanaren etxean izango da hori, 19:30ean. Ondoren, 20:00ak aldera, diapositiba emanaldia egongo da, nahi duten herritar guztiendako. G2 mendirako espedizioaren berri emango digute, hain zuzen ere, Andoni Ormazabal eta Oier Plazaola mendizaleek. Olanaren etxeko aretoan izango da emanaldi hori ere.

MUJIKA HARATEGIA



**Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak**

**Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34**

bere ustez



Igor Arizmendiarieta

Zazpi bider zazpi, hamalau

Duela astebete pasatxo izan zen, hogeitaka urte bueltako pertsona batek harrituta utzi ninduen aitorpen bat egin zidan: biderketa taulak ez zekizkiela adierazi zidan lasai asko.

Bai, laugarren edo bosgarren mailan ikasten diren batetik hamarrerainoko zenbakidun taula horiek.

Nik behin ikasi eta taulak betirako garunean gelditzen zirela uste nuen. Berak zihonez ikasle bizitzan kalkulagailua gehiegi erabili zuen.

Arduratzekoa benetan,

"Aitorpen bat egin zidan: biderketa taulak ez zekizkiela adierazi zidan lasai asko"

zoritarrez gizartean gero eta gehiago ikusten den kasuetako bat besterik ez da honakoa.

Gauza jakina da denok erabili izan dugula kalkulagailua behin baino gehiagotan, baina horregatik ez zaizkigu hiru edo lau taulak ahaztu. Errua Teknologia? Ez dakit ba.

Gure aitona-amonei nekez ahazten zitzaizkien taula horiek. Derrigorra zuten taulak ikastea bizitzan aurrera egiteko. Denbora gutxi joango ziren eskolara baina gauzak ongi ikasten zituzten. Eskerrak zenbakiekin gertatzen den hau ez den momentuz letrekin gertatzen, bestela etorkizunean GOIENKARIA soberan legoke batzuentzat.

112
SOS DEIAK

LAPURRETA > ALARMA ITZALI ETA ATETIK SARTU ZIREN LAPURRAK ELGETA PIEL DENDARA

Larruzko ehun bat beroki lapurtu dituzte

Astelehenean, 05:00ak aldera, alarma itzali, atea bortxatu eta larruzko ehun bat beroki eraman zituzten lapurrek Elgeta Piel dendatik

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Palanka batekin atea bortxatzen saiatu ziren, baina atearen aluminiozko estrukturak eman egin zuen eta kristala oso-osorik jausi zen lurrera. Bestelako kalterik egin gabe sartu ziren lapurrek dendara. Aurretik, alarma, telefonoa eta argindarra moztuak zituzten. Ertzaintzak dio lapur profesionalen lana izan dela.

"Ez ginen etxean", azaldu dio GOIENKARIAri Elgeta Piel dendako Kontxi Ibarluzeak: "Madrilen ginen larruzko jantzien feria baten arropa erosten". Nahigabea handia da. "Ez dakigu oraindik zenbat diru eraman duten larrutan, baina asko, ehun bat beroki falta dira-eta".



ATETIK Atea bortxatzen saiatu ziren, baina kristala oso-erori zen.

L.Z.

ARRASTORIK UTZI GABE

Elgetan ez zen alarma hotsik entzun, baina telefonogunean jaso zuten abisua. Ertzainak joan zire-

nerako, ordea, dena eginda zegoen. Aurreko astean, Bergarako supermerkatu batean antzeko saiakera bat izan zela jakin dugu.

HIRIGINTZA > SINADURA BILKETA EGIN DUTE DOMINGO ITURBE KALEKO BIZILAGUNEK

Uruburuko transformadorea herritar guztiengandik ahalik eta urrunen nahi dute

Etxebizitzekiko distantzia ez dela egokia uste dute, eta gaia hilaren 26ko Hirigintza batzordean sartzea eskatu dute

L.Z. > ELGETA

"Ondo deritzogu, batetik, transformadore hori etxebizitza bloke baten azpitik kentzeari; baina, bestetik, ez dugu uste horrek gaintzeko herritarrek kaltetzea ekarri behar duenik".

Domingo Iturbe kaleko bizilagunek Udalarari zera eskatu dio-

te, idatzi bidez: herritar guztiak azaltzea transformadorea zehazki non kokatzeko asmoa daukaten. Horrez gainera, eskatuko diote "auzokide guztien iritzia aintzat hartzea, inoren kalterako izango ez den erabakia aztertu eta kokapen egokiagoa aurkitzeko".



L.Z.

Herri Eskolan energia aurrezten

Eusko Jaurlaritzak aspaldi jarri zituen eguzki plakak Herri Eskolako teilatuan. Orain, irudian duzun panel elektronikoa jarri du. Bertan, teilatuan jarritako eguzki plakei esker zenbat energia aprobetxatzen den agertzen da, baita produzitzen den energia kopurua zenbaterainokoa den ere.

> FUTBOLA
Futbol taldeak autobusa antolatu du zapatuko partidurako

Asteburu honetan Donostian jokatu du norgehiagoka Elgeta Futbol Taldeak. Igoera txapelketako bigarren partidua izango da elgetarrendako eta 16:00etan jokatu dute La Salle taldearen aurka. Gogoratu behar dugu sailkapeneko lehenengo bi taldeek lortuko dutela Lehenengo Erregional mailara igotzeko txartela.

Taldeak jarraitzaileen babesa behar du, eta horregatik autobusa antolatu da. Patxi tabernan eman daiteke izena. Autobusa bihar, zapatua, 14:00etan irtengo da Elgetatik.

1.026 EURO BANATU DIRA

Miguel Aranda, Fernando Oianguren eta Eneko Ormaetxeak asmatu dute aurreko asteko kiniela. 342 euro irabazi dituzte bakoitzak.

EGOKI KIROL ELKARTEA

Zapatu gauean Intxortara igoera

20:00etan elkartuko dira Herriko Plazan eta hiru orduko txangoa egingo dute

L.Z. > ELGETA

Linterna eramatea ezinbestekoa da; izan ere, gauez igoko dira bihar Intxortara.

Egoki kirol elkarteak antolatu du ekintza hori. Berez, 8-12 urte bitarteko umei zuzenduta dago. Deialdia, baina, zabala da, eta joan nahi duen guztiak Herriko Plazan agertu besterik ez du bihar, zapatua, 20:00etan. Antolatzailerak mendiko botak, berokia eta ura eramateko gomendioa egin dute, linterna ahaztu gabe, jakina.

Eguraldiari dagokionez, adierazi digute eurria edo eguraldi txarra eginez gero bertan behera geldituko dela mendi irteera. Baina hori momentuan bertan erabakiko dute.

DEIALDIA

Jai batzordea egingo da eguaztenean

L.Z. > ELGETA

Gero eta hurbilago ditugu herriko jaiak, lau hilabete besterik ez dira gelditzen. Jai batzordeko lehenengo bilera egiteko garaia iritsi da, beraz. Hala, jai batzordearen bilera hilaren 28an, eguaztenean egingo dute. Hitzordua 21:00etan da, Elgetako udaltxean. Deialdi irekia da honakoa eta edozein herritarrek har dezake parte batzar horretan. Besteak beste, jaietarako zein ekintza antolatu aztertuko dute.



Jaiak Elgetan.

GOIENKARIA

JAIK > ARATUSTEAK 2007

Zapatuan eta martitzenean, mozorroa aldean eta denak kalean

Zapatuan, kritika edo gai sozialekin lotutako zenbait mozorro izan ziren; 'Operacion Malaya', esaterako

Martitzenean, eskolako neska-mutikoek 'estralurtar' itxura hartu zuten

UBANE MADERA > ARAMAIO

Eguraldiak askorik lagundu ez zuten arren, zapatuan, kiroldegia- ren aterpean ospatu zituzten aramaioarrek Aratusteak. Lehiaketa zuten hitzartuta, eta egin ere egin zuten. Hona hemen irabazleak: 14 urtetik beherakoen artean, lehenengo saria eskuratu zuten *Zirkoa*-k eta bigarrena *Mundukide*-k. 14 urtetik gorakoen artean: *Eskimalak* izan ziren lehenak eta *Zaindu Natura* (AHTren kontra-koak), bigarren.

Bestalde, orijinaltasuna ere saritu zuten eta *Zaborra*-k irabazi zuten lehen saria eta *Operación Malaya*-k bigarrena.

'ESTRALURTARRAK'

Martitzenean, berriz, San Martin Eskola eta herriko plaza *estralurtarrez* bete zen. Izan ere, *Saturnino*, *Oberon*, *Saturno*, *Rikutxi*, *Namek*, *Jupiter* eta *Aramuxu* planetetako bizilagunek kalejira egin zuten eta gero txokolata hartu zuten, eskolan.



'ZAINDU NATURA' AHTren kontra-ko mozorroak bigarren saria irabazi zuten. L. ALTUNA



'NAMEK' Dantzan gustura ibili ziren ikasle-irakasleak; argazkian *Namek*-ekoak. U.M.



'ARAMUXUTARRAK' Maiteminduta zeuden *Aramuxu* planetako bizilagunak. U.M.

Asteburuan edukiontzia erre zuten eta argi sarea kaltetu

Joan den asteburuan, Bañera parkean edukiontzi bat erre zuten eta horrek herriko argi sarean kalte handiak eragin zituen. Halako gertaerak "larriak" direla dio alkateak. Eta zera ere gaineratu du: "Alkate honek dei berezia egin nahi die guraso eta adin txikiko tutoreei, aurrerantzean antzerako ezer gerta ez dadin".



ARAMAIOKO UDALA

AHT

Kontsulta dela-eta, alkatearen erantzuna

"Gehiengoak hartutako erabakia ez onartzeagatik" apurtu da taldea

U.M. > ARAMAIO

AHTren gaineko herri kontsulta antolatzen zebilen taldea apurtu egin dela-eta, joan den astean, AHTren kontra-ko taldeak zenbait azalpen egin zituen. Bada, oraingo honetan, Mertxe Mondragon alkateak azalpen horiei erantzun gura die.

ORDEZKARITZA DELA-ETA

Hala, herri kontsulta antolatzeko taldearen ordezkariaren gainean, AHTren kontra-ko taldeak zera adierazi zuen: "Guk nahi genuen EAJ eta EAko bana eta gure taldeko bi lagun, parekatuta egoteko". Bada, horri erantzunez, zera dio alkateak: "Baina ez dira ba hiru talde? Beraz, nola antola daiteke hobeto, talde bakoitzeko bi lagun egonda baino? Horretaz gain, zera aipatzen da: 'Guk nahi genuen...'. Baina non azaldu da nahi hori? Bada, ez da azaldu ez osoko bilkuran, ez gaia aztertze osoa zuten batzordean".

Hori horrela, zera ere gaineratu gura du alkateak: "Ondorioz, ez dezagun AHTren kontra-ko taldeak hartutako erabakia horrela arrazoitu edo apaindu; izan ere, taldeak batzordea uzteko arrazoia bat izan zen: gehiengoak hartutako erabakia ez onartzea".

> BERTSOLARITZA

Bihar, zapatua, Manex Agirre eta Iker Agirre, Amurrion izango dira

Bihar, zapatua, jokatu behar dute Arabako Bertsolari Txapelketako lehen kanporaketa. Besteak beste, lehen ibiliko dira Iker Agirre eta Manex Agirre aramaioarrek.

Hitzordua Amurrion da, Xarmant txakolindegian. 22:30ean hasiko da, afal ostean. Afarira joateko alde aurretik deitu behar da honako telefonora: 945 01 05 05 edo araba@bertsozale.com-era bidali mezua.

Aramaioarrekin batera honako hauek lehiatuko dira: Zigor Enbeita (iazko txapelduna), Jagoba Apaolaza, Xabier Lasa, Alberto Martinez *Betto*, Serapio Lopez eta Ekaitz Samaniego. Irati Lotina ibiliko da gai-jartzaile lanak egiten.

OSPAKIZUNAK > PILOTA TXAPELKETA ETA INAUTERIAK

Jai giroa izan da herrian aste bukaeran

Pilota txapelketak hasi zuen aste bukaera, eta Inauteri-zapatuan sortutako giroak borobildu

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Ekitaldiz betetako egunak izan dituzte herritarrek. Gazteen pilota txapelketa lehenengo, eta Inauteriak gero. Eguraldi narrasari aurre eginez, jai giroa eta umore ona izan dira nagusi herrian.

AMURRIOKOEN AURKA TXAPELKETA

Amurrioko pilotarien aurka jokatu zuten txapelketa egubakoitzean. Eta kanpoan zebilen haize zakarrari berotasunez erantzun

zioten herriko pilotari gazteek. Urduritasuna igartzen zitzairen partidu aurretik; izan ere, lehenengo Joxerra Perez alkateak kamisetak banatu zituzkien Udalarren izenean, eta ostean kirol-jertseak jaso zituzten Labidea dendarari eta Sormen enpresari esker.

Txapelketa 14 mutikok jokatu zuten, batzuk gatzagarrek eta beste batzuk eskoriatzarrak. Lau maila egin zituzten adina kontuan hartuta: hasiberriak, ben-



PILOTA Pilotari gazteak kirol-jertseak jasotzen Aitziber Gorosabelen eskutik. M.A.

jaminak, infantilak eta gazteak. 18:00ak inguruan hasi eta ia 20:30ak arte luzatu zen txapelketa, eta jarraitzaile asko gerturatu ziren partiduak ikustera, gehienak gurasoak.

Batzuek irabazi eta beste batzuek galdu, emaitza gutxienekoa zen, eta zortzi partidutatik bi irabazi zituzten gatzagarrek. Orain Amurriora joango dira errebantxa eske eta bitartean pilotari gazteak ilusioz gainezka dabilta entrenamendu saioetan.

GIRO POLITA INAUTERIETAN

Eta hurrengo egunean Inauteriak. Mozorroa janztearekin batera euria iritsi zen, baina guraso elkarteak antolatutako jolasei, dantzei, eta txokolate beroari esker umeek ez zuten aparteko hotzik igarri. Arratsalde partean hasitako jaia gaueko afariak borobildu zuen. 22 neska-mutiko eta 51 heldu elkartu ziren Garro jauregian: "Oso giro polita sortu genuen guztion artean. Ume, gazte zein helduk elkarrekin afaldu genuen, eta Kaixo taldeak dantzan egiteko aukera eman zigun", azaldu digu pozik Jon Sasiainek, Kultura zinegotziak. "Hala ere, inoiz baino lehen hasi zen jendea etxeratzen, 02:00ak inguruan, eta azkenek 04:00ak arte jarraitu zuten jai giroan", gaineratu du Sasiainek.

ISTRIPUA

Udaletxeko teilak bota ditu haizeak

Automobil baten gainera jausi ziren, baina ez zuten kalte handirik eragin

M.A. > GATZAGA

Egubakoitzean, hilak 16, ibili zen haize zakarrak kalteak eragin zituen udaletxean. Teilak mugitu zituen teilatuan, eta batzuk lurrera bota ere bai. Azpian aparkatuta zegoen auto baten gainera jausi zen bat edo beste, eta hesiak jarri zituzten gero, inor ez hurreratzeko. Dagoeneko aseguru etxearekin berba egin dute eta perituak baloratu egin behar du kaltea.

KALTEA KONPONTZERA

Ezusteak hartu zuten Gatzagako udaletxean, halakorik inoiz ez delako gertatu: "Teilatuan mugituta geratu ziren teilak zuzendu eta haizeak eragindako kalteak konpondu beharko ditugu", argitu zigun Joxerra Perez alkateak.



AFARIA Gatzagarrek Inauteri-zapatuan afaltzen, batzuk mozorrotuta eta beste batzuk barik.

JOSETXO ARANZABAL

> KIROLA

Pilota partiduak jokatuko dituzte gaur, 18:00etan

Gaur, egubakoitza, Udaberri pilota txapelketako hiru partidu jokatuko dituzte Gatzagako pilotalekuan. Arrasatearren jardungo dute Ordiziako bikoteen aurka. Hori aprobetxatuta, Arrasateko pilotari gazteen eta gatzagarren arteko hiru partidu antolatuko dituzte aurretik jokatzeke. 18:00etan hasiko dira.

'Astelehenero Goienkaria', Debagoieneko kirol taldeekin

**Ointxe Arrasate
Saskibaloia Elkarteak 06-07
astelehen honetan,
Astelehenero Goienkaria-rekin**

Debagoieneko kirol taldeen posterrak argitaratzen dihardu astero *Astelehenero Goienkaria*-k. Oraingo astelehenean, otsailak 26, Ointxe Arrasate Saskibaloia Elkartearenak argitaratuko ditugu. Saileko 10 taldeen argazkiak eta horietako bat, senior mailako mutilena, handiz eta jokalarien izen-abizenak jasoko dituzu, erdi-erdian, koloretan.

Ez galdu aukera eta eskuratu *Astelehenero Goienkaria*.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



> SASKIBALOIA

**Zizur Nagusian
jokatuko du Mugarri
Alkesak, bihar**

Gorka Zurutzaren mutilak Zizur Nagusiraino (Nafarroa) joango dira bihar (19:30). Joan den astean azken postuan dagoen Zornotza erraz menderatuta (93-74), Arrasatekoek zazpigarren postuan dagoen kontrarioarekin neurtuko dituzte indarrak.

Valsay Ardoik bederatzik norghegiaketatik lau irabazi ditu. Joan den astean, berriz, jipoi galanta hartu zuten lider dagoen Consmetalen kantxan (81-56).

> ESKUBALOIA

**Ford Mugarri
Gasteizera, berdinketa
baino gehiagoren bila**

Euskadiko Txapelketan burubelarri dabilen Ford Mugarri eskubaloit taldeak Gasteizen jokatuko du bihar (18:00) Gure Jorge Fernandez taldearen kontra.

Sailkapen taulan Arrasatekoak dira aurretik, baina Balerdiren mutilek bi puntuko alde baino ez dute. Hala, sei jardunaldiren faltan, Arrasatekoak oraindik gogor lehiatu behar dira, kategoriari eutsi gura badiote.

ZIKLISMOA > AMATEURRAK

Gureko zortzi txirrindulari lehiatuko dira aurtengo amateur mailako lasterketetan

Hamabost taldek osatuko dute tropela; domekan izango da lehenengo lasterketa

Aurten bi bergararrek egingo dute debuta, Asier Peñabadek eta Joseba Mugurutzak

XABIER URTZELAI > BERGARA

Oraingo asteburuan hasiko dute amateur mailako txirrindulariek denboraldia, Soraluzean (domeka goizean). Soraluzeko IX. saria izango da, 23 urte azpikoen barruan. Kategoriatan horretan talde kopuruari dagokionez ez da aldaketarik egon, 15 izango dira. Hori bai, taldeak eratzeko orduan badago nobedaderik.

Gurekoei dagokionez, zortzi txirrindulari lehiatuko dira amateur mailan. Alfus Tedes-ek Kepa Varela bergararra fitxatu du (21 urte), iaz Bidelan-en izan zena. Talde horretan egongo dira, Bidelan-en, Bergarako Unai Arantzabal (21



GORLAKO IGOERA Bergarako lasterketa izango da amateur mailan ibarreko lehen, martxoaren 25ean.

ARTXIBOA

urte) eta Antzuolako Gurutz Larrea (20 urte). Eddy Perez (21 urte) arrasatearrak Azpiru Ugarte-n jarraituko du, eta baita Joseba Itziar (20 urte) oñatiarrak ere; talde hori utzi eta Suminam-Koplad-Uni2 taldera egin du sal-

to Ander Nafarratek (20 urte). Txirrindulari horiek esperientziarekin jardungo dute amateur mailako tropelean, segidan datozen bi bergarrendako debuteko denboraldia izango da-eta. Hala, Lokatzatik jauzi egin du Asier Peñaba-

dek (19 urte), eta JMAtik dator Joseba Mugurutzak (19 urte). Lehenak Debarrena taldean izango du aukera, eta Belca taldearen maillota jantziko du bigarrenak. Azken horiendako, esperientzia hartzeko urtea izango da.

jose arana

Udal Haur Eskola *0-3urte*

Aranburuzabala, 1

eskoriatza ko udala

07-08 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEA ZABALIK
OTSAILAREN 26tik MARTXOAREN 9ra

943 71 31 58
informa zaitez

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero,
aurrez telefonoz abisatu.

Arizmendi
ikastola

FUTBOLA > PREFERENTEA

Hiru ordezkariak jokatuko dute etxean; UDAk izango du kontrario gogorrena, Berio

Hirugarren postuan dago domekan Ibarren bisitari izango den Berio taldea

Mondrak Touring hartuko du Atxabalpen eta Aloñak Martutene Azkoagainen

XABIER URTZELAI > ARETXABALETA
Ibarreko hiru futbol talde nagusiek etxean jokatuko dute aste bukaeran. Hori horrela, hiru partidu horiek osatuko dute futbol eskaintza nagusia. Joan den astean etxetik kanpora lan txukuna eginda, Mondrak eta Aloña Mendik sailkapenean atzerago daudenen kontra jokatuko dute. Mondrari dagokionez, Arrasatekoak laugarren daude sailkapenean (36 puntu), eta taularen erdian dagoen Touring (29 puntu) izango dute kontrario (zapatua, 16:30ean, Atxabalpen). Gordobilen mutilek ez dute amorerik eman gura, ez dituzte aurreko postuak utzi gura. Puntu batera baino ez dago Berio, hirugarren.

Hain zuzen ere, Berio da Aretxabaletak domeka arratsaldean Ibarren hartuko duen taldea (17:30). Esan barik doa Recioreen mutilen asmoa ez dela Mondra-



UDA-BERIO Joan den denboraldian egindako erretratuan, UDAko kapitain Eriko Berioko jokalariekin lehiatzen.

GOIENKARIA

ri mesede egitea, nahikoa dute eta euren interesen alde eginda, baina Mondra aprobetxatu egin daiteke egoera horretaz. Ikusteko dago Aretxabaletakoek zernolako maila erakusten duten hirugarren sailkatuaren kontra.

ALOÑAK, AZKENAREN KONTRA
Oñatiko taldeak, azkenik, aprobetxatu egin behar du oraingo asteburuko aukera, sailkapena osatzen duen azkena egongo da eta domekan Azkoagainen (16:30). Orain arte jokatutako 22 jardur-

naldietan, Martutenek hiru partidu baino ez ditu irabazi, horietako bakarra etxetik kanpora –Hernanin–. Entrenatzaileen iritziz, baina, horrelako datuak ez dira oso atseginak izaten, irabazteko baino gehiago izaten dute-

eta galtzeko. Kontuz, baina, Martutenek gola egiteko duen gaitasunarekin, atzean egonda ere, talde asko daude eta haiek baino gol gutxiago egin dituztenak (24). Hori abantaila izan daiteke, atzean sartzen ez diren seinale.

Kirola egitea, hobeto lo egiteko

Erlaxatzen lagunduko digun kirola aukeratu behar da; lo errazago hartuko dugu

Kirolak osasunarendako dituen eragin positibo garrantzitsuenak zirkulazio-aparatuan ikus daitezke. Kirola eginez organoen eta hodien bolumena handitu egiten da, hormak indartu egiten dira eta malgutasuna irabazten dute. Ondorioz, gorpuzak odol gehiago mugitu dezake eta gutxiago nekatu.

LOA: INDARBERRITZEKO TEORIA

Biztanleen heren batek arazoak ditu lo hartzeko. Gazteen artean bostetik batek bakarrik, baina 65 urtetik gorakoen artean laurdenak, eta adin horretako %95, berriz, kexu da goizegi esnatzen delako.

Indarberritzearen teoriaren arabera, errazago hartuko du lo kirola egiten duenak. Jarduera fisikoko energia gehiago xahutzen dutenek energia hori berreskuratzeko, lo egiteko eta atsedean hartzeko erraztasun handiagoa



LO ONA Ariketa fisikoak errazten du lo hobeto egitea.

izango dute. Ariketa fisikoak eragiten duen nekea eta tentsioa gainera kentzeko beharrak lo hobeto egitea errazten du.

KIROLA AUKERATU BEHAR DA

Onura horiek lortzeko, ordea, kirol-jarduera horrek hainbat ezaugarri bete beharko ditu.

Estresa eta tentsio handia sortu beharrean, erlaxatzen lagundu beharko du. Horretarako, aisialdiko jolas-ikuspegia duen jarduera izango da, eta emaitzak ez du aparteko garrantzirik izango. Lehiakortasun handiko txapelketatan parte hartzeak aurkako eragina izan dezake eta lo hartzeko unea atzeratu. Ariketa intentsitate txikikoa izatea ere komeni da. Garbi izan behar da ikuspegi eta helburu askotariko kirol-antolaketa daudela, eta guztiek ez dituztela emaitza horiek eragiten: lehiakorra, aisialdikoa, osasuntsua, hezitzailea.

Lo gutxi edo gaizki egiteak nekea, umore txarra, adimena lausotzea, kontzentrazioarako zailtasunak, istripuak izateko arriskua areagotzea... ekar ditzake. Horrenbestez, hara hor kirola egitearen eta ondo lo egitearen garrantzia.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

Antzuola	943 76 62 46
Aretxabaleta	943 71 26 28
Arrasate	943 77 16 77
Bergara	943 77 91 67
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 53 28
Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 71 63 75



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

KIROL TXAPELKETA

Martitzenean egingo dute MUKO fakultateen arteko 7. txapelketa

Iturripen, Musakolan, Atxabalpen eta Ibarako futbol zelaietan lehiatuko dira MUKO txapelketan izena eman duten 150 ikasleak

X.U. > ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko txapelketa antolatzen dabilzan kirol zerbitzuko arduradunen esanetan, ikasleak azterketatan dabilzanez hasieran zailtasunak izan dituzte kirol modalitate guztietarako taldeak egiteko. Hori lortuta, baina, Gorka Martinezek balorazio positiboa egin du: "150 ikasle lehiatuko dira, gutxi gorabehera, martitzenean. Kirol modalitate guztiek egingo dute aurrera, eta poztekoa da hori".

Hala, martitzen goizean jokatuko dituzte partiduko guztiak. Iturripen egingo dituzte areto futbolako, teniseko, esku pilotako



ITURRIPEN Artxiboko irudian, MUKO neska taldea eskubaloian.

GOIENKARIA

eta fronteniseko partiduak. Atxabalpen egingo dute zazpiko futbola eta Aretxabaletako futbol zelaira joango dira futbolearen egitera. Horrez gain, Musakolan egingo dituzte saskibaloiko, pala gomako eta nesken fronteniseko partiduak.

IRABAZLEAK DONOSTIARA

Joan den urtean MURI egokitu zitzaion unibertsitateen arteko txapelketa antolatzea. Aurten, Deustu-Donostiak hartuko du ardura hori. Hala, martitzenean nagusitzen direnek Donostiako txapelketarako sailkatuko dira.



GOIENKARIA

Gonzalez eta Pascual, Xala eta Eulateren kontra domekan Bergaran

Atzo, Bergarako Udal Pilotalekuan, domekako (17:00) norgehiagokarako pilotak aukeratu zituzten. Eskuz Binakako Txapelketa dagoeneko finalerdietan da, eta Olaizola, Irujo eta Titin kanpoan geratu direnez, ez dago faborito garbirik. Pilotariendako domekakoa norgehiagoka garrantzitsua da, ligaxkako lehenengo aurrez aurrekoa. Pilotei dagokienez, Gonzalezek eta Pascualek Zipiren pilotak aukeratu zituzten, biziagoak eta bote handiagoak.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Lehenengo maila

Reala-Deportivo
Zapatua. 20:00. Anoeta.

Preferente maila

Aloña Mendi-Martutene
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Mondra-Touring
Zapatua. 16:30. Atxabalpe.

Aretxabaleta-Berio
Domeka. 17:30. Ibarra.

Lehen erregionala

Beti Ona-Bergara
Zapatua. 17:15. Errenteria.

Bigarren erregionala. Igoera fasea

Landetxa-BTLS
Zapatua. 15:30. Irun.

Antzuola-Mariño
Zapatua. 16:30. Estala.

La Salle-Elgeta
Zapatua. 16:00. Donostia.

Bigarren erregionala. Kopa txapelketa

Aretxabaleta-Mondra
Zapatua. 17:30. Ibarra.

Ohorezko mailako gazteak. Igoera fasea

Aretxabaleta-Mondra
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Aloña Mendi-Vasconia
Zapatua. 16:00. Azkoagain

Ohorezko mailako gazteak. Jaitsiera fasea eta Kopa

Euskalduna-Bergara
Zapatua. 15:30. Andoain.

Lehen mailako gazteak. Igoera fasea

Behobia-Arizmendi Aretx.
Domeka. 15:30. Gal.

Lehen mailako gazteak. Kopa txapelketa

Antzuola-Ikasberri.
Zapatua. 11:45. Estala.

Bergara-Urki.
Zapatua. 16:00. Ipintza.

Zestoa-Arrasate
Domeka. 16:00. Zubiaurre.

Ohorezko mailako kadeteak. Igoera fasea

Bergara-Reala
Domeka. 12:00. Ipintza.

Ohorezko mailako kadeteak. Kopa eta jaitsiera fasea

Hernani-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Zubipe.

Arrasate-Antiguoko
Zapatua. 11:00. Atxabalpe.

Lehen mailako kadeteak. Kopa Txapelketa

Ilintxa-Bergara
Zapatua. 11:30. Legazpia.

Amaikak Bat-Arizmendi Are.
Domeka. 10:30. Deba.

Ohorezko mailako infantilak. Txapeldunen fasea

Antiguoko-Arizmendi Aretx.
Domeka. 15:30. Berio.

Ohorezko mailako infantilak. Jaitsiera fasea eta Kopa

Real Union-Arrasate.
Zapatua. 12:00. Irun.

Aloña Mendi-Hernani
Domeka. 11:00. Ibarra.

Lehen mailako infantilak. Igoera fasea

Bergara-Allerru
Domeka. 10:15. Ipintza.

Infantil txikiak. Kopa

Hernani-Arizmendi Aretx.
Domeka. 16:00. Zubipe.

Emakumezkoen Liga. Igoera fasea

Mondra-Hernani
Domeka. 12:00. Atxabalpe.

Vasconia-BTLS
Zapatua. 17:30. Martutene.

Emakumezkoen Kopa

Anaitasuna-Arizmendi Are.
Zapatua. 16:30. Azkoitia.

Kadete emakumezkoak F11. Txapeldunen liga

Hernani-Arizmendi Aretxab.
Zapatua. 11:45. Hernani.

Touring-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Errenteria.

Alebin maila

Urko-Arrasate
Domeka. 11:15. Azpeitia.

Bergara-Lagun Onak
Domeka. 10:00. Azpeitia.

Aloña Mendi-Aretxabaleta
Domeka. 11:15. Azpeitia.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Liga

Eskoriatza-Ortiziri-Domosti
Zapatua. 18:00. Intxaurtxu.

Lehenengo maila

Clinica Dental-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Lasarte.

Gazteak

Aloña Mendi-Relojes Monda.
Gaur. Ordu barik. Zubikoa.

SASKIBALOA

ACB

Bruesa-GBC-Valladolid
Domeka. 12:15. Illumbe.

Lehen maila. Igoera fasea

Valsay Ardoi-Mugarri Alkesa
Zapatua. 19:30. Zizur Nagus.

Txapelketa autonomikoa

Goierri Verkol-Univ. Rioja
Zapatua. 18:00. Urretxu.

Emakumeen Gipuzkoako bigarren mailako liga txapelketa

Mugarri Alkesa-Santurtzi.
Domeka. 18:00. Arrasate.

Gipuzkoako ligako senior maila, gizonetzkoak

Candy BKE-Allerru
Zapatua. 16:00. Labegariaiet.

Ainhoa Tab. Aloña Mendi

Zapatua. 16:00. Lasarte.

Ointxe Arrasate-DKS

Zapatua. 16:00. Iturripen.

Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak

Aloña Mendi-Añorga
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Alde Zaharra-Eskoriatza

Zapatua. 16:00. Donostia.

Gipuzkoako ligako junior maila, gizonetzkoak

Aloña Mendi-La Salle
Zapatua. 19:15. Zubikoa.

Gipuzkoako ligako junior maila, emakumezkoak

Domekan. Astunen.

Eskoriatza-BKL CAF
Zapatua. 16:00. Intxaurtxu.

Gipuzkoako ligako kadete maila, gizonetzkoak

Krafft-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Donostia.

Gros Xake-Ford Mugarri
Zapatua. 12:00. Donostia.

Bergara-Easo Bidasoa
Domeka. 10:00. Maria Lag.

Gipuzkoako ligako kadete maila, emakumezkoak

Krafft-Eskoriatza
Zapatua. 10:00. Donostia.

ESKUBALOA

Euskadiko Senior Maila

Gure Jorge-Ford Mugarri
Zapatua. 18:00. Gasteiz.

Euskadiko kadeteak, emakumezkoak

Leizaran-Verkol Aloña
Zapatua. 16:30. Andoain.

Lehen territorial maila

Bergara-Ormaiztegui
Domeka. 12:15. Labegariaie.

Arrasate Eskub. Usurbil
Domeka. 11:30. Iturripen.

Gazte maila (gizonetzkoak)

Aloña Mendi-Bergara
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

Kadete maila, gizonetzkoak

Ereintza-Aloña Mendi
Zapatua. 11:30. Errenteria.

Gatz Museoa-Urnietako
Zapatua. 16:00. Urnieta.

Gazte mailako Udaberri Saria, emakumezkoak

Cocina Aiala-Verkol Aloña
Zapatua. Ordu barik. Zarau.

Kadete mailako Udaberri Saria, emakumezkoak

Arrasate-Cocina Aiala
Domeka. 10:00. Iturripen.

PILOTA

Pilolari profesionalen jaialdia, Eskuz Binakako Txapelketa barruan

Domeka. 17:00. Bergara.
Chafee-Barriola

Berasaluzte-Lasa III
Gonzalez-Pascual
Xala-Eulate

Uriarte-Arizmendi
Apeztexea-Galartza VI.

TXIRRINDULARITZA

Soraluzeko IX. Saria

Domeka. 09:45. Soraluzte.
Amateur mailako

txirrindulariak lehiatuko
dira. 120 kilometroko

lasterketa izango da.
Ziklistak 12:30ean iritsiko
dira, gutxi gorabehera,
helmugara.

Dorletako Ama txirrindulari taldearen aurkezpina

Zapatua. 10:00. Gatzagan.

MENDIKO ESKIA

Euskadiko Kopako lasterketa

Domekan. Astunen.

MAISUEN II. MAHAI FUTBOL TXAPELKETA
BTLS7 joko automatikoak



www.ehmff.com
943 76 42 31 / 652776051

Saria: Mercedes SE 400 edo 5.000 euro txapeldunarentzat
eta beste horrenbeste tabernarentzat (taberna bakoitzak zazpi jokalar)

Altsasu: Lurzapi Antzuola: Mox - Surpe Aretxabaleta: Haizea - Izotz - Kixkor Arrasate: Biona - Iturriotz - Equus - Udala
Azpeitia: Korrale - Txarrantxa Beasain: Pott Bergara: Agorrosin - Avenida - Biko - Gaztetxea - Mitor
Eibar: Balkoi - Hilbehera - Monteka Ermua: Carpediem - Xagua - Zabal Eskoriatza: Aldatz - Naira
Etxarri Aranatz: Iturrieder Gasteiz: Irauli - Parkesur - Sorginak - Txintxarri Oñati: Arrano - Ongi - Otamendi
Ondarru: 34 Pasaia: Kamio Urretxu: Berit - Florida - Gaztetxea

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **NACHO VEGAS**
Kontzertu
akustikoa emango
du zapatuan
Arrasaten > 45

Otsailak 23
Wikifarra
Afari & Farra
Blogak
Arrasate

> **WIKIFARRA**
Teknofiloei
zuzendutako jaia
deitu dute gaur
Arrasaten > 51

> **IGOR
EZPELETA**
Orain dela lau
urte hasi zen
capoeira egiten,
Eskozian.
Handik bueltan,
Senzala Euskadi
taldea sortu
zuen beste
lagun batzuekin
batera,
Eskoriatzan > 50



GOIENKARIA

Debagoieneko dantza taldeak, zaletasunari eutsiz

Ibarreko dantza taldeengana jo dugu, haien egoeraren berri jakiteko; indartsu daude gure dantza taldeak

Hala ere, mutil dantzarien falta sumatzen dute han eta hemen; bestalde, arduradunek ez dute lekukorik jasotzen

EDU MENDIBIL > BERGARA
Euskal dantzekiko zaletasuna pizten lanean gogor jarraitzen dute Debagoieneko taldeek. Nagusien taldea izateaz gain, gaztetxoekin harrobia lantzen jarraitzen dute Oñatiko Oñatz taldeak, Antzuolako Oinarriek eta Arrasateko bi taldeek. Era berean, ume ugari dabilta Bergaran eta Aretxabaletan euskal dantzak ikasten. Baina denak ez dira albiste onak: Bergarako Xamatx taldearen etorkizuna kolokan dago.

OÑATZ TALDEAREN INDARRA
Oñatiko Oñatz taldea dugu ibarreko beterranoenetako bat. Garai batean Udalaren taldea zena Oñatz bilakatu zen 1970ean eta 1975a ezkerre nagusien zein gaztetxoekin dantza taldeak batzen ditu. Jesus Irizarrek 42 urte darama Oñatin euskal dantzak bultzatzen. Hura dugu Oñatzeko arduradunetako bat: 10 urte dira dantzazeari utzi ziola, baina taldearekin lanean jarraitzen du. Gaur egun, gaztetxoekin taldean 150 neska-mutiko (6-

Dantza taldeak, zaletasunari eutsiz

(43. orrialdetik dator)

13 urte bitartekoak) eta nagusien taldean 60 dantzari (14-30 urte) dabilzala diosku. Adinka banatuta, gaztetxoekin zortzi talde osatu dituzte aurtengo ikasturtean. Herri Eskolan egiten dituzte entseguak.

Dantza ekitaldiek zertxobait behera egin arren, eskualdeko taldeen arteko elkarlana azpimarratzen du Irizarrek: "Urteak dira Debagoieneko Dantzari Eguna antolatzen dugula elkarrekin, eta, horrez gain, euskal jaiak egiteko ere hartu-eman handia daukagu. Nik uste dut maila polita dagoela Debagoiengan; behar bada, Donostialdeko taldeak ikusgarriagoak izango dira, baina herriko ohiturei eusteko Debagoiengan egin den lana nabarmentzekoa da; azken baten, hainbat taldek herriko dantzei eutsi diete: Txarri Dantza Arrasaten, Azeri Dantza Aretxabaletan, Maiaruaren Alardekoa Antzuolan, Corpusekoa Oñatin...". Irizarrek ez du uste dantzarako zaletasuna galdu denik: "Euskal dantzak debekatuta egon ziren garaian, jendearentzat oraindik erakargarriago ziren. Baina orain jardura ugari egoten da aukeran eta zailagoa egiten da dantzariak erakartzea, logikoa denez. Baina daukagun dantzari kopuruarekin ezin gara kexatu".



HARROBIA Mutil dantzarien falta sumatzen dute ibarreko taldeetan. Dena dela, harrobia badagoela diote arduradunek.

GOIENKARIA

BOISERA UZTAILEAN

Uztailean AEBetara, Boisera joateko gonbidapena jaso dute oñatiarrek. Iaz 25 urte bete ziren Oñatiko dantzak Idahon egiten

direla, eta hangoen gonbita jaso dute. 40 lagun inguru joango dira uztailean Boisera, orain hiruzpatalau urte Boisekoek Oñatira egingandako bisitaren ordainetan.

LORAMENDI ARETXABALETAN

Ibarreko talde askotan gertatzen den moduan, mutilen falta nabaritzen dute Aretxabaletako Loramendi taldean. Hala esan digu Aintzane Aizpurua arduradunetako batek. Nagusien talderik ez dute gaur egun. Gaztetxoekin taldean 100 neska-mutiko inguruk dihardute eta asteen bitan egiten dituzte entseguak, Aretxabaletako Musika Eskolan. Tradizioa izaten da txikiak Otala Zelaiko erromerian debuta egitea, maiatzeko bigarren domekan: aurten 15 bat umek dantzatuko dute lehenbizikoz jendaurrean.

BI TALDE ARRASATEN

Ohikoa da herrietako taldeen arduradunak urte mordoan errotea lan horretan. Arrasaten ere gauza bera gertatzen da Txikitxu Arrostitz eta Lore Gazteak taldeetan. Marga Mercaderrek 37 urte darama Txikitxu Arrostitz

tzen eta Xeli Arregik 41 Lore Gazteak taldearekin. Gaztetxoekin eta nagusien taldeak dituzte talde biek. Umeak direla eta, zera dio Arregik: "Adin horietan neska-taldek pazientzia handiagoa daukate, lasaiagoak dira eta dantzan egitea gehiago gustatzen zaie. Nagusien taldera heltzen diren mutilek dantza benetan gustuko dutelako izaten da".

HARROBIA LANTZEN

Xamatzen etorkizuna kolokan, Moises Azpiazu, Gazte Alai (Xamatzeko harrobia nolabait) eta Abarka taldeek dihardute Bergaran lanean. Txapelketatan ari diren herriko hiru bikote Abarka taldearekin dabilza, Juantxo Urbietarekin. Moises Azpiazu taldeak gaztetxo ugari ditu: "Azken urteotan gorakada nabaria izan dugu eta aurten 160 gaztetxo ditugu taldean. Harrobia egon badago", diosku Maite Lazkano irakasleak.



OINARIN Antzuolan gaztetxoekin mailako lau talde eta nagusiena daukate. 1974 urtearen inguruan sortu zuten taldea. GOIENKARIA

Debagoieneko Dantzari Eguna Arrasaten eta euskal dantzen ikastaroak Bergaran

Debagoieneko Dantzari Egunaren 14. ekitaldia ospatuko da maiatzaren 5ean Arrasaten. Lehenbiziko ekitaldia ere Arrasaten egin zuten eta aurten Txikitxu Arrostitz eta Lore Gazteak taldeak arduratuko dira antolaketaz. Debagoieneko nagusien taldeen topaleku izango da Arrasate hirugarren aldiz. Era berean, udaberrian helduko dira bailarako euskal jaiak, haurrei zuzendutako hitzorduak.

Bien bitartean, Bergarako Jardun elkarteak eta Abarka dantza taldeak euskal dantzen ikastaroak antolatu dituzte. Ikastaroak martxoan, apirila eta maiatzean izango dira, martitzenetan Aranzadi Ikastolan: 19:00etan fandangoa eta arin arina landuko dituzte eta 20:00etan erromerietako beste dantza batzuk. Ikastaro bakoitzaren matrikula 24 eurokoa izango da eta bi ikastaroak eginez gero 30 euro ordaindu behar dira. Ikastaroak martxoaren 6an hasiko dira eta izenematea Jardunek Errotalde jauregian duen bulegoan edo 943 76 36 61 telefono zenbakian egin daiteke. Maiatzeko lehenengo hiru egubakoitzetan erromeriak egingo dituzte Bergaran: ikasitakoa erakusteko eta dantza zaletasunari eusteko aukera bikaina.



Otala Zelaiko erromeria ospatzen dute Aretxabaletan, maiatzeko bigarren domekan.

MIRARI ALTUBE

MUSIKA > NACHO VEGAS

Nacho Vegas-en kontzertua zapatuan Amaia antzokian

Manta Ray taldeko kide ohiak kontzertu akustikoa eskainiko du Arrasaten

Bere lau diskoetako kantu ezagunenak eta beste hainbat sorpresa iragarri ditu biharko

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Manta Ray taldean ibilitako Nacho Vegasek emanaldia egingo du bihar, zapatua, Arrasateko Amaia antzokian. Asturiarrak bakarkako ibilbideari ekin zion 2001ean eta ordutik hona lau disko kaleratu ditu: *Actos inexplicables* (2001), *Cajas de músicas difíciles de parar* disko bikoitza

(2003), *Desaparezca aquí* (2005) eta *Esto no es una salida* (2005) izenburuko album txikia. Era berean, iaz Enrique Bunburyrekin batera grabatutako *El tiempo de las cerezas* disko bikoitza izan da argitaratu duen azken lana.


Beste hainbat saltsatan ere murgilduta ibili da azkenaldian: Elena Lopezek zuzendutako *Más*

que a mi suerte film laburra protagonizatu du eta *Política de hechos consumados* liburua eman du argitarara.

KONTZERTU AKUSTIKOA

Bihar Amaiara hurbiltzen direnek Nacho Vegasen kontzertu akustikoaz gozatzeko aukera izango dute. Xel Peredak egindako konponketen laguntzaz, *Ocho y medio*, *El camino*, *En el jardín de la duermeyela*, *Por culpa de la humedad* edota *Cerca del cielo* kantuak eskainiko ditu.

Emanaldia 20:00etan hasiko da; sarrerak eskuragarri daude Servikutxan edo www.kutxa.net helbidean, 10 eurotan.



NACHO VEGAS Asturiarrak bakarkako lau disko kaleratu ditu.

LIMBO STARR

ZINEMA > EGUENEAN, ARRASATEN

Badator film laburren zirkuitua



AURKEZPENA Kixi, Topaguneko Manuel Moreno eta Ane Muñoz, martitzenean.

Debagoienean lehen emanaldia eguaztenean izango da, Arrasateko Kulturaten, 19:00etan

Besteak beste, Asier Altuna 'Kixi'-ren 'Sarean' eta Jon Anduezen 'Bilintx' eskainiko dituzte

E.M. > ARRASATE

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak film laburren zirkuitua aurkeztu berri du. Laugarren ekitaldia da aurtengoa eta ikusleek euskarazko film laburren produkzioa ezagutzeko aukera izango dute. Debagoiene-


an, lehenbiziko emanaldia Arrasaten izango da, hurrengo eguaztenean, hilaren 28an, Kulturaten, 19:00etan.

Sei film laburrek osatzen dute aurtengo eskaintza, tartean Asier Altuna *Kixi*-ren *Sarean* eta Jon Andueza arrasatearraren *Bilintx*.

Horiez gain, *Loturak* (Ane Muñoz), *Osaba Jaxinto* (Iñaki Beraetxe), *Xoxoak beleari ipurbeltz* (Oskar Galan) eta *Midori* (Koldo Almandoz) ikusteko aukera izango da.

MARTXOAN BESTE HIRU EMANALDI

Arrasateko AED, Bergarako Jardun eta, Oñatiko Laixan eta Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteek antolatuko dituzte bailarako emanaldiak. Martxoan beste hiru emanaldi izango dira gurean: Oñatikoa hilaren 22a, Bergarakoa 25ean eta Aretxabaletakoa 30ean.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

IMMOBILIARIA
Ibarra 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokrasti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:

- S. Antonio 50 m². Berritua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Masterreka 92 m². Ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- Angiozar. Bi solairu. Berrituko.
- San Pedro 110 m². Estreinatze.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- San Pedro 65 m². Prezio ona.
- Aranerreka 87 m². Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m². Ondo.
- Ibarra 87 m². Oso ondo.
- Ortubar 97 m². Oso ondo.
- Osintxu 95 m². Prezio ona.
- Zubiare 60 m². Berritua.

ETXEBIZITZA berrien erakuntza San Lorentzon. 2-3 logela, duplex-ak. Prezio ezin hobea.

Elgeta:

- Etxebizitza berrien erakuntza, 2-3 logela. Duplex-ak, garajea, terraza. Bista politak.

DEBA GARAIA
IMMOBILIARIA
Telefona Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA

- Arrizuri 97 m². Oso ondo.
- Juan XXIII 80 m². Berritua.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Zabalotegi 50 m². Berritua.
- Bidekuruzeta 60 m². Oso ondo.
- Zubiare 60 m². Prezio ona.
- Ibarra 47 m². Berritua.
- Martoko 78 m². Oso eguzkitsua.
- Erdialdean 200 m². Aukera ona.
- Bidekuruzeta 82 m². la berria
- Ibarra 80 m². ondo.
- Arteale 62 m². Oso ondo.
- Osintxu 125 m². Oso ondo.
- Osintxu 82 m². Garajearekin. Ondo.
- San Lorenzo 18 etxebizitza berri garaje eta trastelekuarekin.

SORALUZE

- Gabolatx, 65 m². Oso Ondo
- Atxuri, 93 m². Oso Ondo.

ANTZULUA

- Behoko auzoa, 53 m². Prezio Ona.
- Duplex berria, erdialdean
- Eguzki auzoa, 85 m². Erdi Berritua.

IRAGARKI SAILKATUAK
Egubakoitz eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A). GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ARETXABAETA

Zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko.
647 05 42 75

ARETXABAETA

Mekanizazio enpresa batek LHII titulua duen pertsona bat behar du tailerrera. Interesatuok bidali curriculumak 279 posta-kutxara.

BERGARA

JAM aretoak zerbitzariak behar ditu.
677 45 23 31

Aretxabaletako Udala

IRAGARKIA

Bake epailearen eta haren ordekoaren aukeraketa.

Izena emateko epea: martxoaren 5a. arte.

Aretxabaleta, 2007ko otsailaren 20a.
ALKATEAK

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. 72 metro koadro. Erdialdean. Azken solairua (buhardilla). 16 metro koadroko garajea dauka. Berrikuntza-aren bat behar du. 659 64 67 38.

Aretxabaleta. Mitarte kalean 100 metro koadroko etxebizitza salgai. Eguzkitsua. Terraza handia. 665 72 18 59 edo 695 78 50 86.

Arrasate. Unibertsitatetik gertu. 76 m². Egongela, bi gela, komuna eta sukaldaria. Berritua (gasezko kalefakzio indibiduala, hezetasunaren kontrako isolamendua...). Denak kanpora ematen du. Eguzki begia. Garajea aukeran. 298.525 euro. 610 55 72 78.

Arrasate. Erguin auzoa. Guztiz berritua. 60 metro koadro. Guztiz jantzita. 267.000 euro. Telefona: 629 23 94 89.

Arrasate. Etxebizitza salgai Uribe auzoan. Lau logela, egongela, sukaldaria eta bi komun. Garajea aukeran. 625 28 72 06.

Arrasate. Etxebizitza salgai. 80 metro koadro ditu. Hiru logela, egongela, egongela eta despentsa ditu. 629 62 44 69.

Arrasate. Ferrixalekuan. Igogailuarekin eta guztiz jantzita. 943 79 60 88.

Arrasate. Grup San Juan auzoan. 60 metro koadro. Igogailua, ganbara, berogailua. Goiko pisua. 606 25 92 80.

Arrasate. Grupo San Juanen. Bi logela, berogailu indibiduala, eguzkitsua. Ganbarekin. 606 25 92 80.

Arrasate. Santa Marina auzoa. Garajea, hiru logela. Dena kanpoaldera. Jantzita. 692 70 22 76.

Arrasate. Uribe auzoan etxebizitza salgai. 85 m² inguru, garajea eta trasteleku. Guztiz berritua. 626 35 60 90.

Arrasate. Zigorrolan. Hiru logela, egongela, bainua, sukaldaria eta trasteleku. Oso eguzkitsua. 652 73 22 83.

Bergara. Bidekuruzetaren etxea salgai. Bi logela, egongela, guztiz berritua. 699 65 48 34.

Bergara. Etxea salgai Zubiarenean. Ganbarekin. 943 28 76 36.

Bergara. Labegarietan. Guztiz berritua, eguzkitsua, ikuspegi onak, bi logela, sukaldaria, jangela, berogailua, bainugela hidromasajarekin. Bizi izate-za sartzeko. 196.000 euro negoziagarriak. 635 71 04 55.

Bergara. Simon Arrietan. 80 metro koadro. Bi logela, jangela, sukaldaria, bainugela bat eta berogailua gas naturalarekin, indibiduala. Igogailua. Balkoi ederra. Garajea aukeran. 270.455 euro. 664 73 49 60.

Bergara. Zubiarenean. 60m², bi logela, sukaldaria, egongela, bainugela, trasteleku, berogailua. Jantzita. Garajea aukeran. 162.000 euro. 619 65 10 87.

Onati. Arantzazu kalean. Leku eta egoera onean. Sukaldaria,

ARETXABAETA

Sukaldaria edo sukaldari laguntzailea behar da.
662 13 27 55

egongela, 2 logela, 2 bainu eta ganbara. Garajea aukeran. 943 71 22 58.

Oñati. Apartamentua salgai San Lorentzon. Saloi-sukaldaria, 2 logela, komuna eta terraza handi bat. Garajea aukeran. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

Oñati. Etxea salgai Euskadi etorbidean. Lau logela. 135 m². Berritua. 605 74 52 02.

Oñati. Etxebizitza salgai. 3 gela, 2 bainugela, terraza eta balkoia. Garajea aukeran. 656 74 80 47.

Oñatin etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. 90 m², 3 logela, sukaldaria, egongela, bi komun, estudio bat. Ganbara eta garajea. Telefona: 606 96 16 13 edo 943 71 60 56.

102. EROSI

Arrasaten, Musakola auzoan etxebizitza behar da. Derrigorrezkoa hiru logela edukitzea. 653 71 64 79.

103. ERRENTAN EMAN

Benidorm Bi logeladun aparta-

ARETXABAETA

Garbitzailea behar da taberna baten lan egiteko.
635 73 27 74

mentua errentan ematen da. Levante hondartzan bertan. 630 41 84 65.

Elizondo. 188 m². Zortzi pertsonarentzako lekua. Eguzkitsua. 630 08 33 85.

Esakoriatza. Etxea herri erdian. Hiru logela. 696 16 83 06.

Noja. Bi logelako apartamentua emango nuke errentan. Garajea eta igerilekua ditu. Telefona: 635 75 35 29.

Vera (Almeria). Apartamentua ematen da errentan naturistagune baten. Jantzita (TB, garbigailua, mikrouhin-labea...). Igerilekua. 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Arrasateko familia batek etxebizitza bat alokatuko luke, etxe berria eman arte. 619 45 42 87.

Bergara. Errentan hartuko nuke etxea. 671 33 75 63.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke, Bergaran edo inguruan. Egoera onean eta ekonomikoa. 677 25 98 02.

ESKORIATZA

Sukaldari esperientziaduna behar da taberna baten lan egiteko.
650 05 99 71

Debagoiena. Bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko nuke alokairuan ibarrean. Bergara, Antzuola edo Oñatin, aukeran nahiago. 630 31 84 34.

105. ETXEA OSATU

Gasteiz Neska bat behar da etxea osatzeko Gorbeia kalean. 350 euro, gastu guztiak barne. 652 72 18 87.

106. BESTELAKOAK

Arrasate. Erdiguneko etxebizitza batean bizi naiz eta beste pertsona batendako lekua dago. Deitu: 619 45 42 77.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Uribarri kalean garajea salgai. 625 47 61 62.

Bergara. Erdialdean. Burdiñaten. 21 metro koadro. 23.000 euro. 664 73 49 60.

Bergara. Garaje itxia San Lorentzon. 943 76 40 05.

202. EROSI

Oñati. Garaje bat erosiko nuke San Lorentzo Auzoan. Telefona: 657 77 98 64.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Autokarabandako parking plazak errentan ematen dira. Deitu 20:00etatik 23:00etara. 670 49 87 40.

Bergara. Garajea emango nuke errentan Bonifacio Laskurain kalean. 635 75 35 29.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Bulegoak alokagai Oñati 18an, Uarkapeko arkupean. 638 17 93 63.

Taberna bat errentan ematen da Arrasateko Larrea plazan. 943 79 38 04.

4/ LANA

402. ESKAERAK

Debagoiena. 45 urteko emakumea gertu adineko pertsonak edo haurrak zaindu eta garbitzaile lanak egiteko, 14:00etatik aurrera. 628 82 96 56.

Debagoiena. Emakume gaztea goizetan lanerako gertu. Telefona: 606 78 15 13.

Debagoiena. Emakumea gertu arratsalde eta gauz lan egiteko, baita aste bukaeran ere. Alejandra. 618 42 70 07.

Debagoiena. Emakumea gertu etxeak garbitzeko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Maria Isabel. 646 76 09 88.

Debagoiena. Etxeak garbitzen, tabernan edo umeak nahiz nagusiak zaintzen lan egiteko gertu emakume bat. Telefona: 663 46 93 60.

Debagoiena. Paperak dituen emakume batek lan egiteko beharra dauka, etxe barruan edo zortzi orduko lanen batean, pertsona nagusiak zaintzen. Esperientzia dauka erizaintzako kontuetan. 686 52 15 98.

Debagoiena Gizonezko bat jostun lanak egiteko prest. Barrenak, kremailarak. Telefona: 699 34 86 88.

Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. 695 58 88 63.

Neska prest umeak edo edadeko pertsonak zaintzeko. Goizez eta gauzez. 657 71 51 94.

6/ MOTORRA

601. SALDU

BMW 320 136 Coupe autoa salgai. 134.000 km. Egoera one-

an. Deitu telefono honetara: 659 04 20 99.

Fiat Escudo 1.9 TDI furgoneta. 1999koa, 166.000 km. Lo egiteko gertatuta. 665 71 73 19.

Ford Mondeo TDI. 2002. urtekoa, 90.000 km, 16 habeteko haguak, gehigarriak. Garaje-aren egon da. 652 74 81 48.

Honda 250 quada salgai. 2002koa. 4.500 km. Egoera onean. Deitu telefono honetara: 652 70 57 66.

Nissan Patrol. 6 zilindro. Auto-arendako ordeko beste motor bat ere saltzen da. Oso egoera onean. Deitu telefono honetara: 943 76 71 11.

Rieju RR Castrol motorra salgai. 50 cc. 2000koa, goera onean. Deitu telefono honetara: 600 82 73 38 edo 943 77 02 30.

Volvo V-40 auto familiarra salgai. 2000koa. 150.000 kilometro. Gorria. 7500 euro. Telefona: 943 16 19 45.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Argazki kamara. Canon EOS 300; 28-90 mm. ko objektiboa. Poltsa opari. 150 euro. Telefona: 639 90 36 18.

Argazki kamara. Olympus Camedia, D 390. 2.0 megapixel; 2.5x zoom digitala eta bi memori xartel. 60 euro. 639 90 36 18.

Aspes izozkailua saltzen dut. 325 litro. 150 euro. 943 76 41 87.

Bergara. Hektarea bateko lur-saila salgai. Oso egokia bordatxo bat egiteko. 18.000 euro. Telefona: 678 72 75 72.

Bisofa. Bata bi pertsonarentzako eta beste hiru pertsonarentzako. Gorriak, zetazkoak. 50 euro. 665 73 65 95.

Gaixoak aldatzeko garabia salgai, berria, sendoa eta erabilgarria 2.000 euro. 625 70 11 38.

Ohe artikulatu elektronikoak salgai, somier, koltxoi eta guzti. Bat metalezkoa (1.000 euro), bestea egurrezkoa (800 euro). 625 70 11 38.

Oñatin. 32 hazbeteko (pulgada) telebistarendako aluminiozko eta kristalezko mahaia salgai. Nahiko berria eta prezio onean. 685 79 19 69.

Snow taula. 1,57 m, ondo dago, merkea. (Xabi). 667 57 13 24.

Teila zaharrak saltzen dituzte prezio onean. 943 76 41 87.

806. GALDU

Arrasate. Otsailaren 10ean (zapata) Trango markako txamarra beltz bat ahaztu zuten Abaroa aurrealdean. Telefona: 605 77 23 72.

Bergara. Zilarrezko belarrikotza (uztaia) galdu dut San Lorentzo inguruan. Deitu telefono honetara: 943 76 04 54.

Ume-kotxea galdu genuen otsailaren 2an, Zaldibarren, Arrasaten. Prenatal markakoa da, laranja-beix kolorekoa. Mese-dez, aurkitu duenak dei dezala. Deitu telefono honetara: 660 48 87 40.

ULMA

Packaging **erref 04/07**

Ulma Packaging-ek, ontziratze sistema eta makinak eskaintzen dituzte merkatuari konponbide berritzaileak hornitzen liderra, lanean hasteko behar du:

KANPOKO LTZ-KO MEKANIKARIA

Formazioa:

- LHII edo izaera tekniko Mekanikoa/Elektrikoa/Elektronikoa duen goi zikloko Formazio Modulusa.
- Mantentze lanetan eta makinak martxan jartzeko prozesuan esperientzia izatea baloratuko da.
- Ingelesa jakitea baloratuko da.

Lanpostuaren Egitekoak:

- Bezeroaren etxean makinak muntatu eta/edo konpontzea eta horretan laguntzea.
- Prebentzioko mantentze lanak egitea.
- Beharrezkoak diren osagaien eskaera egitea interbentzioetarako eta piezen stock-aren mantenimendurako.
- Azoketako muntaketa eta desmuntaketa lanetan laguntza eskaintzea.

Gaitasun Profila:

- Bezeroarekiko orientazioa.
- Talde lana.
- Antolakuntza.
- Prestutasuna Filialei uneko laguntza eskaintzeko.

Interesatuok bidali curriculumak honako helbidera:
ULMA Packaging-eko GG.BB etako Departamentua Garibai auzoa 28 145 posta-kutxa 20560 ONATI Gutun-azalean lanpostuaren erreferentzia adierazi.

ERABAKI AL DUZU non jarraitu zure ikasketak?

Etorri eta ezagutu MONDRAGON UNIBERTSITATEA bertatik, ATE IREKIEN SAIOETAN

Goi Eskola Politeknikoa martxoak 8 17:30 osteguna
Arrasate-Mondragón apirilak 21 11:00 larunbata
Areto Nagusia (2. zikloa) maiatzak 24 17:30 osteguna
maiatzak 31 17:30 osteguna
(Biteri ikastetxe Nagusia) ekainak 9 11:00 larunbata

Izena emateko: 943 71 21 92
bmarkaide@eps.mondragon.edu

Goi Eskola Politeknikoa martxoak 1 17:30 osteguna
Goierri Ordizia Areto Nagusia apirilak 26 17:30 osteguna

Izena emateko: 943 88 00 62
eurkia@goierrieskola.org

Enpresa Zientzien Fakultatea martxoak 17 10:00-13:00 larunbata
Oñati Areto Nagusia maiatzak 24 18:00 osteguna

Izena emateko: 943 71 80 09
cgarate@eteo.mondragon.edu

Enpresa Zientzien Fakultatea martxoak 15 18:00 osteguna
Bidaso-Itun (2. zikloa) maiatzak 10 18:00 osteguna
Areto Nagusia maiatzak 17 18:00 osteguna

Izena emateko: 943 63 91 29
aallur@bidaso.eteo.mondragon.edu

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Esakoriatza martxoak 29 18:00 osteguna
Areto Nagusia apirilak 26 18:00 osteguna
maiatzak 31 18:00 osteguna

Izena emateko: 943 71 41 57
mireia_larrea@huhezi.mondragon.edu

www.mondragon.edu/etorkizuna



Bernardo Santacruz eta **Feliciano Ganboak** 47 urte beteko dituzte ezkontuta datorren martitzenean, otsailaren 27an. Zorionak, bikote, zuen urteurrenean eta urte asko bete ditzazuela elkarren aldamenean. Laztan handi bat, bioi, familiako guztien partetik.

VII. URTEURRENA

Oier Carballares Badiola

Zazpigarren urteurreneko meza martitzenan, otsailaren 27an, 19:00etan, Eskoriatzako San Pedro parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

III. URTEURRENA

Tomasa Zabaleta Larrañaga

Hirugarren urteurreneko meza zapatuan, otsailaren 24an, 19:00etan, Bergarako San Pedro eta Santa Marina elizetan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.


hildakoak

- **Javier Acedo Peña.** Bergaran, otsailaren 15ean. 63 urte.
- **Mariano Ibarretxe Cubero.** Arrasaten, otsailaren 15ean. 77 urte.
- **Eduardo Madinazkoitia Urtzelai.** Oñatin, otsailaren 16an. 87 urte.
- **Adelaida Amo Castrillejo.** Bergaran, otsailaren 16an. 81 urte.
- **Esperanza Ibarquen Mondragon.** Arrasaten, otsailaren 17an. 78 urte.
- **Maria Aranguren Alberdi.** Antzuolan, otsailaren 18an. 85 urte.
- **Ana Murillo Hidalgo.** Bergaran, otsailaren 19an. 87 urte.
- **Maria Dolores Barrena Zabaleta.** Bergaran, otsailaren 19an. 59 urte.
- **Maria Dolores Barrutia Altzibar.** Arrasaten, otsailaren 19an. 85 urte.
- **Pedro Caballero Caceres.** Arrasaten, otsailaren 21ean. 69 urte.

URTEURRENA

Francisco Javier Querejeta Beitia

Lehen urteurreneko meza zapatuan, otsailaren 24an, 19:00etan, Oñatiko San Migel parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

III. URTEURRENA

Victor Dueñas Cosme

Hirugarren urteurrena. Zure emazteak, seme-alabek eta bilobek betiko izango zaituzte gogoan.



Arrasaten, 2007ko otsailaren 25an.

URTEURRENA

Jose Luis Ibarguen Alonso

Txelis

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 25ean, 12:50ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Clotilde Igartua Kortabarria

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 25ean, 15:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Adelaida Amo Castrillejo

Arrasaten hil zen 2007ko otsailaren 16an, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko otsailaren 25an.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 01

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate

Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11. / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65. / Laixan euskara elkarte: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11.

Arexabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta

Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100 euro.**

Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.



ESKER ONA

Paulino Lasanta Otalora

Vicenta Uribarren Altunaren alarguna

Arrasaten hil zen 2007ko otsailaren 4an, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta maitasunez doluminak ematera hurbildu zaituzte, eskerrik asko bihotz-bihotzez familiaren izenean.



Arrasaten, 2007ko otsailaren 25an.

ESKER ONA

Maria Aranguren Alberdi

Ignacio Badiolaren alarguna

Antzuolan hil zen 2007ko otsailaren 18an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko otsailaren 25an.

AGAITI
ARIZONA JEANS
ASTIGARRAGA
ASTIGARRAGA GAM
BAMBI
BETOÑO

CEDRY
CUPLE
D'MYSTIC
DOROTI
DRACH
ENIGMA

FLORES BLANQUI
GUBY CHICAS
GUBY CHICOS
IRRITSA
KOPINA
LIDE

MEKA HOTEL
NARRUA
NIMU
PISSA
SOLOZABAL
TIERRA

TRIBUX
TTIKI
TXUKUNA
VALENCIAGA
VOSTOK
XARE

X-TREME
ZAPADRACH
ZERO
ZIG - ZAG

III. EIBAR FACTORING

2007KO OTSAILAREN 21, 22, 23 Y 24ean ARMERIA ESKOLAN



PARKING EROSKI
9:00 - 21:00
TXANTXA - ZELAI
2 Ordu Dohain Sarrerarekin



ORDUTEGIA
Egunak: 21, 22 eta 23
10:00 - 13:30 / 17:00 - 20:30
Larunbata: 24
11:00 - 14:00 / 17:00 - 20:00



18 burtetik beharagoentzat DOHAIN.

100 Euroko 3 EROSKETA-TXEKE ZOZKETA
21, 22 eta 23 eguneko sarrerekin
EIBAR FACTORINGean gastatzeko

Antolatzailea:



Laguntzailea:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

Igor Ezpeleta > Capoeira irakaslea

"Senzala mundu guztian zabaltzen ari da; guk hemen adar txikia sortu dugu"

Igor Ezpeleta eskoriatzarra orain dela lau urte hasi zen capoeira egiten. Eskoziara joan zen, ikasketekin jarraitzera, eta beste mundu bat ezagutu zuen. Herrira bueltan etorri zenean, Senzala Euskadi taldea sortu zuen beste lagun batzuekin batera. Orain, Eskoriatza eta inguruko herrietan ibiltzen da eskolak eman eta capoeira erakustaldiak egiten.

ARANTZAZU EZKIBEL > ESKORIATZA

Capoeiran ibiltzeaz gainera, Igor Ezpeleta informatika enpresa baten dabil lanean, Donostian. Gipuzkoako hiriburura joan-etorria egiten du egunero.

Nola definituko zenuke zer den capoeira?

Beti esan izan dudana moduan, capoeira zer den azaltzea nahiko gaitza da. Alde batetik, borroka arte kutsua dauka: borroka dauka, ostikadak, ihes egiteko modua...

Bestalde, musika dago; musikaren inguruan egiten den elkarriketa bihurtzen da capoeira. Bi pertsonaren arteko elkarriketa dela esan daiteke, baina helburua ez da kontaktua. Musikak jartzen du erritmoa; musika azkarra bada, borroka azkarra izango da eta musika lasaia bada, berriz, borroka poliki joango da. Musikak ezartzen du borrokaren erritmoa eta joko estiloa.

Eta akrobazia puntu bat ere badu capoeirak. Mugimendu guztiak modu politean egitea ahalbideratzen du akrobaziak. Hala, are eta ikusgarriagoa egiten da capoeira. Horrenbestez, borroka arteen, musikaren eta akrobazien nahasketa dela esan daiteke. Gainera, badu beste alderdi bat ere: kultura.

Eta zu nola sartu zinen capoeiran?

Eskoziari hasi nintzen capoeira egiten. Hemen beti futboleko ibili izandakoa naiz, baina, Eskoziara joan nintzenean, ez nuen gustuko ezer aurkitu. Behin, unibertsitatean, capoeira eskolak ematen zirela irakurri nuen, eta hala hasi nintzen. Egia esan, ez nekien oso ondo zer zen capoeira; telebistako iragarki baten ikusitakoa bakarrik nekien. Edinburgoko Senzala taldean hasi nintzen, eta gaur arte.

Ikasketa kontuengatik joan zinen Eskoziara?

Bai. Urtebete master bat egiten ibili nintzen eta gero beste urtebete lanean.

Zer dauka kirol horrek horrela lotzeko?

Lehen esan bezala, capoeira ez da kirola bakarrik; capoeiran fisiko asko lantzen da, baina hori baino gehiago da. Eskolan kirola egiten ari zaren bitartean musika jarrita dago; momentu batzuetan abestea egokitzen zaitu, eta beste momentu batzuetan instrumentuak jotzea.



A.E.

PERSONALA

Herria: Eskoriatza. **Adina:** 28 urte. **Ikasketak:** Informatika Ingeniaritza. **Eskoriatzako toki bat?** Aitzorrotz, duda barik. **Musika talde bat?** Soziedad Alkoholika. **Amets bat?** Ez daukat amets zehatzik, pozik bizi izatea da nire leloa. **Mania bat?** Ez dakit, agian

pazientzia txikia daukadala. **Gizadiaren asmakizun onena?** Sua, esango nuke. Telebista ere asmakizun ona iruditzen zait, alde on eta txarrekin. **Zerbait gorrotatzen duzu?** Bai, odol bako jendea. Nortasunik ez dutenak ez zaizkit gustatzen.

Uste dut, beste borroka arte batzuekin alderatuz, helburua ez dela bata besteari irabaztea; helburua bi pertsonaren arteko jolasa sortzea da.

Abestu, musika jo... Artista samarra izan beharko da capoeira egiteko...

Nik uste dut artista izatea baino garrantzitsuagoa dela lotsarik ez izatea. Mugimenduak ikasten diren neurrian, abesten, txaloak jotzen... Denetik pixka bat ikasten da.

Debagoienean zale asko ditu capoeirak?

Bai, nik uste dut poli-poliki gero eta jende gehiago ari dela capoeira zer den ikasten. Gure taldean ibar osoko jendea dago, gutxi gorabehera 30 lagun inguru izango gara taldean.

Eskoriatzan Euskadi Senzala taldea sortu zenuen, beste lagun batzuekin batera.

Bai. Nik, Eskozian, Senzala Scotland taldearekin ikasi nuen. Talde horiek munduan zehar zabaltzen joaten dira. Lehenengo Senzala taldea 1963. urtean Rio de Janeiroan sortu zen. Talde hartan zeuden hainbat kide munduko toki askotara zabaldu ziren eta joan ziren tokietan capoeira eskolak sortu zituzten.

Nik Brasildik etorritako kide batekin ikasi nuen Eskozian, eta, ere berean, hemen beste adar txiki bat sortu dudala esan daiteke. Senzala Scotland taldearen adar da Senzala Euskadi.

Zer esan nahi du senzala berbak?

Capoeira esklaboengandik datorren artea da. Portugalek Brasil konkistatu zuenean, esklabotzat hango jendea erabili beharreak Afrikatik hartu zituzten bost milioi esklabo. Haiek kultura ere eraman zuten Brasilera, eta, hala, capoeira sortu zen. Esklaboak bizi zirenean etxolei deitzen zieten senzala. Gaur egun fabelak deitzen diete etxola horiei.

Informatikaria zara. Horrek capoeirari buruzko blog bat sortzeko aukera eman dizu?

Bai. Gaur egun, zerbait zabaldu gura izanez gero, Internet oso aukera ona da. Hala, Goienak blogak sortzeko duen aukera aprobetxatu dugu eta bertan guri buruzko informazio guztia sartu dugu: ikastaroak, argazkiak... Denetik ikus daiteke.



AURREKARIA Blogs&Beers-en antzekoa da Wikifarra; argazkian, Elgetan egindako bat.

ARTXIBOA

TOPAKETAK > WIKIFARRA

Teknofiloiei zuzendutako Wikifarra topaketa izango da gaur Arrasaten

Blogs&beers jaialdien antzekoa izango da gaur Arrasaten egingo duten Wikifarra, baina alde nabarmen batekin: ordenagailua etxean utziko dute

te urrats bat egin dute, eta Wikifarra topaketa antolatu dute gaurko. Arrasateko plazan elkartuko dira, 20:00etan. Jaialdi horren berezitasuna zera da: blogak eta ordenagailuak etxean uztea gomendatu dute: "Ez dugu ordenagailurik eramango, ez da wifirik egongo eta Euskal Herriko sare sozial zabalena erabiliko dugu: taberna", esaten dute antolatzaileek.

DENA INTERNET BIDEZ

Interneten eta teknologiaren inguruan dabiltzanak batzeko eta ondo pasatzeko egun moduan dago pentsatuta Wikifarra, eta giro horretako edozeini dei egiten diote izena emateko.

Parte-hartzaileen zerrenda zabalik dagoen neurrian, zabalik daude baita ere non afaldu, zein tabernatara joan... Internet-zale on bezala, sarearen bidez komu-

nikatuko dira egunotan parte-hartzaileak, wikifarra.wikispaces.com helbidean. Han eman daiteke izena eta proposamenak egin. Hala, zehaztu beharreko gaiak hauek dira: non afaldu -aukera asko zerrendatzen dituzte-, non eta ze ordutan batu, eta zertaz berba egin ere. Izan ere, teknofiloen jaialdia izango bada ere, teknologiaz ez ezik, beste gai askotaz berba egiteko aukera ere izango dute. Orain arte proposatuta dagoena hauxe da: "Zergatik hain neska gutxi Interneteko istorio hauek, eta daudenak zergatik dira hain onak?".

DEIALDIA ZABALDU

Ordu gutxi geratzen diren arren, deialdia zabaldu gura dutenek badute horretarako aukera; izan ere, nork bere blogean, kalean... jartzeko kartelari eta logoari loturak daude webgunean.

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Ordenagailuek eta wi-fi sareak jende asko batu dute espazio birtualean, eta elkar ezagutzeko eta elkarrekin berba egiteko topaketak etorri ziren gerora, Blogs&Beers delako topaketak; Euskal Herrian ere egin izan dira, horietako bat Elgetako Espaloia antzokian. Bada, orain, Arrasateko Internet-zale batzuek bes-

teknologia berriak

> ARGAZKILARITZA

Bideoak eta argazkiak egiteko Olympus-en zazpi megapixeiko argazki kamera berria

Hau da Olympus-ek merkaturatuko duen zazpi megapixeiko argazki kamera berria.

Olympus SP-550UZ kamera berriak 7,1 megapixeiko CCD sentorea du, 18x-eko zoom optikoa eta 21 megako barne memoria, xD txartelekin handi daitekeena. Kamera horrek irudiak RAW eta JPG formatuetan gordetzeko aukera ematen du eta ISO 5000 sentikortasuna dauka; gainera bideoak graba ditzake 30 fotograma segundoko MPEG4 formatuan.



Olympus SP-550UZ kamerak 18x-eko zoom optikoa eta ISO 5000 sentikortasuna du.

> WIDGET-AK

Widget Station, zure ordenagailuaren pantailatik etxeko mahaigainera 'widget'-ak ateratzeko gailua

Modan jarri diren aplikazio txikiak dira *widget*-ak. Programa ordenagailuaren mahaigainera instalatzen da. Sarri erabiltzen diren funtzioak eta informazio bisuala ematen dute; erlojuak, egutegiak, agendak, herriko informazio meteorologikoa, eta abar.

Emtrace Technologies-ek Widget Station garatu du. Wi-fi bidez, enpresak eskaintzen dituen *widget*-ak deskarga ditzakezu edo zureak garatu eta partekatu, LCD pantaila baten ikusteko.



Iratzargailu itxura du eta askotariko aplikazioekin pertsonaliza daiteke

> TELEFONIA MUGIKORRA

LG KE850, Prada moda etxeak eta LG enpresak elkarlanean garatutako poltsikokoa

Aurrealde osoa hartzen duen hiru hazbeteko ukimen-pantaila du eta Macromedia Flash teknologia darabilen interfaze minimalista du, eta zuri-beltzeko ikonoak bakarrik erabiliko ditu.

Prestakuntzak, honako hauek: 2 megapixeiko argazki kamera (flasha barne), GSM/GPRS/ EDGE konexioa, bluetooth, MP3 eta MPEG4, Office eta PDF ikustailea.

Hil bukaeran, Erresuma Batuko, Frantziako, Alemanian eta Italiako Prada dendetan 600 eurotan salgai egongo da.



iPhone-ren lehiakidea izan daitekeen LGren ukimen pantailadun poltsikokoa.

Zure negozioaren erakusleioa Interneten

www.goiena.net-eko **blog komertzialak**

www.goiena.net/blogak

- | | | | | |
|----------------|------------------|---------------|---------------|-----------|
| /aebpn | /dragon-oriental | /gertu | /maulanda | /udalaitz |
| /aiastui | /dukiena | /gorkataxi | /mayte | /urdeki |
| /aretxargi | /ego | /gurea | /merkeopari | /urbieta |
| /argi-plastik | /ekilore | /gutzieder | /multiopticas | /vitoria |
| /arregi | /ekin | /hamaika | /ohiak | /zainduz |
| /atai | /elejalde | /itxaseder | /ogizun | /ziripot |
| /azkarate | /ezkutuorly | /irudisport | /okipark | |
| /bastida | /galgorri | /jracing | /otzeta | |
| /briz-asegurak | /gallastegi | /joseba | /pando | |
| /BZ-sistemas | /ganesha | /korozabaleta | /richimaier | |
| | /garaia | /markiegi | /tabernerri | |

Eta baita ere:

- www.aizue.com
- www.lilura.com
- www.baster-aldejatetxea.com
- www.ehmff.com
- www.gelatzu.com
- www.haurtxoa.com
- www.klorofila.com
- www.landaluze.com
- www.uxarte.net



berriak

> GOITB

**'Eltze beroa' saioa
astean bitan
izango da**

Datorren astetik aurrera *Eltze beroa* sukaldaritza saioa eguztaren eta egubakoitz arratsaldean ikusteko aukera izango da. Lehen, Tipi-tapa telebistak ekoizten zuen programa eta sukaldari nafarrek hartzen zuten parte. Orain, ordea, Goizmendi telebista dela eta, Urdaibaiko sukaldariak ere ikusi ahal izango dira. Horrenbestez, plater goxoak nola prestatzen diren ikasteko aukera GOITBn.

> GOITB

**Aratusteak berriz
gozatzeko aukera
asteburuan**

Zapatuan 15:00etatik 16:00etara eta domekan 21:00etatik 22:00etara Aratusteen gaineko saio bikoitza eskainiko du GOITBk. Aretxabaletako ospakizunaz gain, Tolosakoaz ere gozatu ahal izango dugu aste bukeran. Tolosaldeko 28. Kanalarari esker, Tolosako Inauteriak gertutik bizi izango ditugu. Bihar eta etzi, beraz, Aratusteak berriz bizi izateko aukera izango dugu.

>ARRASATE IRRATIA

**Herritarren kexen
gainean jardun dugu
asteko BAZ geltokian**

Hamabostean behin, eguene-netan, Edurne Muxika, BAZ bulegoko arduraduna, igotzen da 107.7ko uhinetako autobusera. Astean egin digun bisitan, herritarrek Udalarri jarritako kexak aztertu ondoren kexa bat jartzeko orduan jarraitu beharreko bide eta bete beharreko pausoak azaldu dizkigu.

*Asteko gainbegiratu*a saioan berreskuratu ditugu Muxikaren azalpenak.

> ARRASATE IRRATIA

**Merkatu txikiaren
geltokia eguaztenero
107.7ko autobusean**

Eguaztenero hurbiltzen gara merkatu txikiaren geltokira. Han entzuleen oharrak irakurtzen ditugu, besteak beste, zerbait saldu edo erosi, etxebizitza errentan eman edo hartu, edo zerbait saldu edo aurkitu dela dioten oharrak. Modu baten esanda, zubi lanak egiten ditugu geltoki horretan. Horregatik, bada, bidali zurea ere: *irratia@goiena.com* helbidera idatzita edo 943 71 17 31 zenbakira deituta.

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

Virginia Imaz klowna gaur gauean 'Ilunpean' saioan

'Ilunpean' saioan Virginia Imazen bizimodua nolako den jakingo dugu gaurkoan

GOIENKARIA > ARRASATE

Gaur, 22:15ean, Virginia Imaz donostiarra izango da gonbidatua *Ilunpean* saioan. Emakume hori, irakasle izateaz gain, pailazo eta ipuin kontalari ere aritzen da.

Virginia Imazek hiru lanbideak nola uztartzen dituen kontatuko digu. Horrez gain, guraso ere bada, eta amaren bizimoduaz ere mintzatuko zaigu.

Amatasuna eta entretenimendua izango ditugu, beraz, hizpide. Bestalde, emakume donostiar hori Bergaran bizi da, eta hiriburutik herrira dagoen aldea ere azalduko digu.



VIRGINIA IMAZ Oihulari Klown taldean ibilbide luzea darama.

GOIENKARIA

'KORRIKA 07' > EGUAZTENA, 21:15

Korrikaren gaineko mahai-ingurua eta erreportajea eguaztenean

GOIENKARIA > ARRASATE

Aurten Korrika 15 ospatuko da *Heldu Korrikari, heldu euskarari* lelopean, eta euskal emakumea omenduko dute. Karrantzan hasi eta Iruñean bukatuko da ibilbidea. Oraingoan, Niko Etxartek idatzi ditu abestiaren

hitzak eta hainbat laguntzaile izan ditu abesteko: Barricada taldeko *Drogas*, Hapa-Hapa taldea, Zuberoako Amaren alabak... Korrika gure ibarretik martxoaren 23an eta 24an igaroko da; horregatik, eguaztenean, hilak 31, *Korrika 07* saio berezia izan-

go da GOITBn, 21:15ean:mahai-ingurua izango da lehenengo ordu erdian eta ondoren erreportajea eskainiko dute.

Mahai-inguruan hartuko dute parte Edurne Brouardek (Korrikaren nazio mailako antolatzailea) eta Oskar Elizburuk (Debagoieneko antolatzailea), besteak beste. Korrikak emakume euskaldunak omentzen dituenez, horren inguruan jardungo dute hizketan. Erreportajearen, aldiz, agertzen zaizkigu bideoklipa, ibilbidearen gaineko xehetasunak, testigantzak, eta abar. Ikusteak izango da.

telebegi

Unai Moraza

Internet eta 'Heroes'

Internet telebista ikusteko ohiturak aldatzen ari da. Gazteon artean erraz antzeman daiteke. Etxean ADSLa eduki baino lehen, botatzen zuten guztia irensten nuen, eta VHS-bideoa lanean zegoen telesail guztiak grabatu ahal izateko.

Baina gaur egun Internetera konektatzeko dauden abiadurekin gauzak bestelakoak dira. Nahi dudana ikus dezakegu, nahi dugun ordutegian. Eta publizitaterik gabe. Neu naiz nire etxeko telebista-katearen programatzailea. Kate arruntak kirolak ikusteko eta zapping egiteko, askoz gehiagorako ez.

Internet bidez jarraitzen dudana telesail horietako bat *Heroes* da. USAn arrakasta itzela lortzen ari da. Hemen ETBk lortu ditu emisio-eskubideak. Oraindik ez dute aditzera eman lehen ala bigarren katean emitituko duten. Lehen katean bada hobe, ETB-1ek kalitateko produktu gehiago behar baititu. Baina has dadila lehenbailehen, bestela jendeak Internet bidez ikusiko du, ingelesez eta azpitituluekin. Telebista-programatzaileek gauzak aldatu egin direla ulertu behar dute.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.
Ana Urkiza, idazlea; Irati Arantzabal, Edurne Muxika BAZ Geltokian; Arizmendi Ikastolako Olarte guneko haurrak Aratusteen gainean berbetan; zinemaren geltokian, Amaia Labaien...

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

**Astelehenetik
egubakoitzera**

10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Lorategiaren geltokia: Bergarako Gorosti loradendako Irene Zenitagoiarekin
Opariak: kultura ekitaldiarako sarrerak eskuratzeko aukera
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

GOITBko
programazioa**Egubakoitza, 23**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musikantoi. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Eltze beroa 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu-Fernando Anbustegi. 16:15 Hitz bitan 16:45 Albistek. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Mahai ingurua. 18:45 Albistek. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Iragana gogoratuz 22:15 Ilunpean-Virginia Imaz. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 24

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketa, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusmira. 11:30 Jazmina. 12:00 Aste-koak. 12:15 Gatza ta berakatza. 12:30 Erreportaia 13:00 Eltze beroa 13:30 Mahai ingurua. 14:30 Musikantoi. 15:00 Aretxabaletako Aratustek 07. 15:30 Tolosako Aratustek 07. 16:00 Didjeridu. 16:30 Ilunpean. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Klip@. 20:00 Iragana gogoratuz. 20:30 Erreportajea. 21:00 Berbaire. 22:00 Aste-koak. 22:15 Klip@. 22:30 Ilunpean. 23:00 Didjeridu. 23:30 Musikantoi. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 25

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Fernando Amezketa eta Trikitraka trikitron. 11:00 Iragana gogoratuz. 11:30 Musikantoi. 12:00 Ur eta lur. 12:30 Klip@. 13:00 Gatza ta berakatza. 13:15 Mkt. 13:30 Berbaire. 14:00 Didjeridu. 14:30 Ilunpean. 15:00 Ikusmira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Jazmina. 18:30 Iragana gogoratuz. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur 20:30 Erreportajea. 21:00 Aretxabaletako-Aratustek 07. 21:30 Tolosako Aratustek 07. 22:00 Mahai ingurua. 23:00 Berbaire. 23:30 Ilunpean. 00:00 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 26

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Teknopolis. 14:15 Iragana gogoratuz. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Ilunpean 15:45 Gaurkoak. 15:47 Klip@. 16:15 Bizitegia 16:45 Albistek. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ur eta Lur. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Albistek. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea 22:15 Telesaila. 22:45 Berriak. 23:15 Didjeridu. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ikusmira. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 27

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketa. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmailatik. 14:15 Erreportajea. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Didjeridu 15:45 Gaurkoak. 15:47 Hasiberriak. 16:15 Ikusmira 16:45 Albistek. 17:15 Fernando Amezketa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Klip@. 18:30 Bizitegia. 18:45 Albistek. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketa. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea 22:15 Harmailatik. 22:45 Berriak. 23:15 Iragana gogoratuz. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Harmailatik. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 28

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Erreportajea. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Ur eta lur 15:45 Gaurkoak. 15:47 Hasiberriak. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Albistek. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Harmailatik. 18:15 Iragana gogoratuz. 18:45 Albistek. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Korrika 07. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Korrika 07. 22:15 Telesaila. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ur eta lur. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 1

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketa. 13:45 Gaurkoak. 13:47 korrika 07. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Teknopolis. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Erreportajea. 16:15 Ikusmira 16:45 Albistek. 17:15 Fernando Amezketa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Eltze beroa. 18:15 Hasiberriak. 18:45 Albistek. 19:15 Bizitegia-Klip@. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketa. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Musikantoi 22:15 Didjeridu. 22:45 Berriak. 23:15 Erreportajea. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.



680 641 401
676 952 968

ANDAMIORIK
GABEKO
LANAK



Fatxaden eta barruko patioen berrikuntza eta pintaketak

Teilatuak • Kanaloiak • Bajanteak • Tximiniak • Altuerako kimatzeak

2+1=35

GOIENKARIA 2 eta Pendrive 1; **35 euro**

Ez gabilta txantxetan. Egia da, gezurra dirudien arren. Urtean 35 euroren truke, Goienkaria bi egunean eroango dizugu etxera, egubakoitzetan eta astelehenetan, urte osoan! Eta, horretaz gain, USB lapitz edo Pendrive bat opari egingo dizugu. Bikaina, ezta?



+



= 35
euro

Deitu telefono honetara 09:00etatik 18:30era:
902-36 38 51

Otsailak 23 martxoak 2

MONIKA BELASTEGI

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Erakusketa



ESKORIATZA

> *Buztina eta sua* delako erakusketa gaurtik aurrera Ibarraundi museoa

2005ean zeramika bilduma erosi zuen Udalak. Euskal Herriko etxeetan egunero erabili izan diren piezek osatzen dute bilduma. Halako hainbat piezarekin irekiko dute erakusketa gaur, 18:00etan. Martxoaren 11ra arte egongo da ikusgai.

Euskarazko film laburrak



ARRASATE

> Euskara elkarten film laburren zirkuitua eguaztenean kultura etxean

Euskarazko Film Laburren Zirkuitua Arrasatera iritsiko da otsailaren 28an. Emanaldia kultura etxean izango da, 19:00etan, eta ikusi ahalgo dira: *Osaba Jaxinto*; *Xoxoak beleari, ipurbeltz*; *Sarean*; *Midori*; *Bilintx*; eta *Loturak*.

Rock kontzertua



BERGARA

> Potemkin, Amonal eta Lukrecia Oñatiko taldeak, gaztetxean

Oñatiko erROCKalde-ko sotoetan egiten den musika ezagutzeko aukera izango dute zapatuan Bergarako gazte-txera hurbiltzen direnek. Potemkin (iurdian), Amonal eta Lukrecia taldeek emanaldia egingo dute, 22:30ean.

Otsailaren 25era arte egongo da ikusgai.

BERGARA

> Iraia Artzamendi margolaria- ren erakusketa

Arrasateko margolariak Nahikari tabernan jarri du margo erakusketa. Paperean egindako hamaika marrazkik osatzen dute erakusketa.

Nahikari tabernan hil bukaera arte.

Ospakizunak

OÑATI

> Zuhaitz Eguna ospatzeko landaketa egingo dute

Natura Eskolak antolatutako Ingurumen Astearen barruan izango da landaketa. Duru-Aloña inguruko herri lurretan egingo dute.

Etzi, domeka, egin dute hitzordua, 10:00etan, plazan.

Antzerkia

ESKORIATZA

> Oihulari Klownek emanaldia egingo du

La espera antzezlanaren egingo du. Umorezko hausnarketa da, maitasunaren, desiraren eta sedukzioaren gainean ditugun estereotipoak buruz. Aitzorrotz kultura elkarteak antolatuta du.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Inkernu tabernan.

Musika

BERGARA

> Kilometroak 07ren aldeko kontzertua gaur

Matx (Elgeta) Radio Wings (Arrasate), Aby Kem (Bergara) eta Yotox (Bergrara) talde eta bakarlariek egingo dute emanaldia.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Jam aretoan.

ARRASATE

> The Avengers, Lobo Electrico eta Los Creteños

3.60 aretoan egingo dute emanaldia hiru taldeek. Gero, DJ saioa egongo da Mansilla Rock-and-rollekin.

Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

ARRASATE

> Nacho Vegas-en emanaldia Amaia antzokian

Mantha Ray taldean aritu eta gero, hiru disko ateratu ditu bakarlariek. Duela hilabete gutxi, Enrique Bunburyrekin batera ateratu du *El tiempo de las cerezas* izeneko lana.

Bihar, zapatua, 20:00etan, Amaia antzokian.

BERGARA

> DJ gaua egingo dute Ziripot tabernan

Papi disko jartzaile soralu-

zetarrak jardungo du musika jartzen.

Gaur, egubakoitza, 23:00etatik aurrera.

ESKORIATZA

> Kuk taldeak emanaldia egingo du Inkernu tabernan

Talde akustikoa da. Aitzorrotz kultura elkarteak antolatuta du emanaldia.

Bihar, zapatua, 22:30ean.

Hitzaldiak

OÑATI

> Hiru hitzaldi egongo dira Ingurumen Astearen barruan

Astelehenean, *Katamotz iberiarra*; galtzearen *dagoen felinoa* delako hitzaldia egingo du Fernando Martinez Doñanako ikerlari taldeko kideak; martitzenean, *Lurraldea eta espezieak babestearren erroka* izango du berbaigai Kiko Al-

varez Urdaibai Biosfera Erreserbako zuzendariak eta eguaztenean, *Landaretzaren kontserbazioa* izango du hizpide Iñaki Aizpuru Aranzadi Botanika saileko arduradunak.

Kultura etxean, 19:00etan.

ESKORIATZA

> Rakel Encinak hitzaldia egingo du Amuskak antolatuta

Mujeres generando paces delako kongresuaren gaineko gogoetak egingo ditu Rakel Encinak.

Hilaren 27an, 18:00etan, kultura etxean.

BERGARA

> Zinema eta historiaren arteko harremana hitzaldien oinarri

Errusiako 1917ko iraultza eta Sobiet Batasunaren erakuntza delako hitzaldia egingo du Juantxo Madariagak. Gertaerok azaltzeko film zatiak erabiliko ditu.

Hilaren 28a, eguaztena, 18:30ean, Miguel Altuna institutuan.

Erakusketak

OÑATI

> Jose Luis Gonzalezen eskultura erakusketa

Gaur, egubakoitza, hasi eta hilaren 25era arte Jose Luis Gonzalezen eskultura erakusketa dago ikusgai kultura etxean.

Orduetgia: asteleheneetik domekara, 18:30etik 20:30era.

OÑATI

> Jose Angel Aretaren argazki erakusketa, Aroztegi aretoan

Jose Angel Areta Goñi *Juxe-k Amazoniako oihanetik Pazifikora* izeneko argazki erakusketa jarri du ikusgai Barrenkaleko Aroztegi erakusketa aretoan.

PROPOSAMENA

BERGARA

> Lordi taldeak emanaldia egingo du Jam aretoan martxoaren 3an

Maiatzean jokatu zen Eurovision txapelketako finala, Atenasen, eta jende asko zur eta lur utzi zuen txapelketako epaiak: Finlandiako Lordi talde metalzaleak irabazi zuen, *Hard rock hallelujah* kantuekin. Bada, datorren aste bukaeran Jam aretoan izango da taldea. Iaz urrian egitekoak ziren Bergarako emanaldia, baina atzeratu egin behar izan zuten. Sarrerak dagoeneko salgai daude.

Martxoaren 3an, 21:00etan.



Lehiaketak

GIPUZKOA

> Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako izenematea

Irailean izango den arren, dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. Txapelketan izena eman nahi duenak hiru modutan egin dezake: www.berzozale.com helbidean, Gipuzkoako Bertsozale elkartera deituta (943 67 05 75) edo elkarteak Tolosan duen egoitzara jotuta.

Izenematea otsailaren 28ra arte luzatuko da.

OÑATI

> Oñatiko IV. Bertsolari Txapelketa hasiko da laster

Martxoaren 3an hasiko da Oñatiko IV. Bertsolari Txapelketa. Orduan egingo dute lehenengo kanporaketa. Hiru kanporaketa izango dira guztira –martxoaren 10ean eta 17an hurrengo biak– eta bakoitzean sei bertsolarik jardungo dute. Finala martxoaren 31n izango da.

Emanaldiok Portu tabernan izango dira, 18:00etan.

Ikastaroak

ARRASATE

> Taila ikastaroa emango du tailagileen elkarteak

Artek, Arrasateko Tailagileen Elkarteak, ikastaro berria jarri du martxan. Hasierako maila da eta Tailagileen elkarteren egoitzan –Erguin kalea 19, beheko emango dituzte eskolak. Izena emateko deitu gau aldera 645 70 59 13/943 79 40 79 zenbakietara (Felix) edo 943 79 77 57 zenbakietara (Jose Mari).

Izenematea zabalik dago.

nire aukera



Samuel Gorrotxategi
Elgetako Espaloia Kafe
Antzokiko langilea

Domeka goizean,
mendi buelta

Eskiatzea gustuko du, eta, hortaz, eskiatzera joatea da Samuel Gorrotxategi aste bukaeran gustura egingo lukeena: "Denbora libre laburra dut-eta".

Urteko gainerako sasoietan mendira joatea atsegin du, domeka goizean batik bat: "Mugarra da gehien gustatzen zaidan mendia. Mendi buelta egin eta gero, lagunekin eta familiarekin poteotxo egitea gustatzen zait, Durangoko Goenkalean".

Hori guztia, dena den, ahal duenetan egiten duela aitortu du Gorrotxategi: "Badakizu, ostalarion lana oso lotua da-eta".

Espaloiak zer ekarri dio
Elgetari?

Ezagutzera eman du Euskal Herrian.

Eta zuk zer ekarriko zenuke
Espaloira?

Musika talde *potente* bat. Euskal Herriko bat esateko-tan, Doctor Deseo.

Eguna ondo hasteko, gosari
lasaia egunkariarekin
lagunduta...

Ez dut astirik izaten. Jogurta jaten dut etxean eta gero, Espaloira iristean, kafesnea hartzen dut.

Film bat.

Bere garaian asko gustatu zitzaidan *El silencio de los corderos* eta baita *Rojo, Azul* eta *Blanco* trilogia ere.

Musika talde bat.

Reggaea egiten duen edozein.

Aste Santua geroago eta
gertuago dago. Planik bai?

Lan egitea. Dena den, astebururik libre izanez gero, baserri turismo batera joango gara.

Zinema

ARAMAIO
KULTURA ETXEA

Charlie eta Louise
Domeka: 17:00.

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA

El truco final
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Perez gure sagutxo hori
Domeka: 17:00.

Agua
Eguena: 20:30.

ELGETA
ESPALOIA ANTZOKIA

Jorge el curioso
Domeka: 17:30.

El asesinato de Richard Nixon
Eguaztena: 21:30.

OÑATI
KULTURA ETXEA

El truco final
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Kubo magikoa
Zapatua eta domeka: 17:00.

Apaga y vamos
Eguena: 20:00.

PORTU TABERNAN

Amelie
Domeka: 21:00.

ESKORIATZA
IBARRAUNDI
MUSEOA

Spy kids
Domeka: 17:30

ANTZUOLA
OLARAN ETXEA

Braceface, burdin aho
Domeka: 16:30

EIBAR
UNZAGA

Diamante de sangre
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00,
19:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta
eguztzena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ
GURIDI

Noche en el museo
17:30.

Ghost rider
17:30, 20:00, 22:30.

Diamante de sangre
17:00, 19:45, 22:30.

El grito 2
17:30, 20:00, 22:30.

Corto Maltes
Egubakoitza: 20:00, 22:30
Zapatua eta domeka: 18:45,
20:30, 22:30.

Bosque de sombras
22:30.

Manuale d'amore 2:
corregido y aumentado
20:00, 22:30.

Sin Chan: los adultos
contraatacan
Zapatua eta domeka: 17:00.

En busca de la felicidad
17:30, 20:00.

Ciudad del silencio
17:00, 19:45, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Babel
19:45.

Cartas desde Iwo Jima
17:00, 19:45, 22:30.

Voces en la noche
17:00, 20:30, 22:30.

El libro negro
17:00, 19:45.

El ultimo rey de Escocia
17:30, 20:00, 22:30.

Miss Potter
18:35.

La vida de los otros
17:00, 19:45, 22:30.

Paris, je t'aime
17:30, 20:00, 22:30.

Venus
17:30, 20:00, 22:30.

ÁBACO-LAKUA
ZINEMAK

Ciudad del silencio
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Voces en la noche
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Ghost rider
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Bosque de sombras
16:00, 18:15, 20:30.

Diamante de sangre
16:00, 19:00, 23:00.

En busca de la felicidad
18:15, 20:30, 23:00.

Noche en el museo
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

Infiltrados
23:00.

El laberinto del fauno
16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

La caja Kovak
20:30, 23:00.

Arthur y los Minimoys
16:00.

Happy feet
16:00.

Ratonpolis
16:00, 18:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitz
eta zapatuan.
Eguena, ikuslearen eguna.

YELMO
CINEPLEX-GORBEIA

El grito 2
12:15, 16:20, 18:20, 20:20,
22:20, 00:20.

Ciudad del silencio
12:15, 16:00, 18:00, 20:00,
22:00, 00:00

El motorista fantasma
12:15, 15:45, 17:15, 18:15, 19:30,
20:30, 21:45, 22:45, 00:00,
00:15.

Diamante de sangre
12:15, 16:00, 18:45, 21:30,
00:15.

En busca de la felicidad
12:15, 15:45, 18:00, 18:50,
20:20, 21:35, 22:35, 00:10,
00:50.

El libro negro
21:50, 00:30.

Sin Chan
12:15, 16:05, 18:05.

Dias de cine
20:05, 22:10, 00:15.

Noche en el museo
12:15, 16:15, 17:30, 18:30,
19:40, 20:40, 22:45, 00:55.

Dreamgirls
12:15.

Miss Potter
12:15, 16:15, 18:00.

Apocalypso
19:00, 21:45, 00:25.

Juegos secretos
18:50, 21:35, 00:10.

Todos contra el
12:15, 16:30, 17:15.

El truco final: El
prestigio
19:45, 22:15, 00:45.

Arthur y los Minimoys
12:15, 16:30.

El Ratoncito Perez
12:15, 15:35, 17:15.

Happy feet
12:15, 15:30, 17:55.

El laberinto del fauno
20:00, 22:15, 00:40.

Infiltrados
19:00, 21:45, 00:30.

Volver
12:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitz
eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna
(jaiegunak izan ezik).

ÁBACO
BOULEVARD

El grito 2
12:00, 16:10, 18:10, 20:15,
22:25, 00:45.

Voces en la noche
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15,
00:30.

Ghost Rider
12:00, 17:00, 19:30, 22:05,
00:45.

Manuale D'amore 2
12:15, 01:00.

Diamante de sangre
12:00, 16:25, 19:20, 22:10,
01:00.

Todas contra el
12:15, 16:00, 18:05, 20:10.

Juegos secretos
22:15, 01:00.

En busca de la felicidad
12:00, 17:00, 19:40, 22:20,
01:00.

Ases calientes
19:40, 22:00, 00:30.

Noche en el museo
12:10, 15:45, 17:00, 18:00,
20:15, 22:30, 01:00.

Dreamgirls
12:00, 17:00.

Apocalypso
19:15, 22:10, 01:00.

Babel
12:00, 16:20, 19:10, 22:00,
01:00.

Arthur y los Minimoys
12:10, 17:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz
eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguena, ikuslearen eguna.



Cartas desde
Iwo Jima ****

Zuzendaria: Clint Eastwood.
Aktoreak: Ken Watanabe, Kazunari
Ninomiya, Tsuyoshi Ihara.
AEB. 2007.

Clint Eastwood Iwo Jima batailako bi alderdi desberdinei hurbildu da. *Cartas desde Iwo Jima*-rekin irla horretan gertatutakoa japoniarren ikuspuntutik aztertu nahi izan du, eta konatatutakoari sinesgarritasun handiagoa emateko filma japoniarrez filmatua izan da.

Cartas desde Iwo Jima-k zehatz-mehatz erakusten digu gudu baten izatea zer den. Bataila famatua hasi baino lehenago izaten diren prestaketa guztiak eta bizi baldintzak ikusteko aukera izango dugu, baita bataila nolakoa den eta batailaren ondorio guztiak. Armadan bildutako pertsona, pentsaera eta jokabide desberdinak ezagutuko ditugu: zorrotasuna, ankerkeria, ohoreari buruzko ikuspuntu desberdinak, ausardia, beldurra, etsaienganako jarrera ulerkorra duten gudariak, gudari basatiak... Gudua eromena da eta momentu horietan jokabide desberdinak egoten dira talde guztietan, baina, azken finean, nahiz eta kultura desberdinekoak izan, leku guztietako gizakiok pentsatzen duguna baino gertuago gaude.

Hori dena Eastwoodek maitasunaz deskribatzen du. Gertatzen diren une latzak eta biolentzia modu zuzenean eskaintzen zaizkigu, eta gertakizun onorioak argi azaltzen dira pertsonaien aurpegietan. Filmean bikain ikusten dira guduaren osotasuna (plano jeneralak) eta pertsonaien banakako alderdia (*flash-back*-ek ondo adierazten dute pertsonaien gogoetak). Denok era berean berdinak eta desberdinak gara, eta filmean esaten zaigu halako egoera nahasi eta eroetan portaera zuzenena aurkitzen jakin behar dugula.

Antonio Zabala

Eskasa:* Balekoa:** Ona:*** Oso ona:**** Bikaina:*****

Ases calientes **

AEB-EB-Frantzia, 2006. Zuzendaria: Joe Carnahan. Aktoreak: Ryan Reynolds, Jeremy Piven, Ray Liotta, Andy Garcia, Ben Affleck. 109 min. Primo Sparazza mafiako buruak milioi bat dolar emango du Buddy Israel *Aces* azitia eta lekukoa hiltzeko. FBiko bi agentek zainduko eta babestuko dute Israel, baina hiltzaile ugari gerturatuko zaizkio diruaren usainean.

Pulse

AEB, 2006. Zuzendaria: Jim Sonzero. Aktoreak: Kristen Bell, Ian Somerhalder, Christina Millan, Jonathan Tucker. 90 min. Beldurrezko filma. Josh hacker trebea da. Egun batean, Interneteko gune batean sartzerakoan, deabruzko izaki bat eskatuko du. Birus baten forman, izakia hiltzen hasiko da.

Miguel y William

Espainia, 2006. Zuzendaria: Ines Paris. Aktoreak: Elena Anaya, Juan Luis Galiardo, Will Kemp, Josep Maria Pou. 95. min.

Leonor de Viberok Londres utzi du, eta Gaztelara itzuli da, duke aberats eta zahar batekin ezkontzeko. Espainiar Miguel de Cervantesekin egingo du topo. William Shakespeare ere azalduko da, Leonorren maitasunaren bila.

Babel ****

AEB, 2006. Zuzendaria: Alejandro Gonzalez Inarritu. Aktoreak: Brad Pitt, Cate Blanchett, Gael Garcia Bernal, Elle Fanning, Koji Yakusho, Adriana Barraza, Rinko Kikuchi. 142 min. Drama. 13 urtetik gorakoendako.

Estatu Batuetako bikote bat Marokon dagoela gertakari larri batek gertakizun katea ekarriko du. Gertakizun kate horrek lau kontinentetako familia banarengan eragingo du. Jatorri eta kultura oso ezberdinetakoak badira ere, laurak ondorio bera aterako dute: familia da benetako kontsolamendua.

El ilusionista ***

AEB, 2006. Zuzendaria: Neil Burger. Aktoreak: Edward Norton, Jessica Biel, Paul Giamatti, Rufus Sewell.

Eddie Marsan, Vincent Franklin. 110 min. Drama. 13 urtetik gorakoendako.

Begi bistakoak ez du zertan egia izan. Egoera horretan errealitatea non bukatu eta fikzioa non hasten den bereizten saiatuko dira eskujokari bat eta polizia bat.

Banderas de nuestros... ****

AEB, 2006. Zuzendaria: Clint Eastwood. Aktoreak: Ryan Phillippe, Jesse Bradford, Adam Beach. 132 min. 18 urtetik gorakoendako. 1945 urteko otsaila. II. Mundu Gerra. Iwo Jimako bataila odoltsuan, sinbolo bihurtuko den argazki bat aterako dute: sei soldadu estatubatuar agertzen dira, Suribachi mendian, AEBetako banderari eusten. Clint Eastwoodek guduari buruzko beste film bat egin du, baina japoniarren ikuspegitik.

En busca de la felicidad

AEB, 2006. Zuzendaria: Gabriele Muccino. Aktoreak: Will Smith, Thandie Newton. 117 min. Adin guztietarako. Afera ekonomiko korapilatsu batuzen

ostean, Chris langabezian geldituko da, eta dirurik gabe. Bikotekideak ere utzi egingo du. Orduan semea zaintzen gelditu beharko du, eta baliabide ekonomikorik ez maitasunarekin ordezkatu.

Infiltrados ***

Alemania-Frantzia-Espainia, 2006. Zuzendaria: Tom Tykwer. Aktoreak: Dustin Hoffman, Ben Whishaw, Alan Rickman. 147 min. 18 urtetik gorakoendako. Paris, XVIII. mendea. Jean-Baptiste Grenouillek mundua usaimenaren bitartez ikusten du. Amestutako lurrina lortzeko ezagutzak izango ditu, gainera. Hainbat emakumezko dute lurrin preziatu hori.

Happy feet **

AEB-Australia, 2006. Zuzendaria: George Miller. Marrazki bizidunak. 98 min. Adin guztietarako. Pinguinoen herrialdean, Antartikan, kantu baten bitartez aurkitzen dute bikotekidea pinguino espezie bakoitzeko kideek. Baina Mumblek oso zaila du bikotea aurkitzea, ez baitaki kantatzen. Dantzan, ordea, primeran daki.

Etor zaitez zinemara urte guztian, DOAN.

Asma ezazu eta irabaz ezazu 2007an zinemara doan joateko ABACO eta CINEBOXen VIPCard txartela.

Oscarrak



Parte hartu gure webgunetik
www.cinesabaco.com / www.cinebox.es

Nahi izanez gero, 7744 zenbakira SMS bat bidali, ABACOCINEBOX + film zenbakia + herria bertan jarrita Adb. ABACOCINEBOX 2 BURGOS eta bidal ezazu 7744 zenbakira.

Mezuaren kostua 0,90 +BEZA. Oinarriak www.cinesabaco.com webgunean eta zinemetako txartel leihatletan.

Buruhandien lehia Oñatin

OÑATIN Antton tabernak buruhandien lehiaketa egin berri du eta Bizente Ezkurra izan da garailea

ARATUSTEAK Eguen-gizenean txapelketa xelebreak egin dituzte azken bi urteotan, bezeroen artean

NEURKETA 'OFIZIALA' Kortezubiko alkate izandako 'Marko Pollo' ospetsuak azaldu zien buruen neurketa nola egin

EDU MENDIBIL > OÑATI

Kontrako noranzkoan dabilen erlojua duen tabernak berezia behar du izan du derrigor: Oñatiko Antton tabernak buruhandien lehiaketa egin berri du eta Bizente Ezkurra izan da garailea. Txapeldun ezin esan, haren neurriko txapela egiterik ez dagoela azaldu digulako Antton Elortza tabernako jabeak eta lehiaketaren bultzatzaileetako batek: "Txapelik ez diogu eman, gutxienez toloa beharrezkoa izango zelako Bizenteren burua estaltzeko...", dio umorez.

Kontuak kontu, Eguen-gizenean txapelketa xelebreak egin dituzte azken bi urteotan: iaz, *pisuzko* lau lagun pisua asmatu beharra zeukatzen bezeroek eta joan den astean buruhandien txapelketa egin zuten, ondo afaldu eta gero: arrautza pare txorizoarekin eta patatekin, txerri hankak eta peilak izan zen menua, pisuari eusteko egokia.

Ondoren, zazpi lagun arteko lehia izan zen, nork bururik handiena izango. Garai baten,

Kortezubiko alkate izandako *Marko Pollo* ospetsuak egiten zituen halakoak: "Orain dela urte asko buruhandi koadrila bat joan ginen haren erretegiara eta *Marko Pollo*-k berak azaldu zigun buruaren neurketa nola egiten zuen: burugainetik bekokira eta burugainetik kokotsera. Biak batu beharra zegoela gero", diosku Elortzak.

LEHIA BIZIA

Esan bezala, Bizente Ezkurra izan da buru handiena, 131 zentimetroko neurriarekin. Argazkian, ezkerretik eskumara, Ezkurra, Inazio Arkauz (126,5), Iñaki Aranburu (atzean, 128,5), Bernardo Zurutuza (125), Antton Elortza (123,5), Lino Urtzelai (127,5) eta Antonio Gartzia (125,5). Hurrengo urtean beste zerbait antolatuko dutela esan digu Elortzak. Bien bitartean, loteria irabaztearekin amets egingo dute: 1980ko abuztuaren 16an zabaldu zuten taberna, eta horregatik 16.880 zenbakia erosten dute astero. Tabernako potoloak, sari *potoloaren* zain.



LEHIKIDEAK Bizente Ezkurra, ezkerrean, eta gainerako partaideak, Eguen-gizenean ateratako argazkian.

ANTTON TABERNA

ahobero

" [Fernandez Bermejo ministroari] Kendu itzazu boxeorako eskularruak demokraziaren eta PPren aurka. Eta zuhur jokatu"

Jose Maria Michavila > PPko diputatua

Hobe lukete Justizia ministro berriarekin eta beste hainbat konturekin neurritz jotatzea PPko ordezkariak. Boxeo maisuak ditugu aspaldian.

iturri onetik

Gatillazo taldea bigarren diskoa grabatzen ari da egunotan Arrasaten

Evaristoren Gatillazo taldea bigarren diskoaren grabazioa bukatzen dabil Arrasateko Shot! estudioan. Egunotan ahotsak grabatzen dabilta, eta datorren astean nahasketak egingo dituzte. Lehenengo diskoa ere Shot!-en grabatu zuten. Mikel Lezea baxu jotzaile arrasatearra dugu Gatillazo taldeko kide berria. Diskoa argitaratzeko dagoeneko diskoetxe batekin akordioa egin du Gatillazok.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Gasolindegia

Izen horrekin bataiatu dute Arrasateko Biteri plazako tramankulua. Eta ez dago gaizki jarria izena, badu-eta gasolindegien antzik. Nekezago dei dakiokete pergola edo aterpe, pergolak dotoreak izan ohi direlako eta aterpeak, aterpe; hau da, babesleku.

Azkena jakin da Udalak diru gehiago gastatu nahi duela egitura hori hobetzen; haize-babesak jartzen, besteak beste. Baina, nekez konpon daitezke *gasolindegia*-ren akatsak, bera baita akatsa, goitik behera.

Nik eskatu nahi diot Arrasateko Udalari, errespetu handiz, ez dezala ezer egin. Maiatzeko hauteskunde ondoko Udal berriak gaiari bi buelta eman eta dena kentzeko erabakia hartu bitartean, hobe ez gastatzea diru gehiago alferrik. Behin hanka sartuta, hobe da umil jotatzea, egoskor baino.

ai, ene!



Denborak aurrera egin du erlojuekin ere...

Akordatzen al zarete zuen lehenbiziko erlojuarekin? Argazkiko 1980ko hamarkadako modeloa da. Beheko helbidean, gehiago.

<http://tinyurl.com/2sutd2>

Toyota Yaris Luna 1.3 WT-I 87 ZP 12.800 €*-tik aurrera

Toyota Yaris Luna, serieko ekipamendua:

- Aire girotua
- 9 aire-poltsa
- ABS, EBD eta BA
- Aleaziozko haguak
- ateen itxitura zentralizatua urrun-mandoarekin.
- Atzeko jarleku desplazagarriak (15 cm) eta eserleku-bizkar etzangarria (10°), (Toyota Easy Flat).
- Irratia + CD irakurgailua, MP3 eta sei bozgorailu.
- Funtzio askotariko larruzko bolantea, altueran eta sakontasunean erregulagarria.

Toyota Yaris gama (Yaris, Luna eta Sol akaberekin): 1.3 WT-i (87 ZP) eta 1.4 D-4D Diesel Common Rail (90 ZP).

Toyota Yaris, adimenaren indarra



Toyota Yaris bat daukazu 10.800 €-tik aurrera

BEZa, garraioa, matrikulazio zerga, promozioa eta ekarpena barne. Prever Plana ez dago barne. Publikoarentzako salmenta-prezio gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan, biltegian dauden autotzatzat. Iragarkiko modeloa: Toyota Yaris Luna bost ate, lainotako faroak aukeran, barne. Kontsumo konbinatua 4,5 eta 6,0 l/100 km artean. CO2 igorpena 119 eta 141 g/km artean



FINANCIAL SERVICES



Kontzesionarioa

www.euskoauto.toyota.es

EuskoAuto

Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85

BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI